

---

**a u r k i b i d e a**


---

Zenbaki honetan..... 3

**Sindikatuak Euskal Herrian**

KAIERO, A.: Sindikatuak Hego Euskal Herrian ..... 6

ARBELBIDE, X.: Iparraldeko Sindikatuak ..... 68

---

**Orain eta Hemen**

Estradiziorik ez, eta kitto - «La Voz de Euskadi» kinka larrian -  
 AEB eta Nikaragua: bi hauteskunde-mota - Torturaren  
 kontua berriz ere - E. Amezaga: Autores Vascos - Damua  
 eta bonbak - 300.000 lagun en Ibilaldi nagusia - «La Tarde  
 de Euskal Herria» egunkaria hil - «Antiterrorismo mili-  
 tante» - Nikaragua: eskualde-gatazka..... 89

---

**Gaiak**

COBREROS, E.: Funtzio publikoa eta hizkuntzagatiko diskrimi-  
 nazioa ..... 105

---

**...hainbat aburu**

OTAEGI, J.A.: OTAN izango da laster naturalena ..... 113

EGUZKITZA, A.: Plazera: sor- eta helburu. Plazer-hatsarriaren  
 defentsan ..... 119

AZURMENDI, J.: «Javier Bilbao», edo anonimato zurituaren  
 oraingo inbentua ..... 124

---

**Oharrak**

ZUZENDARITZA: «Kontuak argi eta garbi» ..... 131

---

# ZENBAKI HONETAN

---

*Eskutan duzun zenbaki hau 1984eko azkena da eta bigarren aldi honetako 33.a. Emanaldi honekin betetzen dugu harpidedunarenganako urteko konpromezua, ongi bete dugulako satisfakzioz.*

*Zenbaki honen azalpena egitean, gai nagusia aipatu behar dugu lehen: Sindikatuak Euskal Herrian. Bitan banaturik aurkezten dugu azterketa: Hegoaldekoa Andoni Kaierok egin du luze eta zañal, eta Iparraldekoa, laburrago, Xipri Arbelbidek.*

*Lehen eskuko informazio ugari eskaintzen du A. Kaierok bere azterketan. Hego Euskal Herrian kokatzen diren sindikatuaren historia, ideologia, ezarpena eta profila analisatuz deskribatzen du panorama sindikala. Bi informazio-motez baliatzen da bere lanean egilea: batetik, 1980ko eta 1982ko hauteskunde sindikalak, eta bestetik 2.645 langileri egindako inkesta. Egilearekin aitortu eta salatu behar dugu Nafarroako informazio-iturrien eskasia.*

*Iparraldean kokatzen diren sindikatuei buruzko lanean, X. Arbelbidek bi sindikatu-mota bereizten ditu hasieratik bertatik: langile-sindikatuak eta laborari-sindikatuak. Banan bana aztertzen du batzuen eta besteentzen historia, ideologia, ezarpena eta jokabidea.*

*Orain eta Hemen saila bete-betea dugu oraingoan. Gaietan denetik dago, politika, kultura, kazetaritza. Eta lumatan ere bai, kritika, ironia, salaketa, azterketa, iruzkinak. Dena llabur, llaburregi nahi bada, baina ez motz.*

*Gaiak sailean E. Cobrerosen, jazoera konkretu baten historia eta pentsaera arakaturik, funtzio publikoan euskarak jasaten duen diskriminazio ageria ondorioztatzen du artikulua honetan. Lan honen mamia aurtengo Udako Euskal Unibertsitatean eman zuen autoreak berak hitzaldi gisa.*

... hainbat aburu sailean, eritzi libreen txoko honetan, hiru artikulu ditugu, hiru gai oso desberdin. J.A. Otaegik Estatuaren eta formazio politikoaren bilakaerak eta gorabehera ideologikoak ditu gogoetagai. A. Eguzkitzak saio bat idatzi du gizakiarentzat plazerak duen zentzuaz eta garrantziaz. Hirugarren eritzi-ematea, J. Azurmendirena da: «anonimato zurituaren inbentu» bezala kritikatzeko du honek azken aldi honetan Deia egunkarian agertzen den «Javier Bilbao».

Oharrak sailarekin ixten dugu zenbakia. Aldizkariak bere martxarako eman nahi dituen albisteez, oharrez eta berriez hornitzen da sail hau. Oraingoan, ohar bat bakarra dago. Zuzendaritzak egindako ohar luzea: «Kontuak argi eta garbi» izenez, aldizkariaren gorabehera ekonomikoak argitu nahi ditu. Zertan garen eta nola jokatzeko dugun jakin nahi duen harpidedunari ohar hori irakurtzea gomendatzen diogu.



Andoni Kaiero  
Xipri Arbelbide

## SINDIKATUAK EUSKAL HERRIAN

### **Sindikatuak Hego Euskal Herrian**

Sarrera. Euskadiko espektro sindikala: K.A.ko entzuleria sindikala; afiliazio sindikala K.A.an: afiliazio-tasak, afiliazioaren banaketa sindikatuen artean; entzuleria eta afiliazio sindikalak Nafarroan. ELA, UGT, CC.OO. eta LAB sindikatuen profila: bakoitzaren historia-ideologiak, ezarpena, afiliatu eta botue-maileen profila.

### **Iparraldeko Sindikatuak**

Langile-sindikatuak: CGT (historia, ideologia), FEN, CFDT, CFTC. Nekazari-sindikatuak: FNSEA-CNJA, MODEF, FFA, CNSTP, FSP. Horien ezarpen, jokabide eta entzuleria Frantzian eta Euskal Herrian.

## Sindikatuak Hego Euskal Herrian

Andoni Kaiero

1936-39ko gerra zibilaren aurretik, bi sindikatu ziren nagusi Euskal Herriko zona industriatsuetan. Eta 1911rarte, urte horretan sortu bait zen ELA, UGT sindikatu sozialista zen sindikatu-munduko nagusi bakarra. Aipatu datatik aurrera, ordea, UGT eta ELA-STVk elkarrekin konpartitu behar izan zuten nagusigo hori, eta 1930etik aurrera batez ere, zeren eta urte horretan harrera biziki ona izan bait zuen bertako langileriaren baitan sindikatu abertzaleak.

Frankismo garaian, berriz, langile-sindikatuak debekatuak zeuden arren, ez zen lortu, hala ere, tradiziozko organizazioen iharduketa eta beste mugimendu berrien sorpena eragozte, batez ere hirurogei eta hirurogeitamarreko ekonomi hazkuntzako urteetan. ELA-STVk aldaketa sakon bat jasaten du 1964etik aurrera, eta batipat urte horietan ezarri zitzaiola esango genuke gaur egun duen egitura. Beste aldetik, PCEk denboraldi horretan fabriketan sustaturiko mugimendu unitarioetatik, CC.OO. sortuko da, eta garai hartako ETArengatik langile-frontea, bere aldetik, gaur egungo LAB sindikatuaren urrutiko iturria dela esango genuke.

Zein dugu, bada, gaur egun Euskadiko panorama sindikala; behin langile-organizazioak finkatuz gero, diktadura frankistaren ondoren? Zein dira gaur egun ihardun diharduten sindikatuen ezaugarriak?

Sindikatuaren azterketa zehatz bat egin nahi izanez gero, ez dago dudarik berorien historia, ideologia, antolamendua eta ezarpena eta estrategia estudiatu beharko liratekeela. Gu, ordea, sindikatuek Euskadin duten ezarpena aztertzeraz mugatuko gara soilik lan honetan. Horrek Euskal Herriko mapa sindikala deskribatzeko bidea ematen digu eta, gertatzen den bezala, berorietako bakoitzaren afiliatuen eta botuemaileen ezaugarriak ezagutzen baldin baditugu, marraztu ahalko dugu, ezarpenaren datu garrantzitsu hau kontutan hartuz, sindikatu bakoitzaren profila. Eta horretarako erabili dugun tresneria, funtsean, 1980 eta 1982an ospatutako hauteskunde sindikalen emaitzak izango da, eta orobat 1982ko ekainean eta uztailean egindako inkesta bati eman zitzaizkion erantzunak ere.

Hauteskunde sindikalak deitzera eman izan direnak, enpresetako langileen ordezkariak hautatzeko besterik ez dira izan errealtatean; baina, aldi berean, kandidatura sindikalek lortu izan duten arrakasta handiarengatik, sindikatu horiek langilerian duten ezarpenaren test bat gertatzen zaizkigu. Hauteskunde horietan ez dute parte hartzen funtzionari estatalek, kooperatibetako langileak eta sei langile baino gutxiagoko enpresetako enplegatuek, eta, beraz, erabiltzen ditugun datuetatik kanpo geratzen dira guzti horiek. Horiez gainera ez dira jasotzen ezta hauteskunderik egin ez duten enpresetako langileak eta, egin izan arren, berorietan parte hartu ez dutenak ere. 1980ko hauteskundeek, legez zegokien langileetatik % 71 inplikatu zuten, gutxi gorabehera, eta horietatik % 79k parte hartu zuen efektiboki K.A.an (Komunitate Autonomoan). Datu horiek, bestalde, ez dira aldatu funtsean 1982an egindako azken hauteskundeetan, eta esan daiteke, beraz, langileria osatzen duten erdiek baino gehiagok parte hartu dutela beren botuarekin bi hauteskundeotan.

Eusko Jaurlaritzaren Lan-Kontseilaritzari esker, enpresetako hautapen-unitate bakoitzeko emaitzak eskuratu ahal izan ditugu, horrela kolegioak ere bereizteko posibilitatearekin, bai 1980ko hauteskundeetan bai 1982koetan, K.A.an. Eta horrek, noski, beste gauzaren artean, kandidatei emandako botuak zehaztasun handiarekin kalkulatzeko aukera eman digu. Esan beharra dago, bestalde, botuen erabilera askoz ere gehiago hurbiltzen dela benetako

ezarpenera, esleitutako ordezkarien datuaren erabilera baino, postuak esleitzeko hautapen-sistemaren distortsio posiblea ezabatu egiten duelako. Damurik, Nafarroari buruz, Madrilgo IMAC zentralak ofizialki argitaratutako datu urri baino urriagoak besterik ez dugu eskuartean.

Azterketa honetan erabili dugun bigarren tresna, lehen ere esan dugun bezala, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoko Kabinetearen 1982an 2.645 langileri egindako inkesta bat dugu. Inkesta hau zabaldu zen Nafarroan ere, eta euskal langileek sindikatupei eta harreman laboralei buruz zuten jarrera eta eritzia ezagutzera zuzendua zegoen batipat. Funtzionari publikoak eta kooperatibetako langileak barne-hartzen ez dituen lagin hau mailakatu egin zen, kontutan hartuz, alde batetik, enpresak (tamaina, iharduera-adarra) eta bestetik indibiduoak (adina, sexua eta profesio-kategoria), eta % 95eko konfidantza-maila ematen du. Lan honetan, ordea, emaitza horien parte bat besterik ez dugu erabiliko.

Lan honen helburua, lehen ere esan dugun bezala, sindikatuak, langileriaren baitan duten ezarpenaren arabera karakterizatzea litzateke. Alabaina, Euskal Herriko espektro sindikala nolakoa den erakusteko asmoarekin, lurraldeetako entzuleriaren eta afiliazio sindikalaren oinarrizko datuak emango ditugu lehenik eta labur-labur. Nafarroari dagokionez, azken puntu hori bakarrik garatu beharrean aurkitzen gara, ez dugulako behar hainbat informazio, eta beraz, sindikatuen profila, K.A.an duten ezarpenaren ezaugarriei bakarrik dagokiela aitortu beharko dugu. Lanaren egilea ohartzen da, gaur egungo K.A.ko hiru Lurraldeetara bakarrik mugaturiko informazioa sortzea eta ikerketak egitea, Nafarroagandik urruntzen gaituen beste faktore bat gehiago gertatzen dela.

## **1. Euskadiko espektro sindikala**

### **1.1. K.A.ko entzuleria sindikala**

1980 eta 1982ko hauteskundeetan lortutako emaitzen eta orobat afiliazioaren arabera, hiru sindikatu gailentzen dira K.A.ko panorama sindikalean: Estatu-mailan maiortario diren bi sindikatuak, alde batetik, eta ELA-STV, K.A.an nagusi den sindikatuak, bestetik. Hiru handien artean ordezkarien % 69 eta botuen % 67

*Sindikatuak eta kandidatura ez-sindikalek K.A.an lortutako ordezkariak. 1980 eta 1982ko hauteskundeak.*

	1980ko hauteskundeak		1982ko hauteskundeak		Ordezkarien aldea 1982/1980
	postuak	%	postuak	%	
ELA-STV	3.824	25,62	4.387	30,24	+563
UGT	2.866	19,21	3.125	21,54	+259
CCOO	2.638	17,67	2.484	17,12	-154
LAB	701	4,70	850	5,86	+149
USO	565	3,79	391	2,70	-174
ELA (a)	281	1,88	205	1,41	-76
SU	188	1,26	52	0,36	-136
CSUT	30	0,20	2	0,01	-28
CNT	13	0,08	27	0,19	+14
Koalizioak	471	3,16	179	1,23	-292
STEE-EILAS	76	0,51	56	0,39	-20
KAIA-OUT	46	0,31	16	0,11	-30
SLMM	22	0,15	131	0,90	+109
Ez-sindikatuak	3.201	21,45	2.603	17,94	-598
<b>Guztira</b>	<b>14.922</b>	<b>100,00</b>	<b>14.508</b>	<b>100,00</b>	<b>-414</b>

*Sindikatuak eta kandidatura ez-sindikalek Euskal Herriko K.A.an 1980 eta 1982ko hauteskundeetan lortutako botuak.*

	1980ko hauteskundeak		1982ko hauteskundeak		Botuen aldea 1982/1980
	botuak	%	botuak	%	
ELA-STV	62.256	23,48	66.355	26,54	+ 4.099
UGT	52.387	19,77	55.950	22,38	+ 3.563
CC.OO.	49.604	18,71	43.923	17,57	- 5.681
LAB	13.370	5,04	16.741	6,69	+ 3.371
USO	9.913	3,74	7.176	2,87	- 2.737
ELA (a)	7.555	2,85	5.180	2,07	- 2.375
SU	2.978	1,06	655	0,26	- 2.323
CNT	956	0,36	920	0,37	- 36
CSUT	473	0,17	33	0,01	- 440
Koalizioak	12.185	4,60	4.652	1,86	- 7.533
Ez-sindikatuak	53.588	20,21	48.463	19,38	- 5.125
<b>Guztira</b>	<b>265.085</b>	<b>100,00</b>	<b>250.048</b>	<b>100,00</b>	<b>-15.037</b>



lortu dute azken hauteskundeetan, eta afiliazioaren % 76,8 biltzen dute. Hiru sindikatu horien ondoan, LAB sindikatu erradikalaren presentzia apala (ordezkaritzaren % 5,86 hauteskundeetan) baina eraginkorra (afiliatuen % 11) azpimarratu behar da K.A.ko panorama sindikalean. 1982ko azken hauteskundeek, beren aldetik, eta 1980ko aurreko hauteskundeen konparazioan, bermatu egin dute K.A.ko espektro sindikal hau. ELA-STV, UGT eta LABek gehitu egin dute beren entzuleria, CC.OO.ek eutsi egiten dio 1980koari eta jaitsi egiten dira ez-sindikatuak eta gainerako sindikatuen entzuleria.

USO ez da iristen ordezkarien % 3ra 1982ko hauteskundeetan eta K.A.ko langileen % 1 baino gutxiago afiliatu biltzen ditu, batez ere Bizkaia aldean kokatuak hauek. Frankismoaren azkenaldian Euskadin benetan lehiatsua izandako sindikatu hau, oraindik sendatzeko dago bere zatiketa eta birdefinizioetatik. Garai hartan jarraitzen zioten kideak UGTra pasa dira gehienak, eta CC.OO.era neurri apalagoan. Beste hainbatek kandidatura bateratuetan parte hartu du hauteskundeetan. Ez bide dirudi sindikatu honek gaur egun agertzen duen jarrera moderatuaren ondorioz lekurik aurkituko duenik K.A.ko espektro sindikalean.


ELA (a), bere aldetik, ELA-STVren zatiketa bat dugu eta indarra kendu egiten dio honi presente dagoen lekuetan. Lortu dituen botuen % 2koaren eta afiliatuen % 1,41ekoaren zati handiena, Bizkaiko Nerbioi ibaiaren ezker aldeko enpresa handietan kokatzen da.

SU eta CSUT sindikatu iraultzaileak, berriz, esan genezake eszenatik benetan suntsitu egin direla 1980ko hauteskundeen ondoren. SUk bazuen halako presentzia bat 1980ko hauteskundeetan, baina ez dio eutsi 1982koetan<sup>1</sup>. Eta bukatzeko, CNT sindikatu anarkistak, gerra zibil aurreko denboretan halako itsaspen bat izan bazuen ere Euskadin, pentsa daiteke jadanik ez diola erantzuten gaur egungo sindikalismoari, zeren eta afiliazioaren % 2,3 besterik ez bait du biltzen, gaur egun, K.A.an.

Hauteskundeetako entzuleriak adierazten digunaren arabera, langileek sindikatuari buruz dituzten hiru jarrerak beren horretan jarraitzen dute K.A.an: langile gehien-gehienek (% 70 inguruk) batez ere kontrol instituzionalaren aldeko postura egiten duten sindikatuetan jartzen dute beren konfidantza, sindikatu majoritarioek, beren aldetik, kolektibo hau monopolizatzeraz jotzen dutelarik; K.A.ko langileen gutxi gorabehera ehuneko hamar bat, berriz,

erradikal bezala agertzen da eta bere konfidantza LAB sindikatu abertzalearen kandidatuetan ipintzeko joera azaltzen du; eta azkenik, botuemaileen gutxi gorabehera ehuneko hogeitabatek errefusatu egin ditu kandidatura sindikalak bi hauteskundeetan.

*Botuemaileen taldeak Euskal Herriko K.A.an 1982-1980ko hauteskundeak*



Lurraldean araberako entzuleriaren emaitzak ondorengo koardroetan ematen dira, ordezkariak lehenik eta botuenak gero. Hiru sindikatuen espektroa antzekoa da: hiru sindikatu maiorita-

rioen nagusitasuna eta LABen presentzia, txikiagoa Araban, koalizioen bidez ordezkaturako dagoelako apika. ELA-STV aise nagusitzen da Gipuzkoan eta nagusitasun hori UGTrekin konpartitu beharrean aurkitzen da Bizkaian. Haren nolabaiteko ahulezia Araban agertzen dela esango genuke, baina hemen ere nabarmenki handitu du bere entzuleria azken hauteskundeetan. UGTk, bere aldetik, Araban eta Bizkaian lortu ditu emaitzarik onenak, eta ahulago agertzen da Gipuzkoan. CC.OO.ek, 1982ko hauteskundeetarako

*Sindikatuak eta kandidatura ez-sindikalek K.A.ko Lurraldeetan lortutako ordezkariak. 1982 eta 1980ko hauteskundeak. (Portzentaia).*

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	1980	1982	1980	1982	1980	1982
ELA-STV	16,19	20,22	33,94	38,71	22,69	27,16
UGT	25,35	27,89	14,83	16,77	20,47	23,09
CC.OO.	18,44	16,28	18,10	18,12	17,21	16,67
LAB	2,15	2,13	5,49	7,76	4,82	5,55
USO	3,17	3,21	1,16	0,54	5,61	4,00
ELA (a)	1,32	0,31	0,59	0,44	2,83	2,34
SU	1,32	0,10	2,10	0,75	0,71	0,16
CSUT	0,05	—	—	—	0,36	0,03
CNT	0,61	1,24	0,01	0,02	—	0,03
Koalizioak	5,68	3,63	3,03	1,81	2,62	0,24
STEE-EILAS	0,77	0,41	0,38	0,42	0,53	0,36
KAIA-OUT	—	—	—	—	0,58	0,21
SLMM	—	—	0,06	0,02	0,24	1,72
Ez-sindikatuak	24,94	24,57	20,30	14,64	21,32	18,45
<b>Guztira</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>

N. 1.957   N. 1.929   N. 5.020   N. 5.027   N. 7.945   N. 7.552


tan Bizkaian eta Araban botuak galdu ondoren, ezarpen orekatu bat aurkezten du hiru Lurraldeetan. LABen ezarpen-guneak, berriaz, Gipuzkoan eta Bizkaian daude.

*Sindikatuak eta kandidaturek Lurralde Historikoetan lortutako botuak.  
1980 eta 1982ko hauteskundeen arteko aldeak.*


	Araba					Gipuzkoa					Bizkaia				
	1980		1982		Aldea	1980		1982		Aldea	1980		1982		Aldea
	Zenb.	%	Zenb.	%		Zenb.	%	Zenb.	%		Zenb.	%	Zenb.	%	
ELA-STV	4.834	14,30	6.440	18,78	+1.606	26.641	31,82	27.790	34,79	+1.149	30.781	20,85	32.125	23,64	+ 1.344
UGT	7.711	22,83	8.795	25,65	+1.084	12.803	15,29	13.918	17,43	+1.115	31.873	21,60	33.237	24,46	+ 1.364
CCOO	6.303	18,65	5.206	15,18	-1.097	15.847	18,92	15.116	18,92	- 729	27.454	18,60	23.601	17,37	- 3.853
LAB	614	1,82	600	1,75	- 14	5.229	6,24	7.072	8,85	+1.843	7.527	5,10	9.069	6,67	+ 1.542
USO	877	2,60	1.147	3,35	+ 270	1.300	1,56	655	0,82	- 645	7.736	5,25	5.374	3,96	- 2.362
ELA (a)	617	1,83	83	0,24	- 534	705	0,84	591	0,74	- 114	6.233	4,22	4.506	3,32	- 1.127
SU	344	1,02	25	0,07	- 319	1.546	1,84	479	0,60	-1.067	908	0,61	151	0,11	- 757
CNT	928	2,74	886	2,58	- 42	28	0,03	9	0,01	- 19	—	—	25	0,02	+ 25
CSUT	16	0,04	—	—	- 16	—	—	—	—	—	457	0,30	33	0,02	- 424
Koalizioak Ez-sindika. eta beste	2.984	8,84	2.023	5,90	- 961	3.430	4,10	2.116	2,65	-1.314	5.771	3,92	513	0,38	- 5.258
	8.554	25,33	9.088	26,50	+ 534	16.194	19,36	12.131	15,19	-4.063	28.840	19,54	27.244	20,05	- 1.596
<b>Guztira</b>	<b>33.782</b>	<b>100,00</b>	<b>34.293</b>	<b>100,00</b>	<b>+ 511</b>	<b>83.723</b>	<b>100,00</b>	<b>79.877</b>	<b>100,00</b>	<b>-3.846</b>	<b>147.580</b>	<b>100,00</b>	<b>135.878</b>	<b>100,00</b>	<b>-11.702</b>

1982ko hauteskundeetan Lurraldeetan eman diren botu-taldeak kontutan hartuz, Bizkaia eta Gipuzkoak ematen die indarririk handiena moderatu bezala seinalatu ditugun sindikatuari (botuen % 72,75 eta 72,70 hurrenez-hurren). Gipuzkoan, botu horien % 70,14 hiru sindikatu maioritarioetara joan da. Bizkaian, aldiz, sindikatu hauen botua urrixegoa da, USO eta ELA (a) sindikatuen iraunkortasunaren ondorioz. Azkenik, botu erradikalaren maila % 10etik gora doa Gipuzkoan. Arabako kasuan botu-mota honen erdia baino gehiago koalizioetatik, ustez erradikaltzat ematen direnetatik, dator.


*Lurralde Historikoetako botu-taldeak. 1982ko hauteskundeetako emaitzak.*



ARABA



GIPUZKOA



BIZKAIA

## 1.2. Afiliazio sindikala Komunitate Autonomoan

### 1.2.1. Afiliazio-tasak

Komunitate Autonomoko alokatuen %32,7k (inkestan ez ziren sartzan ez funtzionari publikoak ez kooperatibetako langileak) sindikatu bati kuota ordaintzen ziotela adierazi zuten 1982ko Ekaina eta Uztailean. Gutxi gorabehera 173.000 langilek, Seguritate Sozialaren Institutu Nazionalaren 1979-XII-31ko zentsuaren arabera laginean sartu genituen 530.261 langiletatik<sup>2</sup>.

Afiliazio sindikalaren tasak berdintsuak dira K.A.an eta Estatuan, nahiz eta seguruenik K.A.koa altuagozat hartu beharko genukeen, kontutan izanik guk egin genuen galdera afiliazio-tasa jakiteko, inkesta estatalek egiten dutena baino murrizgarriagoa dela<sup>3</sup>.

Afiliazioa altuagoa da Gipuzkoan (% 36,6) beste Lurraldeetan baino. Bizkaian % 33,8koa da afiliazio-tasa, eta Araban % 21,2koa.

*Afiliazio sindikalaren tasa orokorra, K.A.an eta hiru Lurraldeetan*

Komunitate Autonomoa	32,7
Araba	21,2
Bizkaia	33,8
Gipuzkoa	36,6

*Afiliazio sindikalaren tasa sektoreka*

	K.A.	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Industria	36,7	24,9	38,3	38,6
Zerbitzuak	24,9	12,4	28,8	25,4
Nekazaritza eta Arrantza	30,0	—	—	—

Industri langileek zerbitzuetako langileek baino afiliazio-tasa handiagoa dute, bai Komunitate mailan bai Lurralde bakoitzaren mailan. Industrian Bizkaiak ematen du tasa handiena, eta zerbitzuetan Gipuzkoak.

Langileak, tekniko eta administratiboak baino proportzio handiagoan daude sindikatuta. Langile-klasearen lehen estratuko % 37k ordaintzen dio kuota sindikatu bati K.A.an, eta administratiboen % 24,6k eta teknikoen % 22k.

*Langile-estratuen sindikatze-tasa*

	K.A.
Langileak	37,3
Administratiboak	24,6
Teknikoak	21,9
Administratibo eta teknikoak	23,6

Enpresa txikiak, 25 langile baino gutxiagokoak dira afiliazio-tasa txikiena ematen dutenak: % 25. Erdi-mailako enpresena, 51tik 500era langilekoena da afiliazio-tasa altuena: % 37. Hauen atzetik enpresa handiak daude, 500 langile baino gehiagokoak, % 36ko afiliazio-tasarekin, eta, azkenik, 26tik 50era langilekoak: % 32,6.

*Neurri desberdinetako enpresen afiliazio-tasa*

	K.A.
25 langile baino gutxiagoko enpresak	24,7
26tik 50era langileko enpresak	32,6
51tik 500era langileko enpresak	37,4
500 langile baino gehiagoko enpresak	35,9

Langileen jatorria eta adina, sindikatzean eragiten duten bi aldagarri dira. Lanaren segurtasunak edo segurtasun-ezak, berriz, ez dirudi sindikatze-tasa aldatzen duenik<sup>4</sup>.

Sindikatzeta-tasa %37,7koa da hogeitamahiru urte baino gehiagoko langile helduen artean; 25etik 30erakoen artean % 30,7ra jaisten da, eta % 17,8an dago 25 urtetik beherako gazteenen artean.

*K.A.ko langileen adin-estratuetako sindikatzeta-tasak*

25 urtez beherako alokatuak	17,8	33 urte baino gazteagoak	27,3
25etik 32ra urtetako alokatuak	30,7		
33tik 44era urtetako alokatuak	37,5	33 urte baino zaharragoak	37,7
45 urte eta gehiagoko alokatuak	38,0		

Azkenik, etorkinen sindikatzeta-tasa handiagoa da (% 35,2) K.A.an edo Nafarroan jaiotakoak baino (% 31,6).

*Etorkinen eta autoktonoen sindikatzeta-tasa K.A.an*

Euskadin jaiotako langileak	% 31,6
Langile etorkinak	% 35,2

Konkordantzia bat dago, sektoreetako, estratuetako eta neurriaren arabera enpresetako afiliazio-datuen eta hauteskunderetako audientzia aztertuz lortu ditugun datuen artean: botuaren bidezko partehartzean agertzen den errepresentazioarekiko interesa, txikiagoa da zerbitzuetan industrian baino, eta administratibo eta teknikoetan langileetan baino; eta sindikatuak sarrera eskasa dute enpresa txikietan, hauteskundeak egin dituztenen arabera.

Langile gehienek (% 72,3) burokratizazioa eta basearen interesetik deslotura salatzen diete sindikatuari, eta hemen egon daiteke afiliazio-tasa urriaren oinarria. Baina kritika hau handiagoa da gazteen artean: hogeitamahiru urte baino gazteagoetatik % 75 (25 urte baino gazteagoetatik % 79) ados daude galdesortako esaldi honekin: «sindikatuak desprestigiatzen ari dira, burokratizatzen ari direlako eta urruntzen ari direlako oinarriaren interesetik».



*Sindikatueta afiliazioa K.A.an eta hiru lurraldeetan (Galdera: «Zein sindikaturi ordaintzen diozu zeure kuota?»). 1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	K.A.		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Afiliatze-tasa-ko partea	Afiliatu guztien %	Afiliatze-tasa-ko partea	Afiliatu guztien %	Afiliatze-tasa-ko partea	Afiliatu guztien %	Afiliatze-tasa-ko partea	Afiliatu guztien %
ELA-STV	11,8	36,1	5,2	24,6	15,7	44,6	11,1	32,8
UGT	7,6	23,2	5,4	25,6	5,4	15,3	9,5	28,1
CCOO	5,7	17,4	5,2	24,6	7,9	22,4	4,5	13,3
LAB	3,6	11,1	1,5	7,1	3,0	8,5	4,5	13,3
USO	0,9	2,8	0,9	4,3	0,2	0,6	1,4	4,1
ELA (a)	0,8	2,5	0,3	1,4	0,3	0,8	1,2	3,6
CNT	0,7	2,3	0,3	1,4	1,0	2,9	0,6	1,8
SU	0,4	1,3	0,5	2,4	0,7	2,0	0,2	0,6
CSUT	0,1	0,3	0,3	1,4	—	—	—	—
Beste sindika.	1,0	3,0	1,5	7,1	1,0	2,9	0,8	2,4
Ez-sindika.	67,3	—	78,8	—	63,4	—	66,2	—
Ez du erantz.	0,1	—	0,1	—	1,4	—	—	—
<b>Guztira</b>	100,0 (N. 1.211)*	100,0	100,0 (N. 650)	100,0	100,0 (N. 688)	100,0	100,0 (N. 654)	100,0

\* K.A.ko hiru lurraldeetan inkestatuak 1.988 lagun dira. Baina 1.211 inkesta teoriko erabili ziren, lurralde bakoitzeko populazio alokatuaren araberrako ponderazio-koefiziente bat aplikatuz haici. Horregatik K.A.ko N.a ez da lurraldeetako N.en baturaren berdina.

### 1.2.2. Afiliazioaren banaketa sindikatuen artean

K.A.ko langileetatik, inkestako % 11,8 ELAko afiliatuak dira, eta afiliatu guztietatik % 36,11. UGTkoak % 7,6 (afiliazioaren % 23,23), CC.OO.ekoak % 5,7 (afiliazioaren % 17,42), LABekoak % 3,6 (afiliazioaren % 11,11), sindikatu honen hauteskunde-entzuleriak aditzera eman zezakeen baino afiliazio altuago batekin.

Arabian, sindikatu handiek antzeko partea dute afiliazio-tasan, beste lurraldeetan baino ehuneko txikiagoekin. Gipuzkoan ELA da nagusi, gutxiago Bizkaian, hemen dutelarik UGT eta LABek beren afiliatorik altuena. CC.OO., berriz, afiliazio oso urri batekin ageri da, eta hau ez dago ados sindikatu honek 1980ko hauteskundeetan lortutako botuekin.

Proporzio hauetatik, sindikatu bakoitzaren K.A.ko eta hiru Lurraldeetako afiliazio-kopurua kalkula dezakegu. Ik. laukia 20. or.

Afiliazioa eta 1982ko hauteskundeetan sindikatu bakoitzak hartutako botua erkatuz, ikusiko dugu ados datozela bi zifrak UGT eta CC.OO.en kasuetan, eta baita ELArenean ere, logikoa bait dirudi botu-entzuleria afiliazioa baino zabalagoa izateak, Gipuzkoan izan ezik. Baina esan beharra dugu bi arloak ez direla berdinak: botuak, ordezkariak hautatu ahal izanik, hauteskundeak egin zituzten enpresetakoak dira; inkesta, berriz, langile guztiei dagokie, aipatutako salbuespenekin.

#### *Sindikatu nagusien 1982ko afiliatu eta botuak K.A.an eta hiru Lurraldeetan*

	K.A.		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Afil.	Botuak	Afil.	Botuak	Afil.	Botuak	Afil.	Botuak
ELA-STV	62.571	66.355	3.936	6.440	26.351	27.790	31.827	32.125
UGT	40.300	55.950	4.087	8.795	9.064	13.918	27.239	33.237
CC.OO.	30.225	43.923	3.936	5.206	13.260	15.116	12.903	23.601
LAB	19.089	16.741	1.135	600	5.035	7.072	12.903	9.069

*Sindikatueta afiliatuen gutxi gorabeherako kopuruak K.A.n eta hiru lurraldeetan (1982ko ekaina-uztaila)\**

Sindikatuak	K.A.	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
ELA-STV	62.571	3.936	26.351	31.827
UGT	40.300	4.987	9.064	27.239
CC.OO.	30.225	3.936	13.260	12.903
LAB	19.089	1.135	5.035	12.903
USO	4.772	681	336	4.014
ELA (a)	4.242	227	503	3.441
CNT	3.712	227	1.678	1.720
SU	2.121	378	1.175	573
CSUT	424	227	—	—
Beste sindikatuak	5.303	1.135	1.678	2.294
Ez-afiliatuak	357.502	58.823	108.763	189.812
<b>Inkestako langileak guztira</b>	<b>530.261</b>	<b>75.692</b>	<b>167.843</b>	<b>286.726</b>

\* Hau izan da kalkulu-prozedura: Lurralde bakoitzeko langileen kopuru osoari afiliazio-tasan Sindikatu bakoitzak duen portzentaia aplikatu zaio. Prozedura bera erabili dugu K.A. osorako ere. Azken honetako emaitzak Lurralde bakoitzeko emaitzen ponderazio baten ondorio izanik, bakoitzaren populazio alokatua kontutan hartuz, K.A.ko afiliatuen kalkulua ez dator zeharo bat Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko afiliatuen baturarekin.

Aurreko ohar batean esan bezala, inkestak hartzen duen alokatu-populazio okupatuaren gain egindako afiliatu-kalkulua maximotzat hartu behar da, erreferentzia bezala erabilitako populazio osoa 1979.aren azkenetako zentsu batekoa bait da (I.N.S., 1979-XII-31), eta ezaguna da data harez gero urritu egin dela populazio okupatua, krisi ekonomikoaren ondorioz.

Inkestari esker, ezaguna dugu, 1980an botua beren sindikatuari eman zioten LAB eta ELAko afiliatuen ehunekoa txikiagoa dela, botua beren sindikatuei eman zieten UGT eta CC.OO.eko afiliatuen bano: horrek esplikatzen du botu-emaile baino afiliatu gehiago (edo alde eskasa) edukitzea lehen biek. LABeko afiliatuen erdiek ez zioten LABi eman botua 1980ko hauteskundeetan, dela giterik izan ez zuelako (enpresan hauteskunderik ez egiteagatik,

adinik ezagatik), dela botua eman ahal izanik eman ez zuelako (% 11), dela beste kandidatei eman zielako (% 18), batez ere datu ofizialetan «ez-sindikatuak» agertzen direnei (% 11) edo koalizioei (% 4,5). ELAren kasuan, gaur egun dituen afiliatuen % 66k bakarrik eman zion bere botua ELAri, % 13k ez bait zuen botu ematerik izan eta % 17,5ek beste kandidatei eman bait zien, nagusiki independenteei (% 10,5ek)<sup>5</sup>.

### 1.3. Entzuleria eta afiliazio sindikalak Nafarroan

Nafarroako espektro sindikala asko hurbildu zaio Hego Euskadiko beste lurraldeetakoari 1982ko azken hauteskundeen ondoren. Hauteskunde hauetan azpimarratzekoak dira, ordezkari aukeratuak gutxitzearen ondoan, «Ez-sindikatuak» eta «Besteak»

*Sindikatuak eta kandidatek Nafarroan lortutako ordezkariak.  
1980 eta 1982ko hauteskundeak*

	1980 hauteskundeak		1982ko hauteskundeak	
	Ordezkariek	%	Ordezkariek	%
ELA-STV	193	8,50	255	15,74
UGT	346	15,23	421	25,99
CC.OO.	207	9,11	242	14,94
LAB	87	3,83	75	4,63
USO	263	11,58	218	13,46
ELA (a)	—	—	—	—
Koalizioak	40	1,73	11	0,68
Besteak	250 (1)	11,02	40 (1)	2,47
Ez-sindikatuak	886	39,00	358	22,10
<b>Guztira</b>	<b>2.272</b>	<b>100,00</b>	<b>1.620</b>	<b>100,00</b>

(1) Beste sindikatu minoritarioak barne.

*Iturria:* IMAC, 1981eko apirilaren 14eko B.O.E. eta 1983ko martxoaren 16ko B.O.E., ELAren datuez osatua: *Lantzen*, 15. zenb.

sailen urritzea (azkenekoan sindikatu minoritario zenbait dago) eta ELAren gorakada gogorra, lurralde horretako bigarren sindikatu bilakatu delarik entzuleriaz, UGTren ondotik. LABek beste Lurraldeetako proportzio berdintsuz parte hartzen du langile-botuan. Nafarroako panorama sindikalaren berezitasuna, beste lurraldeetan berezia denetik urruntzen duena, USOren presentzia da, ordezkari aukeratuen % 10etik gora dituen sindikatu maioritario bezala.

Nafarroako afiliazio-tasa sindikala da Hego Euskadiko Lurraldeetakoetan baxuena (% 18,3). Bai afiliazio-tasaz eta bai sindikatuen entzuleriaren araberrako ezarpen-egituraz, Arabarekin luke antzik handiena Lurraldeen arteko konparazioan.

Nafarroan ere, industri langileak proportzio handiagoan (% 21,4) daude sindikatuak zerbitzuetakoak baino (% 12,6), eta Euskadin jaiok (% 16,9) etorkinak baino txikiagoan (% 23,3).

*Sindikatu etako afiliazioa Nafarroan (Galdera: «Zein sindikaturi ordaintzen diozu zeure kuota?»). 1982ko Ekaina-Uztaileko inkestea.*

	Afiliatze-tasako partea	Afiliatu guztien %
CG.OO.	4,7	25,8
CNT	0,2	0,8
CSUT	—	—
ELA-STV	2,0	10,9
ELA (a)	—	—
LAB	2,3	12,5
SU	0,8	4,2
UGT	4,7	25,8
USO	0,6	3,3
Beste sindikatuak	3,0	16,7
Ez-sindikatuak	81,7	—
<b>Guztira</b>	<b>N. 655=100</b>	<b>100</b>

Aurreko laukiak sindikazioaren banaketa eskaintzen du sindikatuen artean.

Emaitzak aski urrun daude hauteskundeetako entzulerian lortuetatik, batez ere USO, LAB eta CC.OO. sindikatuetan. Nolanahi ere, gogora dezagun bi arlo desberdin direla. Beste ohar bat ere egin behar da: sindikazioa hain urria izanik, gutxi dira afiliatu deklaritzen diren inkestatuak eta, sindikatu askoren artean banatzen bait dira, errore-maila altukoa gertatzen da banaketa hau. Horregatik, indikatibo soiltzat hartu behar dira afiliazioaren banaketa-zifra hauek sindikatuen artean. Horregatik ere, ez luke oinarririk sindikatuetakoa afiliatuen kopurua kalkulatzeko.

## **2. ELA, UGT, CC.OO. eta LAB Sindikatuen profila K.A.n**

Sarreran adierazi dugun bezala, hauteskunde sindikaletako entzuleriaren datuekin, eta afiliazioa ezagutuz, sindikatuen profila molda dezakegu, sindikatu bakoitzaren ezarpen-oinarriak kontutan izanik, sindikatu bat karakterizatzeko ezinbesteko alderdia hau. Ezarpenaren ezagupen koantitatiboa osatu egingo dugu, bestalde, afiliatuen eta botuemaileen berezitasun batzu (adina, jatorria eta ikasketa-maila) eta ekintza sindikalari nahiz sindikatu/alderdi politikoa erlazioari buruzko haien eritziak ezagutzeko inkestak eskaintzen duen posibilitateari esker. Definizioa osatzeko, egoki eritzi diogu sindikatu bakoitzaren historia, ideologia eta organizazioaz ohar labur bat eginez hasteari. Sindikaturik inportanteentara mugatuko dugu geure azterketa eta, emandako arrazoiengatik, erabiliko ditugun ezarpen-datuak K.A.ko Lurraldei dagozkie.

### **2.1. ELA-STV: Eusko Langilleen Alkartasuna - Solidaridad de Trabajadores Vascos**

ELA-STV sindikatu 1911n sortu zen, UGT baino hogeit eta gehiago urte beranduago, «Solidaridad de Obreros Vascos - Eusko Langilleen Alkartasuna» izenarekin, garai hartako abertzale batzuren kezka sozial-kristauari lotua. Ignacio Olabarrik dioenez<sup>6</sup>, 1930ean Bizkaiko bigarren sindikatu zen, industrializazioaren ondoriozko aldaketa soziala bizitua zuen Lurraldean.

Bigarren kongresuan (Gasteiz, 1933) bere izena aldatu zuen, eta gaur egun ezagutzen dugun bezala deitu zioten. Erabat birmoldatu zen, sindikatu moderno eta eraginkorra bilakatuz, Olabarrik dioenez.

Garai honetan, «langile-batasuna eta euskal elkartasuna» lemak eta euskaltasun-, katolizismo- eta klaseen arteko harmoni printzipioek definitzen zuten sindikatua. Baina, azken aldera bereziki, organizazioaren barruan indar hartzen dute korronte erradikalagoak. ELA-STV beti saiatu zen PNVrekiko independentzia zaintzen, nahiz eta honekin ados egin Euskadiren autonomiaren defentsan.

Ignacio Olabarrik eta Polikarpo Larrañagak<sup>7</sup> datu asko ematen dute sindikatuaren garai honetako ezarpenaz. 1936ko uztailean, afiliatuak 52.100 ziren, eta 10.700 nekazari baino gehiago. Afiliatuen ia erdia bizkaitarrak ziren, eta gehienak Bilbokoak. Papergile, ferrobiario, meatzari eta tipografoen artean zuen ahultasuna —dio Olabarrik— eta maila txikiago batean, konstrukzioko ofizioetan; baina oso indartsua zen siderurgiako, egur-industriako eta kaietako langileen artean. 1920az gero independenteki ari izandako «Solidaridad de Empleados Vascos» 1933an ELAn sartu zen Federazio bezala, 13 elkarte lokaletan afiliaturiko 2.000 enplegaturekin. Garai berean, UGTren afiliazioaren oinarria metalurgi langileengan zegoen.

Frankismoarekin, beste sindikatuak bezala, klandestinitatera pasa zen ELA-STV, eta Frantzian berreraiki zuen bere aparatua. 1961etik aurrera, Euskadiko Sindikatu-Elkartasunean parte hartu zuen, UGT eta CNTekin, eta barnealdean antolatu zen<sup>8</sup>.

1964ean barnealdeko antolamenduaren zati handi bat aldendu egin zen erbesteko aparatutik. Eten honek garrantzi handia izango zuen sindikatuaren orientazio berrian. Orduetik dator sindikatuaren definizio sozialista, europar sindikalismoaren korronte inportanteenaren bide beretik. Bestalde, bat dator Europako sindikatu katolikoen posizio berriekin. Gaur egungo burukiderik gehienak garai honetan hezi ziren, enpresa eta zonetan ihardunez, eta batzutan enpresetako ordezkariak-erakundeez baliatuz.

Frankismoaren azken arnasekin, ELAn elkarte-prozesu bat ematen da, tradizioa eta barnealdeko berrikuntza lotuz. Talde txiki eta mugatu bat bakarrik gelditu zen kanpoan, gero ELA (a) eratu zuena. Hirugarren Kongresuan, —Eibar-Euba, 1976— burutu zuen batasuna eta berrikuntza, bere ideologi, strategi eta

antolaketa-oinarriak finkatuz. ELA-STV, 1977ko Apirilean legeztatu zen, beste sindikatuekin batera.

Gaur egungo ELA ezaugarri hauekin karakteriza liteke: Sindikatu abertzalea da, Euskal Herrian bakarrik dagoenez, eta Euskal Herriaren nortasuna garatzeko marko edo bide bat eskatzen duenez. Bide honetan, Gernikako Estatutua hasieratik apoiatu du, eta Euskadirentzat lan-harremanen marko autonomo baten alde bozkatzen da; sozialista eta klase-sindikatu aitortzen du bere burua, argiro obrerista; sindikatuen autonomia defendatzen du alderdi politikoekiko, kargu sindikalen eta kargu politikoen arteko bateraezintasuna bere estatutuetan ezarriz eta praktikaturik; ekintza sindikala jotzen du euskal langileek beren egoera hobetzeko eta gizartea haien mesedetan aldatzeko metodotzat; ugazabekiko negoziaketan oinarritzen du bere ihardunbide nagusia. Helburuok lortzeko, organizazio serio eta ekile bat antolatu du, «erresistentziakaxa» eta guzti; afiliatuak ordaintzen duten kuota beste sindikatuena baino ondotoz handiagoa da (gaur egun 595 pezetakoa). Enpresako ordezkariak dagokionez, sail sindikalaren protagonismoaren alde ageri da. Pakto sozial eta negoziaketa kolektiboen Estatu mailako zentralizazioaren aurka egonik, UGT eta CC.-OO.ek zinatutuzten akordio interkonfederalen kontra dago. CMT, CIOSL eta Europako Sindikatuen Federaziokoa da.

### 2.1.1. Sindikatuaren ezarpena

ELA-STV da K.A.an ezarpen handiena duen sindikatuak. Langile gehien afiliatzen duena eta 1980 eta 1982ko hauteskundeetan entzuleriarik handiena lortu duena.

Kuota ordaintzen duten afiliatuak 60.000 bat dira 1982an, hots: K.A.ko alokatuen % 11,8, funtzionari publikoak eta kooperatibetako langileak kanpoan utzita. K.A.ko afiliatu guztien % 36,11 ELArenak dira.

1980ko hauteskundeetan ordezkari aukeratuen % 25,62 lortu zuen, 62.256 inguru boturekin. 1982koetan, ordezkarien % 30,24 eta 66.355 bat botu.

Ezarpenik handiena Gipuzkoan du: langile alokatuen % 15,7 afiliatzen du (afiliatuen % 44,6 eta 25.000 bat karnet) eta azken hauteskundeetan ordezkarien % 38,71 lortu du, 27.790 boturekin. Lurralde honetan hegemonikoa da, bigarrena halako bi bait da praktikan.



Bizkaian ere lehen sindikatua da ezarpenez, nahiz eta hemen UGTrekin banatu nagusitasuna, hau baino gutxiz gehiago izanik. Lurralde honetako langileriaren % 11 afiliatzen du (afiliatu guztien % 32,8), 30.000 bat kotizatzaileekin. 1982ko hauteskundeetan ordezkarien % 27,16 lortu zuen, 32.125 boturekin.

Ezarpenari dagokionez, ahultasun erlatiboa Araban dago, hemen gehiago baita UGT bai 1980an eta bai 1982an, azken urte honetako hauteskundeetan bere entzuleria gehitu duen arren. 1980an ordezkarien % 16,2 lortu zuen, eta % 20,22 1982an, 6.440 boturekin. Afiliatuen kopurua, ordea, UGTrenaren antzekoa da (langileen % 5,2 eta afiliazioaren % 24,5 eta 3.500etik 4.000ra kotizatzaile).

Nafarroan bigarren sindikatua da ezarpenez, 1982ko hauteskondeez gero, UGTren atzetik: ordezkari aukeratuen % 8,5 lortu zuen 1980an, IMACen datu ofizialen arabera, eta % 15,74 1982ko azken hauteskundeetan. Lurralde honetan, sindikaturen bati kotizatzen dioten langile gutxien % 11 bat afiliatzen du ELA-STVk.

Datu hauen arabera, argi dago Bizkaia eta Gipuzkoa direla sindikatuaren oinarria: nahiz eta Gipuzkoan ezarriagoa egon, Bizkaian afiliatu eta botuemaile gehiago ditu, enplegua ere ugariagoa denez hemen.

*ELAren entzuleriaren banaketa hiru sektoreetan, K.A.an.  
Botuemaileen banaketarekiko konparazioa.  
1982ko hauteskundeak.*

	ELAren botuak	Botuemaileak	ELA/Botuemaileak desbiderapena
Nekazaritza	3,67	1,27	+2,40
Industria	66,97	72,01	-5,04
Zerbitzuak	29,36	26,72	+2,64

(N. 66.355=100)      (N. 250.048=100)

Nekazaritzan eta arrantzan nagusitasun osoa lortu du sindikatu abertzale honek (aukeratuen % 78,6). Beste bi sektoreetan, zerbitzu-enpreetan ditu emaitza onenak, horietan askoz nagusituz beste sindikatuei hiru Lurraldeetan. Industri sektorean ere lehen da Gipuzkoan eta K.A. osoan. 1982ko hauteskundeetan, lehen sektorean lortutako 2.434 botuak sindikatuaren botu guztien % 4

dira, enpresa industrialetan kalkulaturiko 44.438 botuak % 67, eta zerbitzuen sektoreko 19.483 botuak % 29. Horis: ordezkaritza industrialia da inportanteena sindikatu honetan. Baina, beste sindikatuetan industrialtasun hau indartsuagoa denez, nekazaritza eta, batez ere, zerbitzuetara emanagoa ageri da ELA. Hiru sektoreetako botuen banaketa botuemaileenarekin erkatzen badugu, sektore hauetarako desbiderapentxo bat sumatuko dugu.

Desbiderapen hau, ordea, desagertu egiten da ia, afiliatuen hiru sektoreetako banaketa hartu eta inkestako laginarekin alderatuz.

*ELAren afiliatuen banaketa K.A.ko hiru sektoreetan. Laginaren banaketarekiko alderaketa. 1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	ELAren afiliatuak	Inkestako lagina	ELA/Lagina desbiderapena
Nekazaritza	3,5	2,3	+1,2
Industria	72,3	73,7	-1,4
Zerbitzuak	24,2	24,0	+0,2

(N. 143)

(N. 395)

Euskal Herriko enpresa erdi-mailako eta handi gehienetan presentzia koalifikatua du sindikatu honek, gutxienez ordezkaritza aukeratu batekin (500 langile baino gehiagoko % 86 enpresa handitan, eta 251tik 500era langileko % 63 enpresa erdi-mailakotan) eta ordezkaritza aukeratu dituzten enpresa txikiagoen portzentaia handi batetan (50etik 250era langileko enpresen % 50etan, eta enpresa txikiagoen % 43tan). Gipuzkoa eta Bizkaiko enpresa txiki eta erdi-mailakoetan duen sarrera dela medio, K.A.ko lehen sindikatua da ELA, enpresa handietan dituen ordezkaritza eta botuak beste bi sindikatu handien antzekoak direnez. Haren presentziaren intentsitatea bermatzen du aukeratutako komiteen % 15etan kideen gehiengo absolutua lortu izanak (Gipuzkoan % 24etan).

Sindikatu honen lurralde-banaketa, hauteskundeak egin diren herri ia guztietara heltzen da: presentzia horren intentsitatea handiagoa da langileria autoktonoa nagusi den herri eta industrializazio berriko zonetan.

ELAk harrera hobea izan du hauteskundeetan administratibo eta teknikoaren artean, langileen artean baino. Hala ere, bere botuen % 60 langileena du azken hauteskundeetan, Gipuzkoan beste

sindikatuena aurretik dago langileen artean, eta K.A. osoko langileen % 20 boturekin eta % 22 ordezkari aukeraturekin, CC.OO. eta UGTren aski parean dago bigarren sektorean ere.

Sindikatuaren botuen barne-banaketa eta komitea aukeratu duten enpresetako sektoreen botu-banaketa erkatuz, lehen sektore-ranzko desbiderapen bat ikusiko dugu, aztertu ditugun beste sindikatueta gertatzen denaren alderantziz.

*ELAren botuen banaketa K.A.ko kolegioetan. Botuemaileen banaketarekiko konparazioa. 1982ko portzentaiak eta hauteskundeak.*

	ELA-STV	Botuemaileak kolegioetan	Desbiderapena
Administratibo eta tekniko-koen kolegioa	40,18	29,80	+10,38
Langileen kolegioa	59,82	70,20	-10,38
	(N. 45.952)	(N. 192.582)	

Sindikatuako afiliatuen barne-banaketan, berriz, desbiderapena eskulangileen aldekoa da (+ % 2,84), konparazioa inkestako laginarekin egiten badugu. Dударik gabe, administratibo eta tekniko-koen sindikatze-tasa txikiagoari zor zaio hau.

Beste sindikatuarekin konparatzen badugu, ELAk afiliatzen du langileen portzentaiarik handiena, bai administratibo-teknikoaren artean (% 11; UGTk % 4 eta CC.OO.ek % 3), bai langileen artean (% 12; UGTk % 9, CC.OO.ek % 7). Administratibo eta tekniko-enganako ELAren desbiderapenaren irudia, esparru estataleko sindikatuarekin konparatzearen ondorioa da, nabarmena bait da sindikatu hauen langile-osagarria.

### 2.1.2. ELA sindikatuaren afiliatu eta botuemaileen profila

ELAren afiliatuen batezbesteko adina 37,3koa da, eta botuemaileena 38,3koa<sup>9</sup>; hurrenez-hurren 1,6 eta 2,6 zaharragoa inkestako langileena baino.

ELAren afiliatu eta botuemaileen ikasketa-maila, UGT eta CC.OO.ekoena baino altuagoa da, hura apoiatzen duten langileen koalifikazioa bezala.

Sindikatu honen afiliatu eta botuemaile gehienak, Euskadin jaiok dira (afiliatuen % 86 eta botuemaileen % 84). Afiliatuen % 13 eta botuemaileen % 15 bakarrik dira etorkinak. Datu honek, eta oinarriaren joera politikoak definitzen dute sindikatu hau UGT eta CC.OO.en aurrez-aurre. Beste sindikatu abertzaleagandik, LABetik, sindikalismoaren kontzepzioak, joera politikoak eta, neurriren batean, afiliatu eta botuemaileen adinak bereizten dute.

ELAren afiliatuen % 50ek eta botuemaileen % 55ek azaldu du PNVrekiko gogaidetasun politikoa, eta afiliatuen % 27k eta botuemaileen % 19k EERekikoa. Guztira, afiliatuen % 84 eta botuemaileen % 82 agertzen da alderdi abertzaleen gogaide. Afiliatu eta botuemaileen % 9k, aldiz, PSOErenganako sinpatia agertu du. ELAren abertzale-ezaugarria bermatzen du inkestak ere, afiliatuen % 72k pentsatzen bait du, Euskadin euskal esparru nazionaleko sindikatuek bakarrik egon behar luketela<sup>10</sup>.

*ELAren afiliatu eta botuemaileen gogaidetasun politikoa. K.A. eta hiru lurraldeak. 1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	K.A.		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Afiliat.	Botue.	Afiliat.	Botue.	Afiliat.	Botue.	Afiliat.	Botue.
PNV	50	55	56	52	36	44	61	64
HB	7	8	6	—	9	10	6	8
EE	27	19	9	10	36	31	21	10
PSOE	9	9	14	24	7	4	10	12
UCD	—	—	3	—	—	—	—	—
AP	—	—	—	—	1	—	—	—
PCE	—	—	—	—	1	—	—	—
LKI	1	1	3	2	—	—	1	1
EMK	1	1	—	—	2	2	—	—
Ez du erantzuten	5	7	9	12	8	9	1	5

(N. 143) (N. 137) (N. 34) (N. 42) (N. 108) (N. 102) (N. 72) (N. 67)

Gogaidetasun politikoa, hala ere, ez da berdina K.A.ko hiru lurraldeetan. Gipuzkoan afiliatuen % 36k bakarrik sinpatizatzen du PNVrekin, eta ezker abertzalearekin, berriz, % 45ek. Bizkaian ematen da sindikatuaren afiliatu eta botuemaileen PNVrekiko gogaidetasunik handiena (% 61 eta % 64). Araban ere % 50 baino gehiagok azaltzen du gogaidetasun bera. Lurralde honetan aipatzen da, botu politikoa PSOERI ematen dioten sindikatu honen botuemaileen kopurua. Bizkaian dira tradizionalenak sindikatuen kokagunak eta Gipuzkoa da berrikuntza bultzatzen duen Lurraldea.

ELA-STV berriak, 1976an Eibarren egindako III. Batzarrean, 60 urteetan klandestinitatean emandako aldaketak onartu zituen. «Sistema kapitalistaren mekanismoekiko desakordio osoan, eta euskal langileen kontzientzia kolektiboaren espresio bezala, produkzio-, kontsumo- eta kultur bideak langileen eskutan eta hauen zerbitzurako daudekizunak gizarte sozialista batean gauzatuko den gizon eta herri askatu eta erantzuleen gizarte baten alde lan egingo du», irakur dezakegu printzipio-deklarazioan.

Ekintza sindikalaren autonomia eta, beraz, alderdi politikoe-kiko independentzia, printzipio irmeki asumitua du sindikatuak bere gaurko definizioan. ELAren estatutuek sindikatuaren independentzia agintzen dute eta kargu politiko eta sindikalak batera edukitzea debekatzen. Gai honi buruz ere badihardu printzipio-deklarazio aipatuak: «Deklarazio honen printzipio eta helburuen garapenak independentzia osoa eskatzen du talde politiko eta enpresariakiko, Estatuarekiko eta sindikatuaz kanpoko edozein indarrekiko. Kargu politiko eta sindikalen bateraezintasuna, independentzia honen garantiaren arau oinarrikoa da. ELA-STVk, independentzia osoz, erabakiko ditu bere helburu, programa eta ekintzak, eta bere borroka- eta negoziaketa-erak eta beste organizazioekiko erlazioak».

Afiliatu eta botuemaileen eritzia alderdi politikoe-kiko erlazioei buruz, K.A.ko langileen eritzia antzekoa da. Konkretuki, honela erantzun zioten inkestako galderari gai honetaz.

Eritzia ia-ia berdina da K.A.ko langileen artean eta baita ELA-rekin erlazioatuen artean ere, sindikatuak alderdi politikoe-tatik independente egon behar dutenaz. Hala eta guztiz ere, langileen portzentaia handi batek ez du ukatzen partiduekiko kolaborazio puntuala, arazo konkretuak konpontzeko. Dudarik gabe, hau ho-

rrela da, langile gehien-gehienek soldata eta lan-kondizio hobekak lortzeko funtzio instrumentala ematen dietelako sindikatuei.

«*Esaldi hauetatik aukera ezazu egokiena*»:

	Inkestako lan- gile guztiak	ELAren afiliatuak	ELAren botuemaileak
«Sindikatuek alderdi politikoetatik erabat independente izan behar dute»	55	54	57
«Sindikatuek independente izan behar dute, baina hel daitezke alderdi politikoekin akordio okasionaletara, gai konkretuez»	41	44	41
«Sindikatuek beren ideologia bereko alderdi politiko baten estrategiari menperatu behar diote beren estrategia»	3	2	2
Ez daki, ez du erantzuten	1	—	—
	(N. 1.211)	(N. 143)	(N. 137)

«*Hauta ezazu ELA-STVri buruzko zeure eritzia hobekien isladatzen duen esaldia*»:

	Langile guztiak	ELAren afi- liatuak	ELAren bo- tuemaileak	PNVren gogaideak
«ELA PNVren sindikatu da»	53	10	17	26
«ELA sindikatu independentea da, PNVrekin kontaktu batzu eduki arren»	24	51	48	46
«ELA sindikatu erabat independentea da»	7	34	31	14
Ez daki, ez du erantzuten	16	5	4	14
	(N. 1.211)	(N. 143)	(N. 137)	(N. 256)

K.A.ko langile gehienen (% 53) eritiziz, PNVren sindikatua da ELA-STV; nolana ere, gehiagok identifikatzen du UGT PSOE-rekin (% 72k) eta CC.OO. PC E-rekin (% 68,5ek). Tradizio historikoak eta alderdi eta sindikatu batzuren propagandak, estereotipoak oraindik irautea lortu du. Ez da hau ELAren afiliatu eta botuemaileen beren eritzia, ezta PNVrekiko gogaidetasun politikoa agertzen duten langilerik gehienena ere, sondaketatik ondoriozta daitekeenez. Zenbat eta handiagoa sindikatuarekiko konpromisoa, orduan eta altuagoa da sindikatua erabat independente ikusten dutenen proportzioa. Langile gehienek onartzen dute, hala ere, eta kasu guztietan, sindikatuak baduela kontakturik PNVrekin, independentea izan arren.

ELAren kasuan interes berezia zuen jakiteak langileak zergatik afiliatzen diren sindikatu horretan edo zergatik botua ematen dioten. Printzipioz bi arrazoi nabari zeudekeen: utilitariora bata, efikaziarena, eta bestea gogaidetasun politikoa, dela tradizioan, dela sindikatuaren bide berrian oinarritua, beti ere motibazio abertzalea suposatuz.

«ELAren afiliatu edo botuemaile baldin bazara, esaiguzu batez ere zergatik»:

	Lehen aukera		Bigarren aukera		Aukeren batura	
	Afil.	Botue.	Afil.	Botue.	Afil.	Botue.
«Langileak hobekien defendatzen dituen delako»	30	27	18	18	24	23
«Gure betiko sindikatua delako»	19	20	9	10	14	14
«Sindikatu abertzale eta sozialista delako batera»	~ 30	24	21	18	25	21
«Burukideak langile eta onestuak dituelako»	13	15	36	32	24	23
«Nire enpresan ondo jotzen duelako»	7	9	12	15	10	13
Ez daki, ez du erantzuten	1	5	4	7	3	6

(N.143) (N.137) (N.143) (N.137) (N.286) (N.274)

Hona botuemaile eta afiliatuek, aurkeztu zitzaizkien alternatibei emandako erantzunak. Lehen bi zutabeetan daude, portzen-

taiatan, lehen eta bigarren aukeren emaitzak, bi aukera eskaintzen bait zitzaizkien lehentasunaren arabera hobesteko: hirugarren zutabea aukera bion batura dator.

Inportantea izanik ere motibazio utilitariora, batez ere bigarren aukeran (afiliatuen % 50ek aukeratzen du 1, 4 eta 5 item-  
-etako arrazoi utilitariora lehen aukera eta % 66k bigarrean), hasieratik portzentaia esanahitsutan dago politiko deitu dugun motibazioa (afiliatuen % 49 eta botuemaileen % 44 lehen aukera), sindikatuaren apoioaren oinarri bezala. Afiliatuen % 30 eta botuemaileen % 24 sindikatuaren definizio sozialistarekin identifikatzen dira, eta bi taldeetatik % 20 batek euskal sindikatu tradizionala izateagatik apoiatzen du.

Sindikatuaren sostengatzaileek azaldutako joera politikoarekin aski ados dauden datu hauek, hiru langile-talderen elkar-bizitza agertzen dute ELAren ezarpenean. Sindikatu bere zerbitzuengatik estimatzen duen talde handiaren ondoan, argumentu abertzale-politikoak erakartzen ditu beste bi talde. Azken hauetan ugariena, sindikatuaren gaur egungo definizioarekin identifikatzen da, baina, honen ondoan jarraitasun historikoagatik hurbiltzen zaion langilerik ere badago. Hauen artean daude, seguru asko, sindikatuaren gaurko joeratik urrundurik, ELAri jarrera moderatuagoe-tara eragiten diotenak (interes bera enpresan eta grebarekiko oposizioa) UGT, adibidez, bereizten dutenak baino.

Izan ere, eta bukatzeko, ELAren afiliatuek, esan dugunez, es-timu handitan dauzkate sindikatuen funtzio instrumentala eta ja-rarrera moderatua ekintza sindikalean, honetan bat etorritz UGTre-kin. Afiliaturik gehien-gehienek pentsatzen dute sindikatuen funtzioa alokairu eta lan-egoera hobeak lortzea dela (% 84ek) eta negoziaketak porrot egitean bakarrik jo nahi dute grebara (% 77k). Baina % 55ek uste du oinarritzko aurkakotasuna dagoela enpresan enpresari eta langileen interesen artean. Moderazioa/erradikalis-moa *continuum*-ean, moderazioan dago, UGTrekin batean eta po-siziorik erradikalenean dagoen LABen aurrez-aurre. ELAk baditu ere afiliatu batzu (% 9 bat), seguruenik sindikatuari tradizioz atxe-kiak, jarrera «horia» agertzen dutenak.

## 2.2. UGT: Unión General de Trabajadores

UGT 1888an sortu zen Bartzelonan, hiri honetan Erakusketa Unibertsala ospatzen zelarik. 1899an Madrilera aldatu zuen bere



komite zentrala, PSOErekin oso lotua egon den sindikatu sozialista honek. Asko handitu zuen bere afiliazioa mende honen hasieratik, II. Errepublikakoan CNTren parean jartzeraino. Haren inplantazio-gune nagusiak Madril, Asturias eta Bizkaia izan ziren<sup>11</sup>.

Moderazioa, posibilismoa eta grebaren erabilera antolatua izan ziren haren ekintzen ezaugarriak sortu zenetik: II. Errepublikaren azken aldia bakarrik aldatu zen ezaugarri hauetatik. Iraultza Sovietarraren ondorioz III. Internazionala sortu zenean, UGTk ez zuen sartu nahi izan. Gero CIOSEn sartuko da, hau da, internazional sindikal sozialistan.

Frankismoa nagusitzean, sindikatuaren buruzagi biziak espetxean edo erbestean gertatu ziren eta haren ondasunak bahituak. Sindikatuaren zuzendaritza Toulousen jarri zen, eta ez zen barnealdera etorri 1972ra arte. Frankismoaren garaian oposizio-politika egin zuen, Aliantza Sindikalean parte hartuz CNTrekin Estatuan eta CNT eta ELArekin Euskal Herrian. Frankismoaren azken urteetan, PCE eta CC.OO.en infiltrazio-politikaren aurka jarri zen. Beharbada arrazoi horregatik eta beranduegi barneratzeagatik bere zuzendaritza, galdu egin zuen langileen artean zuen eraginaren parte bat. Trantsizio politikoan berreskuratu zuen protagonismoa, batez ere PSOEk hauteskundeetan lortutako arrakastaren ondoren. Madrilan egin zuen XXX. Kongresua 1976ko Apirilean, eta urte bereko Maiatzean legezatu zen. 1978 eta 1980ko hauteskunde sindikalean Estatuko bigarren sindikatua izatea lortu du, CC.OO.etik hurbil.

Sindikatu sozialista eta errebindikatibo, eta klase-borrokan oinarritua bezala definitzen du bere burua. PSOErekiko autonomia baieztatu arren, Bartzelonan 1978an egindako XXXI. Kongresuan baztertu egin zen kargu politiko eta sindikalen bateraezintasuna proposatzen zuen mozioa.

Franco hil ondoren, sindikatu honek sekzio sindikalaren protagonismoa defendatu du langileen enpresako ordezkaritza-formula bezala, CC.OO.ekin polemikan. Gerora, protagonista-papera izan du akordio interkonfederaletan, bai CEOErekin (AMI) eta bai erakunde honekin, beste sindikatuekin eta Gobernuarekin (ANE).

Gerra zibila arte, UGTren inplantazio-guneetako bat Euskal Herria izan da, eta batez ere Bizkaia, 1885ean Facundo Perezagua Bilbora etorri zenetik. Olabarrik dioenez, 1890 eta 1905 artean UGTk oposiziorik gabe gidatu zuen langileen ekintza Lurralde

honetan. Hegemonia hau ez zen erabatekoa izango hurrengo urteetan, Solidaridad de Obreros Vascos sortzean eta 1921eko zatiketa komunista gertatzean<sup>12</sup>.

UGTren inplantazioa batez ere meatzari, metalurgiko eta tipografoen artean eta elikadura-arloan egon zen: Nerbioi ibaiaren bi erriberetan eta meatze-arloan, kanpotik etorritako langileen artean bereziki. Enklabe hauen ondoan, Eibar ere UGT eta PSOEn eragin-gunea izan zen Errepublikakoan. Eta tradizio historikoari jarraituz, sindikatu sozialista hau maioritarioa da gaur Nerbioiren ezker aldean.

UGTren barne-antolaketa, eskualde-sindikatuetan oinarritua dago, industri federazio probintzietan eta batasun probintzietan; Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko batasun probintzialak hartzen dituen Euskadiko UGT dator ondoren eta, azkenik, erakunde estatala.

Sindikatuaren Estatutu Orokorretako 49 artikulua, erakundearen barruko akordioetan lehentasun-segida hau finkatzen du: 1. UGTren Kongresu Orokorren akordioak; 2. Komite Konfederalaren akordioak; 3. Industri Federazioen eta maila estatalako sindikatuaren Kongresuaren akordioak; 4. UGTren Nazionalitateetako eta Eskualdeetako Batasunen Kongresuaren akordioak; 5. Industri Federazioen eta nazionalitate eta eskualdeetako Sindikatuaren Kongresuaren akordioak; 6. Probintzietako edo/eta eskualdeetako Batasunen Kongresuak; 7. Industri Federazio Probintzialen Kongresu edo/eta Plenuak

### 2.2.1. Sindikatuaren ezarpena K.A.an

UGT, ezarpenez, K.A.ko bigarren sindikatu da, ELAren atzetik. Arabako lehen sindikatu da; Bizkaian indartsu agertzen zaigu, eta Gipuzkoan ahul, hemen hirugarren sindikatu bait da ELA eta CC.OO.en atzetik, eta ez bait du ordezkari aukeratuen % 17 lortu 1982an.

1982ko udan K.A.ko langileen % 7,6 afiliatzen zuen (afiliatuen % 23,2), 40.300 bat kotizatzaileekin. 1982ko hauteskunde sindikalean 3.125 ordezkari lortu zituen (hautatu guztien % 21,54), 55.950 boturekin.

Afiliatu eta botuemaile gehienak, bizkaitarrak dira, ELAren batera nagusi izanik Lurralde honetan langile-munduan.

Lurralde honetan, langileen % 9,5 afiliatzen du, afiliatu guztien % 28,1 eta 27.000 bat kotizatzaileekin. 1982an aukeratutako ordezkarien % 23,09 lortu zuen, 1.744 postu eta 33.237 boturekin. Lehen sindikatua da Araban: ia 5.000 afiliatu ditu (guztien % 25,5), langileen % 5,4 bakarrik badira ere; eta ordezkari aukeratuaren % 27,89 (538 postu) eta 8.795 botu. Gipuzkoan, berriz, hirugarrena da, ELA eta CC.OO.en atzetik. Afiliatze-tasan % 5,4 batekin hartzen du parte, 9.000 afiliaturekin, afiliazio osoaren % 15,3rekin, alegia; 1982ko hauteskundeetan ordezkarien % 16,77 lortu zuen, 843 postu eta 13.918 botu.

Praktikan ez du errepresentaziorik Nekazaritzako eta Arrantzako enpresetan, Gipuzkoa eta Bizkaian. Ezarpen handiagoa du industrian zerbitzuetan baino. Enpresa industrialetan lortutako 42.834 botuak sindikatu honen botu guztien % 76,56 dira. Zerbitzuetan 13.049 botu lortu zituen, sindikatuak jasotako botu guztien % 23,32; eta gelditzen den % 0,12 arrantzaleen artean lortutako 67 botuei dagokie.

Sindikatu honen joera industrialara garbiago azaltzen da, haren botuen sektorekako banaketa begiratzen badugu, eta botuemaileen banaketarekin konparatzen.

*UGTren entzuleriaren banaketa, K.A.ko sektoreetan.  
Botuemaileen banaketarekiko konparazioa.  
1982ko hauteskundeak.*

	UGTren botuak	Botuemaileak	UGT/Botuemaileak desbiderapena
Nekazaritza	0,12	1,27	-1,15
Industria	76,56	72,01	+4,55
Zerbitzuak	23,32	26,72	-3,40

(N. 55.950)

(N. 250.048)

Afiliatuen sektorekako banaketa kontutan hartu eta inkestako lagineko langileen banaketarekin konparatzean, afiliazio industriaren aldeko desbiderapena, kasu honetan, % 13,3 puntutakoa da.

*UGTren afiliatuen banaketa K.A.ko sektoreetan. Lagineko banaketarekiko konparazioa. 1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	UGTren afiliatuak	Inkestako lagina	UGT/Lagina des- biderapena
Nekazaritza	1,1	2,3	- 1,2
Industria	87	73,7	+13,3
Zerbitzuak	11,9	24	-12,1
	(N. 92)	(N. 395)	

Sindikatu sozialistak enpresa industrial handietan lortzen ditu bere emaitzarik onenak, batez ere Bizkaikoetan. Beste sindikatuek baino botu gehiago du hauetan. Sindikatu honen sarrera 50 langile baino gutxiagoko enpresetan ELArena baino txikiagoa da K.A.a-ren mailan, baina Araban honelako enpresetako % 35,85 biltzen du, ordezkari batekin behintzat, beste sindikatuen gainerik. Hauteskundeak egin dituzten K.A.ko % 30,21 enpresatan presente dago eta 1982an aukeraturiko komiteen % 9,47tan gehiengo absolutua lortu du (Arabakoan % 15,34etan).

1982an hauteskundeak egin dituzten enpresak dauzkaten K.A.ko 171 udalerritatik 107tan dago presente UGT. Orokorki, kontzentrazio industrial handiko eta etorkin ugari herrietan eskuratzen ditu sindikatu sozialistak emaitzarik onenak.

*UGTren botuen banaketa, K.A.ko kolegioetan. Botuemaileen banaketarekiko konparazioa. 1982ko hauteskundeak.*

	UGTren botuak	Kolegioetako botuemaileak	UGT/botuemaileak desbiderapena
Administratibo eta teknikoen kolegioa	19,16	29,80	- 10,64
Langileen kolegioa	80,84	70,20	+10,64

K.A.ko UGT hobekien karakterizatzen duen ezaugarria, hala ere, buzo-langileenganako joera argia da. Are nabarmenagoa da hau CC.OO.etan, baina azpimarratzekoa da UGTgan, ez bait du hori Estatuaren enparatuan bere bereizgarria.

K.A.ko 50 langile baino gehiagoko enpresetan, tekniko eta administratiboek emandako botuen % 14,05 lortu du, eta langile-botuen % 25,16. 1982ko hauteskundeetako UGTren botuen barne-banaketan, % 10 baino gehiago desbideratzen da langile-botua.

Afiliatuen % 81,5 langileak dira eta % 18,5 administratibo edo teknikoak, % 5,8 puntutako desbiderapen batekin lehen taldearen alde, inkestako langile-kolektiboarekin konparatuz.

## 2.2.2. UGT Sindikatuaren afiliatu eta botuemaileen profila

Industri gune tradizionalako langileengan aurkitu du sindikatu sozialistak bere afiliazioaren oinarria. Langile hauek, gehien batean, Euskaditik kanpo jaiok eta PSOeren gogaideak dira. Ugazabaren aurkako kontzientzia argia izan arren, ikuspegi erreformistak karakterizatzen ditu: negoziazioaren bidez, eta presio-bideak neurritz erabiliz, langileentzat hobekuntzak lortzeko funtzio instrumentala ematen diote sindikatuari.

UGTren afiliatuen batezbesteko adina 41,8 urtetakoa da, eta 42,3takoa botuemaileena, K.A.ko langileen batezbesteko adina 35,7koa denean. Afiliatuen % 74ek 33 urte baino gehiago ditu, eta % 38k 45 urte baino gehiago. K.A.ko sindikatueta UGTk du afiliatu eta botuemaileen adinik altuena.

Afiliatuen % 59 eta botuemaileen % 57 Euskaditik kanpo jaiok dira. Sindikaturen batean afiliaturiko langile inmigratuen % 46,6 UGTkoa da eta langile inmigratuen % 50ek ematen dio botua.

Afiliatu eta botuemaileen artean UGTkoak dira ikasketa-mailarik apalenekoak: afiliatuen % 61ek eta botuemaileen % 60k lehen-mailako ikasketak bakarrik ditu, nahiz eta lehen taldekoeen % 21ek eta bigarren taldekoeen % 19k L.H.ko ikasketak egin dituztela esan. Datuok baloratzeko, kontutan eduki behar da inkestako lagineko langileen % 61ek lehen-mailakoak baino ikasketa gehiago egin dituela, eta % 25ek L.H.ko ikasketak.

K.A.an UGT apoiatzen dutenek funtzio instrumentala ematen diote sindikatuari: afiliatuen % 84 eta botuemaileen % 85 ados edo

oso ados daude sindikatuaren funtzioa alokairua eta lan-egoera hobetzea dela dioen proposamenarekin, «alde batera utziz beste arazo politikoak», nahiz eta afiliatuen % 16 eta botuemaileen % 15 ideia honen aurka egon. Afiliatuen % 86k pentsatzen du, greba azken errekurso bezala bakarrik erabili behar dela, «negoziazio-bide guztiak agortu ondoren»; % 8 erradikalago bat, aldiz, greba gogorki erabiltzearen aldekoa da. Hala eta guztiz ere, afiliatuen % 66k oinarritzko aurkakotasuna dagoela pentsatzen du nagusien eta langileen interesen artean (% 31k kontrakoa pentsatzen du, eta % 3k ez du erantzuten).

Afiliatuen % 80k eta botuemaileen % 77k PSOEkiko gogaidetasun politikoa aitortzen du. HB/LAB erlazioarekin batera, PSOE/UGT erlazioa da K.A.ko estuena.

*UGTren afiliatu eta botuemaileen gogaidetasun politikoa.  
1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta (Portzentaia).*

	UGTren afiliatuak	UGTren botuemaileak
PSOE	80	77
PNV	4	6
EE	5	4
HB	2	2
UCD	1	2
PCE	—	—
AP	—	—
EMK	—	—
LKI	—	—
Ez dute erantzuten	8	10

(N. 92)

(N. 120)

Baina, erlazio hau nabartuz, sindikatuek partidu politikoetatik independente izan behar dutela pentsatzen du afiliatuen % 48k eta botuemaileen % 52k; lehenengoen % 46k eta bigarrenen % 42k independente izan behar dutela pentsatzen du, «nahiz eta kontaktu okasionalak eduki ahal izan alderdi politikoekin gai konkretuez».

Bi taldeetako % 6 bakarrik da sindikatuak kideko alderdi baten estrategiaren menpe egotearen aldeko.

Sindikatu/Alderdia erlazioei buruzko kontzepzio ideal hau gorabehera, ez du ia inork uste UGT PSOEGandik erabat independentea denik, nahiz eta afiliatuen % 42k uste izan independentea dela, alderdiarekin kontakturen batzu izan arren. Hala ere, afiliatu eta botuemaileen erdia baino gehiagok pentsatzen du UGT PSOEn sindikatu dela. Hala pentsatzen du K.A.ko langileen % 71k eta PSOEn gogaideen % 60k.

*K.A.ko langileen eritzia UGT/PSOE erlazioari buruz.  
1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	UGTren afiliat.	UGTren botuem.	PSOEn gogaideak	Langile guztiak
«UGT PSOEn sindikatu da»	51	54	60	71
«UGT sindikatu independentea da, PSOekin kontaktu batzu eduki arren»	42	33	28	14
«UGT sindikatu erabat independentea da»	1	2	1	1
Ez daki, ez du erantzuten	6	10	11	14
	(N. 92)	(N. 120)	(N. 235)	(N. 1.211)

Azkenik, Euskadin sindikatuek eduki beharko luketen autonomiari buruzko eritzia galdetu genien langileei. UGTren afiliatuek aho batez onartzen dute Gernikako Estatutuaren autonomia politikoa (% 3k bakarrik daukate onartezin edo gehiegizkotzat, eta % 17k eskasegitzat). Autonomiaren kontua sindikatuetera hurbilduz, UGTren afiliatuen % 77k errefusatu egiten du «Euskadin Euskadiko sindikatuek bakarrik egon beharko lukete»la, nahiz eta % 19k onartu. Baina, gehienak independentziaren aurka egon arren, % 67k «Estatuan diharduten sindikatuek hemen daukatena baino autonomia handiagoa izan beharko lukete»la pentsatzen du; UGTko afiliatuen eritzi abstraktu honek onarpen urriagoa du; galdera beren sindikatuari zuzenean aplikatzean. Hala ere afiliatuen

% 39 kritikoa da: % 33rentzat sindikatua lotuegia dago Madrileko erabakiei, eta % 6rentzat ez du inolako autonomiarik. Eritzi hau berau du inkestako langileen % 59k.

*UGTren Euskal Herriko jokaerari buruzko eritzia. «Zure ustez UGTk honela jokutzen du Euskadin»:*

	UGTren afiliatuak	Langile guztiak
«...Madrileko gidariei buruz autonomia gehiegirekin»	9	4
«...autonomia nahikoarekin»	46	12
«...erabaki zentraleri lotuegi»	33	41
«...ez du inolako autonomiarik»	6	18
Ez daki, ez du erantzuten	6	25
	(N. 92)	(N. 1.211)

### 2.3. CC.OO.: Confederación Sindical de Comisiones Obreras

CC.OO. diktadura frankistaren azken garaiko borroka klan-destinoan sortutako sindikatua da<sup>13</sup>.

Lehen Langile-Komisoak (CC.OO.) 1962-1963ko grebetan sortu ziren, Asturiasko meatzetatik Euskadi, Katalunia eta Madrilerazabalduz. Mugimenduaren enbrioia, enpresetako asanbladek hautatutako langile-batzordeak izan ziren. Nahiz eta langile-batasunaren amoretan sortu, kide eta gidarien bereizkeriarik gabe, PCEren estrategiari erantzun zioten nabariki, honek bere buruzagiak ezarri bait zituen mugimenduaren zuzendaritzan.

Hirurogeigarren urteetako bigarren bosturtekoan, hedakunde ekonomikoaren eta frankismoaren liberalizazioaren garaian, komisoiek hazkunde nabaria izan zuten, batez ere infiltrazio-estrategiari esker enpresetako langileen ordezkari-tza-organoetan, 1966ko hauteskundeetan (bitarteko sindikal eta enpresako epaimahai-bokaletan). Geroago, errepresioaren ondorioak jasango zituzten, hamarkadaren eta diktaduraren azkenetan.



Enpresa-komisioak zonatan koordinatzen hasi ziren eta geroago probintzi mailan. 1967an egin zen Madrilen CC.OO.en lehen Batzar Nazionala.

1975eko hauteskunde sindikaletan parte hartu zuen CC.OO.-ek enpresetako ordezkarien hautaketan, boikota eskatzen zuten sindikatu tradizionalen aurka.

Trantsizio politikoaren lehen mementuetan, CC.OO. mugimendu sozio-politiko bezala definitzen zen, sindikatu bertikalari intersindikal batu batek jarrai zekion saiatu zen, hura kontrolatzeko beste sindikatuak baino hobeto kokatua zegoelarik. Batasun sindikala bere printzipioetako bat du oraindik, eta, bide horretan, enpresetako ordezkarietaren organismo bateratuak indartu nahi izan ditu, trantsizio politikoaren lehen urteetan batez ere.

Pluralismo sindikala onartu ondoren, 1976ko uztailan Asanblada Nazional Orokorra egin zuen Bartzelonan; hurrengo urtean «Confederación Sindical de CC.OO.» bezala legezatu zen. Erabaki honen ondorioz, Komisioetatik alde egin zuten elementu erradikalenek, eta bi sindikatu berri sortu ziren, SU eta CSUT; baina sindikatu hauek ez zuten 1978ko hauteskundeetan aski erantzun lortu. 1978ko ekainean egin zuen CC.OO.ek bere lehen Kongresua sindikatu bezala.

CC.OO. sindikatuak langileen eskakizunen defentsa du helburu, «gizarte kapitalista desegiten eta gizarte sozialista eraikitzen» saiatuz.

Alderdi Komunistaren eta sindikatuaren arteko erlazioei buruzko gidarien deklarazio nahiz isiltasunak gorabehera, ezaguna da sindikatuaren buruzagi gehienak alderdiaren organo zuzendarietakoak direla, eta estatutuetan ez dela kargu sindikal eta politikoen bateraezintasunik ageri.

1978 eta 1980ko hauteskunde sindikaletan Estatuko lehen sindikatu bezala agertzen zaigu. Moderazioa ala mobilizazioa, bietaz baliatu da, koiunturaren arabera. Sindikalismoaren etorkizuna argitu gabe zegoenean, Monkloako Paktuen alde jarri zen, PCERekin batean. Ez zuen lehen Marku-Akordioa (AMI) zinatuz, baina bai geroagoko pakto sozialak (ANE). Zalantzarik gabe, hauteskunde politikoetan PCEk izandako arrakasta eskasek asko baldintzatu eta baldintzatzen dute sindikatua.

Friedrich Ebert Fundazioak egindako inkestaren arabera<sup>14</sup>, gune bera du UGT eta CC.OO.eko afiliatuen profilak, baina CC.OO.ek talde proletari eta erradikalagoa du.

Lehenengo osatu zen Komisio probintziala, Bizkaikoa izan zen, 1963an. Gipuzkoan komisio behin-behinekoa eraikitzeo unean, istiluak sortu ziren 1966ko udan, langile militante abertzaleek arazo nazionala planteatzean. Horregatik, diktaduraren garaian, ez zen inoiz lurralde honetan egon demokratikoki hautatutako komisiarik<sup>15</sup>.

Gaur egun, Euskadiko CC.OO.en Konfederakuntzak Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa biltzen ditu; badu autonomia zerbait, eta bi Kongresu egin ditu, 1978an eta 1981ean. Hala ere, ez dago ados K.A.a erlazio laboralen barruti autonomo egitearekin, Lan-erlazioen kontzertuan batera jokatzeko UGTrekin zinatuzuen dokumentuak adierazten duenez.

### 2.3.1. CC.OO.en ezarpena K.A.an

Hauteskundeetako entzuleriaren arabera, K.A.ko hirugarren sindikatua da CC.OO., ordezkari-postuen % 17,12 (2.484 postu) lortu bait du 1982ko hauteskundeetan. Gipuzkoako bigarren sindikatua da ezarpenez, ELAren ondoren. CC.OO.en ezagugarrietako bat, entzuleria berdintsua edukitzea da hiru Lurraldeetan (ordezkarien % 16,28 Araban, % 18,12 Gipuzkoan eta % 16,67 Bizkaian), 43.923 bat boturekin K.A.an (5.206 Araban, 15.116 Gipuzkoan eta 23.601 Bizkaian).

Langileen % 5,7 afiliatzen du: 30.000 bat afiliatu ditu (4.000 Araban, 13.000 Gipuzkoan eta 13.000 Bizkaian). Inkestaren arabera, K.A.ko afiliatuen % 17,4 CC.OO.ena da (% 24,5 Araban, % 22,4 Gipuzkoan eta % 13,3 Bizkaian; Lurralde honetako afiliazioa, hauteskundeetan lortzen duen entzuleriaren oso azpitik dago).

Enpresetan lortutako postuei begiratzen badiegu, antzekoak aurkituko ditugu emaitzak, neurri desberdinetako enpresetan (enpresa txikietan ordezkarien % 17,30; erdi-mailakoetan, 50 langiletik 250erakoetan % 17,58 eta 251tik 500erakoetan % 16,77 eta 500etik gora langileko enpresa handietan % 15,35).

Presentzia koalifikatua, hautatu batekin gutxienez, K.A.ko enpresen % 23,91tan dauka, hauetan daudelarik enpresa handien hiru laurdenak eta 6tik 49ra langileko txikien % 18,52. K.A.an 1982an hautatu diren komiteen % 8,39tan gehiengo absolutua lortu du, erdi-mailako enpresetan gehienak.

Hauteskundeak egin dituzten K.A.ko 171 udalerrietatik 113tan dago presente, ordezkari aukeratuekin. Orokorki, industri konzentrazioetan eta inmigratuak proportzio handian dauden tokietan lortzen ditu emaitzarik onenak.

Baina CC.OO.en ezaugarri nagusiak K.A.an, izaera industrialia eta buzo-langileen arteko ezarpena dira. UGTk ere badituen ezaugarri hauek, areago ageri dira CC.OO.en, batez ere bigarrena.

Nekazaritza- eta, arrantza-enpresetako langileen botuen % 19,02 hartzen du, industri enpresetako botuen %18,60 eta zerbitzuetakoen % 14,71 (606, 33.488 eta 9.829 botu, hurrenez-hurren). Entzuleriaren sektorekako banaketa % 4,24 puntutan desbideratzen da enpresa industrialen aldera, botuemaileen banaketarekin alderatuz.

*CC.OO.en botuen banaketa K.A.ko sektoreetan. Botuemaileen banaketarekiko konparazioa. 1982ko hauteskundeak.*

	CC.OO.en botuak	Botuemaileak	CC.OO./Botuemaileak desbiderapena
Nekazaritza eta arrantza	1,38	1,27	+0,11
Industria	76,24	72,02	+4,24
Zerbitzuak	22,38	26,72	-4,35

(N. 43.923)

(N. 250.048)

Inkestaren arabera, berriz, CC.OO.en afiliatuen banaketak kontrako desbiderapena ematen du: 4,5 puntutakoa zerbitzuen sektoreko langileen alde.

Nolanahi ere, langile-tasuna du sindikatu honek bere ezaugarri nagusia Euskal Herrian.

1982ko hauteskundeetan 5.928 lortu ditu CC.OO.ek administratibo eta teknikoen artean hauteskundeak egin dituzten 50 langile baino gehiagoko enpresetan. Hau da, kolektibo honen botuen % 10,33. Langileen kolektiboan, aldiz, botuen % 20,73 lortu zuen, 28.020 boturekin.

Langile-klasearen bi estratuen arteko botuen barne-banaketa kolegioetako botuemaileen banaketarekin alderatuz, 12,34 puntutako desbiderapena daukagu langileen alde, entzuleri portzentatetan.

*CC.OO.en botu kalkulatuaren banaketa, K.A.ko kolegioetan.  
Kolegioetako botuemaile biekiko desbiderapena.  
1982ko hauteskundeak.*

	CC.OO.en botuemaileak	Botuemaileak	CC.OO./Botuemaileak desbiderapena
Administratibo eta teknikoen kole- gioa	17,46	29,80	-12,34
Langileen kole- gioa	82,54	70,20	+12,34
	(N. 33.948)	(N. 192.582)	

CC.OO.en afiliatuen % 81,2 langilea da, eta administratibo eta teknikoa % 18,8. Sindikatu honen langile-klasearen behe-estratueganako joera, afiliazioaren konposizioan ere nabaria da, nahiz eta, kasu honetan, inkestako laginaren konposizioari buruzko desbiderapena % 5,5 puntutakoa bakarrik izan langileen alde.

### 2.3.2. CC.OO.en afiliatu eta botuemaileen ezaugarriak K.A.an.

Sindikatu honen afiliatuen % 55 eta botuemaileen % 59 Euskadin jaioa da, eta % 44 eta % 41 etorkina. Afiliatu inmigratuen % 25,9 eta bertako kotizatzaileen % 14,4 jasotzen du.

Afiliatuen batezbesteko adina 37,2 urtetakoa da, eta botuemaileena % 37,1ekoa: UGTkoenak baino askoz gazteagoak eta ELAkoen antzekoak. Baina 25 urtetik 32ra bitartean daude CC.OO.en afiliatuen % 42 eta botuemaileen % 41; datu hau seinaltzekoa da, CC.OO.en oinarrien gaztetasuna azaltzen bait du, batezbesteko adinean ikusten ez den bezala, alegia, beste adin-estratuetan orekatua denez adina. Dena dela, 33 urtez behekoa da afiliatuen % 51 eta botuemaileen % 50.

Afiliatu eta botuemaileen hezkuntza-maila, gaztetasun hori dela eta seguru asko, UGTkoena baino altuagoa da (lehen-maila-

koez gorako ikasketak dituzte afiliatuen % 55ek eta botuemaileen % 54ek), baina sindikatu abertzaleetakoena baino apalagoa, langile-klase apalenetan sartuagoa dagoelako, noski.

Sindikatuak ematen dieten funtzio sozialaren arabera, ELA eta UGTkoak baino erradikalagoak dira CC.OO.en afiliatuak, LABekoak erradikalismora iristen ez badira ere. Zehatzagoa litzateke, agian, UGTk eta ELAk baino talde erradikal handiagoa duela CC.OO.ek esatea, moderazioa nagusitu arren. Horrela, afiliatuen % 33k ukatu egiten du sindikatuen funtzioa alokairu hobek lortzea delako proposamena, alde batera uzten ditu arazo politikoak, eta % 15 grebaren erabilera gogorraren alde agertzen da, nahiz eta % 82k pentsatu «negoziazio-bide guztiak agortu ondoren» bakarrik jo behar dela grebara.

Hauk lirateke CC.OO.en ezaugarri nagusiak, K.A.an: bere afiliatu eta botuemaileak buzo-langileen artean hartzen ditu batez ere; inmigratu nahiz bertakoak dira, baina gehienak gazteak; eta afiliatu erradikalen portzentaia altuagoa du UGTk eta ELAk baino; gaur behintzat, hala ere, moderazioa da afiliatuen jarrera nagusia.

Sindikatuari funtzio instrumentala ematen dieten afiliatu gehienek moderazio hau berriro agertzen da sindikatura jotzeko arrazoia azaltzean. Gehienek (% 63k lehen aukeran) motibo utilitarioak aipatzen zituzten, eta % 8 bakarrik afiliatu da sindikatua marxista eta iraultzailea delako. Hala ere, «langile guztien batasuna defendatzen nabarmentzen delako» afiliatu dela dio % 27k. Azken bi arrazoi politikoago hauek erakarria heldu da % 32tik 35era afiliatu.

Sindikatuak alderdi politikoetatik independente izan behar dutela pentsatzen dute bai afiliatuak eta bai botuemaileak, dela erabat (% 50ek), dela arazo konkretuetan erlazionatuz independente (% 46k). % 3 bakarrik dago sindikatua alderdiari menperatzearen alde. Puntu honetan CC.OO.en sostengatzaileak ez dira bereizten beste sindikatuen afiliatuetatik eta langileen eritzi orokorretik.

Nahiz eta eritzi hau eduki, CC.OO. PCeren sindikatua dela pentsatzen dute langile gehienek ez ezik, CC.OO.en afiliatu eta botuemaile gehienek ere. Alderdi honetako kideek, bestalde, asumitua dukete errealitate hau. Oso gutxi dira CC.OO. sindikatu erabat independentetzat daukatenak.

CC.OO.en afiliatu eta botuemaileak azaldu duten gogaidetasun politikoari —seguruenik botu politikoan isladatzen denari—

«CC.OO.en afiliatu edo botuemailea bazara, esaiguzu zein arrazoiengatik batez ere»:

	Lehen aukera		Bigarren aukera		Bi aukeren batura	
	Afil.	Botue.	Afil.	Botue.	Afil.	Botue.
«Langileak hobekien defendatzen dituen delako»	44	39	18	18	31	28
«Marxista eta iraultzailea delako»	8	6	12	8	10	7
«Langile guztien batasuna defendatzen nabarmentzen delako»	27	16	20	20	24	18
«Buruzagi borrokalari eta ondratuak dituelako»	7	8	33	24	20	16
«Nire lantegian ongi jokatzen delako»	12	14	10	11	11	13
Ez daki, ez du erantzuten	2	17	7	19	4	18

(N.69) (N.79) (N.69) (N.79) (N.138) (N.158)

*K.A.ko langileen eritzia, CC.OO./PCE erlazioari buruz.  
1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	CC.OO.en afil.	CC.OO.en botuem.	PCEren gogaideak	Langile guztiak
«CC.OO. PCEren sindikatua da»	58	59	67	69
«CC.OO. sindikatu independentea da, PCEekin kontaktu batzu eduki arren»	33	27	15	16
«CC.OO. sindikatu erabat independentea da»	5	6	3	1
Ez daki, ez du erantzuten	4	8	15	14

(N. 69)

(N. 79)

(N. 53)

(N. 1.211)

begiraturaz, ezin esan daiteke PCE eta CC.OO.en identifikazio bat dagoenik K.A.an. Egia da PCERen gogaide diren ia langile guztiak (% 93) CC.OO.en afiliatuak direla, baina sindikatuaren afiliatu eta botuemaileek partidu desberdinekiko gogaidetasuna agertzen dute, Euskadiko alderdi ezkertiar guztiak daudelarik horietan. Gehienak, baina ez gehiengo, PCERekiko gogaideak dira (afiliatuen % 36 eta botuemaileen % 33). Afiliatuen % 23 eta botuemaileen % 18 EERen gogaideak dira, eta afiliatuen % 9 eta botuemaileen % 11 EMK eta LKIren gogaide agertzen dira. Azkenik, PSOERekiko gogaidetasuna agertzen duten afiliatu eta botuemaileen porzentaiak txikiagoa dirudi Euskal Herrian Estatuan baino<sup>16</sup>.

*CC.OO.en afiliatu eta botuemaileen gogaidetasun politikoa  
K.A.an. 1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta.*

	CC.OO.en afiliatuak	CC.OO.en botuemaileak
PCE	36	33
EE	23	18
PSOE	11	13
HB	4	11
EMK	5	5
LKI	4	6
PNV	2	5
UCD	—	3
AP	—	—
Ez dute erantzuten	12	7

(N. 69)

(N. 79)

CC.OO.en afiliatuen profila burutzeko, sindikatuek Euskadin izan behar duten autonomiari buruzko eritziak agertuko ditugu. Afiliatu ia denek asumitzen dute indarrean dagoen Autonomi Estatutua, nahiz eta hasieratik gutxiegitzat daukatenak afiliatuen % 31 izan.

Afiliatuen % 70ek (botuemaileen % 68k) pentsatzen du, sindikatu estatalek benetan duten baino «autonomia handiagoa izan beharko lukete»la Euskadin; sindikatuari berari aplikatuz galdera, afiliatuen % 42k kritikatzten diote CC.OO.i «Madrileko erabakiei lotuegi» jokatzea, eta % 4ek autonomiarik batere ez izatea.

*Langileen eritzia, CC.OO.en autonomi mailari buruz K.A.an. 1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta. «Zure ustez, CC.OO.ek honela jokatzten du Euskal Herrian»:*

	CC.OO.en afiliatuak	Langile guztiak
«Madrileko gidariekiko autonomia gehiegirekin»	4	4
«...autonomia nahikoarekin»	45	12
«...erabaki zentraleri lotuegi»	42	42
«...ez du inolako autonomiarik»	4	16
Ez daki, ez du erantzuten	5	26
	(N. 69)	(N. 1.211)

#### 2.4. LAB: Langile Abertzaleen Batzordea

Frankismoaren azken etapan, ETak bultzatutako fronteetatik sortua da LAB sindikatu. Izen honekin agertzen da 1974ean, 1977ko ekainean legezkatzen da eta 1978ko maiatzean egingo du bere lehen Kongresua.

Era batera nahiz bestera ETatik sortu diren erakundeak karakterizatzen dituzten eztabaida eta borrokak jasan ditu bere barnean, sindikatu edo, gaurko buruzagiek definitu nahi duten bezala, mugimendu sozio-politiko honek.

1977ko hauteskunde politikoan aurretik, KASen barruan zeuden EIA eta EHAS (gero HASI) alderdiak, LAB sindikatu eta



garrantzi txikiagoko beste erakunde batzu. Hauteskunde haietan EIAk parte hartzea erabaki zuen Euskadiko Ezkerraren barruan, eta, erabaki honen ondorioz, eztabaida sortzen da KASen barruan erreforma politikoaren onarpenaz, eta EIAk utzi egingo du koordinadora.

Sindikatuaren lehen kongresuan, 1978ko Maiatzean Bilbon egindakoan, EIAren tesiak nagusitzen dira, eta LABek Koordinadora utziko du. Baina ez luzarorako, zeren, azken partean Ormaiztegin 1980an egin zuen II. Kongresuan HASIren jarrera erradikalenean irabaziko bait dute, eta berriro KASera itzuliko da LAB, haren estrategia bermatuz.

Gaur, beraz, KASen, —«Euskal Iraultzaren bloke gidaria»-ren— barruan dago LAB, eta errefusatu egiten ditu erreforma politikoa eta Autonomi Estatutua. Eite sozio-politikoko euskal sindikatu iraultzaile bezala definitzen du bere burua, Euskadiren askapen nazionala klase-borrokarekin elkartuz. «Langile-klasearen eta burgesiaren arteko borrokak posible egingo du, proletalgoraren garaipearekin, arazo nazionalaren irtenbidea». «LABen helburua, Euskadiko langileen interes sozio-ekonomiko, politiko eta kulturalak defendatzea da, Euskadi askatu, batu eta sozialista lortzeko borrokatuz».

Euskal langileriaren batasunaren atzetik dabil, partizipazio-mailarik handiena nahi du, asanbladak defendatzen ditu eztabaida- eta erabaki-organo bezala eta enpresa-komiteak batasun haren lehen maila bezala.

Bere barne-antolaketa ere partizipazio handiena lortzeko moldatu du, antolaketa horren lurralde- eta sektore-eskema beste sindikatuenetik gutxi bereizten bada ere. Enpresa-mailaz gaineko konbenioak negoziatzeko, pertsonal-delegatuen eta enpresa-komiteen ordezkarien protagonismoa eskatzen du.

Haren estrategian paktu sozialen errefusa agertzen da eta «borroka-modu erradikal eta eraginkorren indartzea, patronalaren gogortasuna hausteko, borrokan ari diren sektore desberdinak koordinatuz»<sup>17</sup>.

Hala eta guztiz ere, euskal sindikatu erradikal honek parte hartu du Gipuzkoako metalaren konbenio probintzialaren negoziaketa-mahaian, sektoreko enpresetan % 10 baino ordezkari gehiago edukitzean, baina beste sindikatuek baino jokabide erradikalagoak defendatuz.

#### 2.4.1. LABen ezarpena

K.A. osoan, 805 ordezkari-postu bakarrik lortu ditu 1982ko hauteskundeetan, postu aukeratu guztien % 5,86 (Gipuzkoan % 7,76; Bizkaian % 5,55; eta Araban % 2,13), 16.741 boturekin (Bizkaian 9.069, Gipuzkoan 7.072 eta Araban 600).

K.A.ko afiliazio-tasan duen partea, berriz, % 3,6koa da, hau da, langile afiliatuen % 11,1ek sindikatu honi kotizatzen dio. Hiru Lurraldeetan 19.000 afiliatu kalkulatu bazaizkio (1.100 Araban, 5.000 Gipuzkoan eta 12.900 Bizkaian), haren afiliazio-maila altuagoa da hauteskundeetako entzuleriarena baino; aldea nabarmena da Bizkaian: Lurralde honetan langileen % 4,5 afiliatuko luke, hots, afiliazio osoaren % 13,3 eta 1982ko hauteskundeetan botuen % 6,67 lortu du.

Nafarroan ere lan egiten du LABek. 1980ko hauteskundeetan, ordezkari aukeratuen % 3,83 lortu zuen Lurralde honetan eta % 4,63 1982koetan, IMAC zentralaren datuek diotenez. Inkestako emaitzen arabera, langileen % 2,3 afiliatzen du, hau da, Lurraldeko afiliazio sindikalaren % 12,6.

Audientziaren emaitzen arabera, LABek emaitza hobek lortzen ditu enpresa erdi-mailako eta handietan txikitetan baino; Gipuzkoa eta Bizkaian Araban baino; industrian zerbitzuetan baino, eta langile-kolegioan administratibo eta teknikoengan baino.

Presentzia eskasa duen arren enpresetan, errepresentazioaren eta lortutako botuen portzentaiek, eta K.A.ko 18 komitetan (komite hautatuen % 1,49tan) gehiago absolutua lortu izanak adierazten dutenez, presentzia hori, hautatu batekin gutxienez, hauteskundeak egin dituzten enpresen % 8,11ra hedatzen da (enpresa handien % 44,71ra; erdi-mailako enpresetan 251 langiletik 500erakoen % 30,58ra et 50 langiletik 250erakoen % 19,14era eta enpresa txikien % 3,89ra).

Datu honek eta ordezkari sindikal hautatuak dituzten K.A.ko 171 udalerrietatik 88tan presente egoteak aukeraturen batekin agertzen dute, botu-kopurutik suposa zitekeena baino presentzia zabalagoa duela sindikatu honek lurralde eta enpresetan.

Laburtuz, LAB sindikatu militantea da, botuemaile baino afiliatu gehiago ditu eta, eusle gutxirekin bada ere, enpresa askotan dago presente, K.A.ko udalerrri gehienetan. Langile autoktonoak nagusi diren Gipuzkoa eta Bizkaiko industrializazio berriko lu-

rralde, udalerrri eta alderdietan lortzen ditu bere emaitzarik onenak.

Hauteskundeetako audientziaren arabera —eta ELA-STV, beste sindikatu abertzalea ez bezala— LAB hobeto kokatua dago industri sektorean zerbitzuetan baino, eta nekazaritzan praktikan ausente dago. K.A.ko industri langileengandik jaso du bere botuen % 80,30; eta industri enpresetako botuemaileak, hauteskundeetako botuemaile guztien % 72 dira. Datu hau, hala ere, ez dator bat afiliatuen sektorekako banaketarekin: zerbitzuetako langileen afiliazioan duen partea (% 15,8) industri langileetan duena (% 10) baino handiagoa da.

Esku-langileen artean administratibo eta teknikoen artean baino ezarpen hobea izateak ere bereizten du ELAtik. Lehenengogandik botuen % 7,96 jaso du, eta bigarrenengandik % 6,12. LABen botuen barne-banaketak % 5,21 puntutako desbiderapena azaltzen du langile-kolegioaren alde, 1982ko hauteskundeetako botuemaileen kolegio-banaketarekin alderatzean.

*LABen botuen banaketa, ehunekotan, kolegioen artean. Hautesleria botuemailearekiko desbiderapena. Komitea aukeratu duten enpresak. 1982ko hauteskundeak.*

	LABen botuak	Botuemaileak	LAB/Botuem. desbiderapena
Administratibo eta teknikoen kolegioak	24,59	29,80	-5,21
Langileen kolegioa	75,41	70,20	+5,21

(N. 14.274)

(N. 192.582)

Sindikatu honen afiliatuen banaketak ere egile-langileriaren aldeko joera bera agertzen du (% 79,5 da hauetakoa), nahiz eta botuetan baino desbiderapen txikiagoa erakutsi (% 3,8koa da inkestako laginaren banaketarekiko).

#### 2.4.2. LABen afiliatu eta botuemaileen profila

Euskal Herrian diharduten sindikatuetan, LABek du batezbesteko adinik txikiena (afiliatuena 33,5 urtekoa da eta botuemaileena 32,6koa). Botuemaileen % 58k 33 urte baino gutxiago du. 25 urtez behekoak dira, afiliatuena % 16 eta botuemaileen % 17; eta 45 urtez gorakorik apenas dagoen haren afiliatu eta botuemaileetan. Hala ere, afiliatuena % 46 adin heldukoa da, 33 urtetik 44erakoa.

Sindikatura apoiatzen dutenen ikasketa-maila beste sindikatuetakoena baino altuagoa da, eta ELAren afiliatu eta botuemaileen antzekoa (haren afiliatuena % 68k eta botuemaileen % 62k lehen-mailakoez gaineko ikasketak ditu). Botuemaileen % 24ek goi- edo erdi-mailako ikasketak eginak ditu.

ELAK baino argiago, Euskadin jaiotako langilerian aurkitzen du LABek ia sostengu osoa. Honen afiliatu eta botuemaileen % 90 Euskadin jaioa da. Euskadin jaiotako langile sindikatuen % 15 afiliatzen du, UGT eta CC.OO.en kolektibo honetako afiliazioarena baino proportzio handiagoan.

LABeko afiliatu eta botuemaileen berezitasuna, erradikalenak izatea da. Beste sindikatuetan baino txikiagoa, baina badago horien artean ere sindikatuen errebindikazio-funtzioa estimatzen duen talde bat. Afiliatuena % 32k bakarrik pentsatzen du sindikatuek alderdi politikoa independente jokatu behar dutela, eta % 12 dira sindikatuak kideko alderdi baten ekintzari menperatu behar diola berea uste dutenak. Bestalde, % 54ek, errefusatu egiten du, sindikatuek, politika-kontuak alde batera utzi, eta lan-kondizioak eta alokairuak hobetzen saiatu behar luketelako proposamena. Oinarrizko aurkakotasuna nabari du % 86k langileen eta enpresariaren artean, eta % 43 greba gogor erabiltzearen aldekoa da, ez bakarrik azken baliabide bezala, negoziaketak huts egin ondoren. LABen afiliatuena % 81ek uste du, sindikatuek ez diotela erantzun Francoren heriotzaren ondoren haiengandik espero zenari, eta langileen interesetatik urruntzen eta burokratizatzen ari direla uste du % 83k.

LABen afiliatu eta botuemaileen gogaidetasun politikoa, bakarrik, mugimendu edo alderdi iraultzaileekikoa da (HB, EE, LKI eta EMK), baina HBrenganako leialtasuna oso handia da baseetan: LABen afiliatuena % 79 eta botuemaileen % 78 HB euskal mugimendu herritarraren gogaide agertzen dira.

*LABen afiliatu eta botuemaileen gogaidetasun politikoa K.A.an.  
1982ko Ekaina-Uztaileko inkesta*

	LABen afiliatuak	LABen botuemaileak
HB	79	78
EE	11	13
LKI	2	2
EMK	—	2
PCE	—	1
PSOE	1	—
PNV	—	—
UCD	—	—
AP	—	—
Ez dute erantzuten	7	3
	(N. 44)	(N. 46)

Bukatzeko: euskal sindikatu erradikalaren afiliatu eta botuemaile gehienak industri langile gazteak dira, batez ere industrializazio berriko zonetako langileak. Ia denak bertan jaiok eta erradikalak dira: horregatik, eta dirudienez, LABek bertan jaiok ELArekin konpartitzen ditu, eta elementu iraultzaileak CC.OO.-ekin. Sindikatuaren berezitasunetako beste bat, afiliatu eta botuemaileen identifikazioa da Herri Batasunarekin.

1 Suren militanteak CC.OO.era pasa ziren 1983an Lurralde honetan.

2 Lana idazterakoan ez zen posible izan inkestaren datatik hurbilagoko beste langile-zentsu bat erabiltzea. Krisi ekonomikoak enpleguari dakartzkion ondorio negatiboak kontutan harturik, hurrengo afiliazio-kalkuluak handiegitar hartu beharko ditugu, argi bait dago langile enplegudunak gutxiago direla inkestaren garaian erabilitako zentsukoak baino.

- 3 Inkesta horietan, elkarrizketatua zein sindikatutan afiliatua dagoen galdetzen da; guk, berriz, zein sindikaturi ordaintzen dion kuota galdetu diogu: benetako afiliazioaren kontrola esan nahi du honek.
- 4 Inkestan, gai honi buruzko galdera bat sartu genuen.
- 5 Datu hauen arabera, hipotesi hau egin dezakegu: 1982ko hauteskundeetako ELAren hazkundera, 1980ko hauteskundeetan beren botua kandidatura independentei eman zieten zor zaie; eta hau ados legoke kandidatura ez-sindikatuaren azken hauteskundeetako beherakadarekin.
- 6 OLABARRI, I.: *Relaciones Laborales en Vizcaya (1890-1936)*, Leopoldo Zugaza ed., Durango 1978, 131-165 or. Liburu honetakoak dira 1936 arteko histori oharrok.
- 7 LARRAGAÑA, P.: *Contribución a la historia obrera en Euskal-Herria*, E. Auñamendi, Donostia 1976.
- 8 ELAren oraintsuagoko historia idatzi gabe dago. Idoia Estornes-ek apunte batzuz eman ditu *Qué son los partidos políticos abertzales* liburuan (Ed. Auñamendi, Donostia 1977) eta *Triunfo* aldizkariako artikulu batean. Ik. baita, *ELA-STV, Centro de formación y documentación* eta *Lantzen* 4. zenb. (1979ko Ekaina).
- 9 Datu hau 1980ko hauteskundeetako botuemaileari dagokio, inkesta 1982ko hauteskundeak egin baino lehenagokoa bait da. Kontutan har bedi ohar hau beste sindikatuak karakterizatuko direnean ere.
- 10 Proposamen hau zegoen inkestan: «Euskadin Euskadiko sindikatuak bakarrik egon beharko lukete», eta inkestatuak bere ados- nahiz ezadostasuna agertu behar zuen.
- 11 Sindikatu honen historiari, ikus: DEL ROSAL, A.: *La historia de la UGT en España. 1901-1939*, Grijalbo, Madrid 1977; TUNON DE LARA, M.: *El movimiento obrero en la historia de España*, Laia, Barcelona 1977. UGTren jaiotza eta ekintzaz Euskal Herrian gerra zibilaren aurretik: FUSI, J.P.: *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, Ed. Turner, Madrid 1975; OLABARRI, I.: *Relaciones laborales en Vizcaya (1890-1936)*, Leopoldo Zugaza ed., Durango 1978. Eta sindikatuaren publikazioak.
- 12 OLABARRI, I.: *aip. lib.*, 44 or.
- 13 CC.OO.i buruzko publikazio espezifiko gehienak haren gidariak dira: SARTORIUS, N.: *El resurgir del movimiento obrero*, Ed. Laia, Barcelona 1976; SARTORIUS, N.: *El sindicalismo de nuevo tipo*, Ed. Laia, Barcelona 1977; ARIZA, J.: *La Confederación Sindical de Comisiones Obreras*, Ed. Avance, Madrid 1977. Erabili ditugu, baita: ALMENDROS, F. eta beste: *El sindicalismo de clase en España (1939-1977)*, Ed. Peninsula, Barcelona 1978 eta Sindikatuaren gaurko publikazioak.
- 14 «Elecciones sindicales de 1980 (Documentos y Estudios, 22), Fundación Friedrich Ebert, Madrid 1982, 88-89 or.
- 15 Antolatze-saio hauen historia, Bordalen argitaraturiko *Frères du Monde* aldizkari katolikoaren 60. zenbakian (1969, 3. hiruhilekoa) ikus daiteke, «Luttes ouvrières en Espagne» gaiari eskainian.

- 16 Estatuko industri langileei egindako EASI-1978 inkestaren emaitzen arabera, CC.OO.en botuemaileen % 45ek lehen hauteskundeetan PSOeri eman ziola botua aitortu zuen (ik. PEREZ DIAZ, V.: *Clase obrera, partidos y sindicatos*, Fundación del INI, Madrid 1980, 109 or.). Erreferentzia, jakina, aspaldikoa da.
- 17 Aipamenok, 1980ko bigarren Kongresuan onartutako printzipioetakoak dira. Lehen Kongresuaren ondoren, Sindikatuak manifestu bat argitaratu zuen: «Euskadiko langile-mugimenduaren aurrean». LABen posizioak, *Iraultzen* haren aldizkarian jarrai daitezke.

## LOS SINDICATOS EN EUSKADI SUR

### LES SYNDICATS EN EUSKADI SUD

*El objeto del artículo es describir el panorama sindical de Euskadi hoy, estudiando la implantación de los sindicatos y el perfil de los afiliados, sobre los resultados de las elecciones sindicales celebradas en 1980 y en 1982 y sobre las respuestas a una encuesta realizada en los meses de junio y julio de 1982. El trabajo se centra en la Comunidad Autónoma, aunque, en la medida en que los datos lo permiten, se extiende también a Navarra.*

#### I. El espectro sindical de Euskadi

##### 1. La audiencia sindical en la Comunidad Autónoma

Parisek baditu harremanak CC.OO.ekin, baina Baionak ez du harremanik Hegoaldearekin, non ez den beharra sentitzen kasu konkretu batean: hala nola Baionako «Ontzi Olak» problemak izan dituelarik, Gasteizko «Ontzi Ola»rekin harremanetan sartu diren CC.OO.en bidez. Baina ELA izan balitz hango sindikatu azkarrena, harekin ziren harremanetan sartuko.

## FEN

1884eko legeak ez zien sindikatuak izateko dretxorik ematen irakasleei. Elkarren arteko batasun batzu sortu zituzten halere, eta

batasun horiek sindikatu bilakatu ziren: SNI («Syndicat National des Instituteurs») formatu zuten, elkarretaratuz, 1920an, CGT barnean sartzen zirela. Baina 1922an CGT bi parte egin zelarik, errientak jalgi ziren, beren arteko batasuna ez hausteko. Bere ber jarri ziren.

1928an, errient ez ziren guztiei ireki zieten beren sindikatua, lanean, irakasle-munduan ari ziren ber. «Fédération Générale de l'Enseignement» deitu zuten (FGE), geroxeago FEN bilakatzen zela («Fédération de l'Education Nationale»).

Baina, irakasleentzat sindikatuak haizu ez zirelarik, baziren jadanik gordekako sindikatuak egin zituztenak, iraultzaileak. Horiek, CGTU komunistan sartu ziren 1922an, baina 1925ean CGTUtik jalgi ziren.

«Front Populaire» famatuaren denboran, haizea batasunari ari eta CGT-CGTU elkarretaratzearekin, irakasleek ez zuten bereiz egoteko arrazoirik. Haiak ere CGT batuan sartu ziren.

1948an, sindikalismoa bi parte egitearekin, referendum bat egin zuten, jalgi behar zuten ala ez jakiteko; % 65 bereiztearen alde agertu ziren.

Gaur egun 500.000 kide dauzka sindikatu honek. Hauteskundeetan % 62,50 egiten du irakasle-munduan, CFDTk % 14,2 egiten duelarik.

Luzaz, anitz erriententzat, ezkertasuna, antiklerikalismoa izan da. Gaur hori aldatu da.

Bertze sindikatuen helburuez gainera, FEN horrek nahi luke haur guztiak eskola publikoan ibil daitezen, hots: eskola pribatuak nazionalizatuak izan daitezen, eta nazionalizatzea onartzen ez badute, diru publikorik gabe utzi.

Urteak eta urteak, errientak izan dira euskararen etsairik handienak: Euskaldunei irakatsi behar zieten frantsesa eta Frantziaren amodioa. Hemen ere egoera aldatzen ari da. Eskola publikoan euskara ikasten da asignatura bezala; klase elebidun batzu sortu dituzte, anitzek sinesten dute gure mintzairan, nahiz zenbaitek klase elebidun horiek sortu zituzten ikastolei konkurrentzia egiteko. Eskola publikoko irakasle asko bada Gau-eskoletan, ala euskara ikasten, ala irakasten.

Ofizialki FENek klase elebidunak baizik ez ditu nahi; errient askok onar lezakete bi sare izan daitezen eskola publikoan, bata elebiduna, bestea euskara hutsean, ikastola publikoa. Maioriak bi

sareak ez zituelako onartzen ez da sartu sindikatu hau «Pizkundea» federazioan.

Minoria batek, ez zegoela konforme erakutsi nahiz, mozio bat egin zuen. Zenbait dozena sinadura bilduko zutela pentsaturik abiatu ziren. Sindikatuan zeudenen 3tik 1ek sinatu zuen.

Laborari-sindikatuaren gisa, FEN horrek baditu inguruan asko gauza: kooperatiba-denda, kotxe-asegurua, irakasleen aseguru soziala eta beste.

### CFDT

Joan den mende-hondarrean, Lille eta Lyonon elkarretaratu ziren langile giristino batzu. Beste sindikatuaren sozialismoarekin ez akort, ez eta Elizaren aldera zuten herrarekin, eta halere, langile bezala, zerbait egin behar zutela iruditzen zitzaien. 1891n Leon XIII.a Aita Sainduak idatzi *Rerum Novarum* gutunean atzeman zuten beren dotrina.

Bi aldetara behar zuten borrokatu. Alde batetik, gorrien kontra, eta borroka hori batzutan ukabil-ukaldika egin behar zuten. Bestetik, berriz, nagusien kontra.

1919an sortu zuten «Confédération Française des Travailleurs Chrétiens» (CFTC). «Française» hori hautatu zuten, gorrietan bazirelako «internazionalistak», bereziki anarkistetan, eta CFTC-koek beren burua frantses zeukaten.

Ez zuten klase-borrokarik nahi, Elizak ez zuen horrelakorik onartzen eta! Anaitasunaren bidez dute aitzinatu nahi, Jesusen irakaspenei jarraikiz. Nagusi eta langileek elkar entzutea, elkarrekin akomeatzea lukete nahi.

CGT Sindikatuan, «egun handia» hurbil zelako itxaropenak ematen zion gogortasuna eztituz joan zen urteekin; CFTC, aldiz, buruaz murrua jotzearen bortxaz, gogortuz joanen da, kolaboraziorik ez bait zen ageri nagusien aldetik, giristinoak izanik ere.

Bestalde, giristino ez ziren langileen nonbrea handituz zihoan sindikatuan. 1947an, beren araudietarik kendu zuten *Rerum Novarum* gutunari egiten zioten erreferentzia.

CFT ala CFTC behar zen deitu sindikatu hori? Eztabaida gogorak sortu ziren. Azkenean «C» («Chrétien») horren kontra koek gaina hartu zuten. 1960ko kongresuan bozkatu zuten, gober-



namenduak ez zituela eskola pribatuak lagundu behar, eta hori zerbait zen orduko giristinoentzat!

1964eko kongresuan zuten izena aldatu, giristino izena baztertuz; «Confédération Française Démocratique du Travail» (CFDT) deitu ziren.

Gaurko egunean CFDTko gehienek ezker botatzen dute: % 62 ezker, % 32 eskuin. Baina ez dira alderdi politiko bati lotuak. Beren araudiek debekatzen diete kargu bat izatea sindikatuan eta alderdi politiko batean denbora berean. Sozialista eta autogestionarioak dira.

Egun, CFDTren berezitasun handienetarik bat hauxe dateke: lanorduak partekatzea onartzen dute, zenbaiten soldatak horretarako apalduko badira ere (hein batean halere!). Hiru akordio badiutuzte eginak Baiona alde honetan azken hilabete hauetan: Bréguet-Dassaut, Turboméca eta Baionako autobusetan. Badakite langile anitzek ez dutela horrelakorik onartzen eta hauteskundeetan, akordio horien ondorioak sentituko dituztela botuak galduz; baina gaurko egoeran, urrats hori egitea zuhurtzia zaie.

Lana beste gisa batetara organizatuz ere sor daitezkeela lan-postuak iruditzen zaie, bai eta langileen behar berri batzuei behatuz, hala nola kultur mailan.

Planifikazioak egiten direlarik galdetzen dute, aurretik langileen ordezkariekin mintzatzea, planifikazioa ez dadin langileen kaltetan egin, lantegiaren irabaziei baizik ez behatuz.

Erretreta gazteago hartzea onartzen dute. Soldatak goititzea baino inportanteago zaie soldaten arteko diferentziak txikitzea.

Heren munduaz kontu handia atxekitzen dute, hainbestetarinon non «Tiers-Mondistes» deitzen bait dituzte. Heren munduarekiko harremanak errotik aldatu behar direla diote, haien aberastasunei beren balioa emanez, haien ondasunak haien onetan esplotatuz, Europa eta Amerikak pekatuko badute ere horregatik.

Hala nola Frantziak eta Algeriak sinatu akordioa ontzat hartzen duten: Frantziak besteei baino karioago pagatzen dio petrolio Algeriari; ordainez, Algeriak bere hiri nagusiko metroa Frantziari manatu dio. Biak irabazle dira tratu honetan.

Berriki departamentuko organizazioa berritu dute, Biarno eta Euskal Herria bi parte emanez, bakoitza bere ber ari dela, bi departamentu balira bezala. Sindikatu honetan bada asko euskaldun; gehienak beharbada. Ez da harritzeko, Euskal problema hobekien sentitzen duen sindikatua baldin bada.

## CFTC

1964ean, maioriak CFDT deitua izatea hautatu zuelarik, minoria batek nahiago izan zuen lehengo izenarekin jarraiki. Gehiengan sindikatu marginal bat zen, salbu Frantziako Iparraldeko Ikatz-meategietan, eta eskola girstinoetan; azken hauetan maioria badu. Emeki-emeki indartuz joan da sindikatu hau, zifrek erakusten diguten bezala.

CGT eta CFDTk, sindikatu erreformistatzat daukate, FO bezala. 1984eko urrian laborantzako langileetan izan hauteskudeetan, FO eta CFTC elkarrekin jarri dira lista berean, harritzeko ere bait da, oroituz FOkoek lehen «gorri» fama zutela eta CFTC, hastapenean, ez zela baitezpada gorrien adiskide!

Lanorduen laburtzeko Europa mailan jokatu behar dela diote, Frantziak ez dezakeela hori bakarrik egin. Lanorduen gutxitzea ez dute onartuko, batzuei kendu orduak ez baldin bazaizkie beste batzuei ematen.

Heren munduari buruz, Elizaren posizioa dute: mundu honetako ondasunak partekatu behar direla.

Euskal problemari buruz ez dute posizio ofizialik, problema politiko bat bait da eta ez sindikala. Gorago ikusia dugu, 1946an erabaki zutela sindikatua eta politika bereiz behar zirela.

## Zenbait datu

*PRUD'HOMMES hauteskundeak, 1979 eta 1982 (Nafarroa Beherea eta Lapurdi)*

	1979		1982		Ordezkaririk	
	Botuak	%	Botuak	%	1979	1982
Hautesleak	40.671		45.529			
Botuemaileak	24.979	61,41	26.115	57,35		
CFDT	7.669	30,70	7.925	30,34	11	11
CGT	9.524	37,32	8.874	33,98	8	8
FO	5.717	22,88	5.612	21,48	5	6
CFTC	1.412	5,65	2.589	9,91		

1982an CFDTk % 43,28 egin du Nafarroa Beherean. CFDTk, CGTk baino ordezkari gehiago dauka, sail guztietan barne delako; CGT, aldiz, ez.

Hona datu berak Frantziari buruz. 1979koak baizik ez ditugu.

	Botuak	%	Ordezkariak
Hautesleak	12.000.000		
Botuemaileak	7.500.000	62,7	
CFDT	1.700.000	23,1	1.748
CGT	3.100.000	42,4	2.770
FO	1.300.000	17,4	1.262
CFTC	500.000	6,9	183

*Sindikatuak eta politika. 1973ko diputatu-hauteskundeetako botua Frantzian.*

	Alderdi politikoak					
	Sozialistak	Ezker muturra	Komunistak	Erreformistak	Gehiengoa (Ezkerra)	Eskuina (Ez gehiengoa)
CGT	29	1	58	3	6	3
CFDT	30	11	21	6	27	5
FO	43	3	20	5	23	6
Besteak	23	4	21	16	31	5
Ez-sindikatuak	20	4	23	14	36	3

## Nekazari-Sindikatuak

Iparraldeko bizia ulertzeko, nekazari-sindikatuak langileenak bezain inportanteak dira, edo gehiago. Abertzaleak askoz indar gehiago dute hemen. Baina hemen ere, Frantziako sindikatuen historiari loturik dago Euskal Herriareña.

1861ean izan zen Frantzian lehen laborari-batasuna: «Société des Agriculteurs Français», Parise inguruko zelaietan dauden nekazari aberatsen batasun bat.

1884ean legeak onartu zituen sindikatu guztiak, nekazarienak langileenak bezala. Baina nekazariak ez zuten langileen bide bera hartuko: laborarien interesak zaindu behar zituzten, baina ekonomia ere organizatu, nekazariak beren uztak behar bait dituzte saldu eta asko gauza erosi. Sindikalismoak ditu eskutan hartuko sal-erospen kooperatibak, banka-kooperatibak, bai eta laborarien aseguruak.

Baina badira nekazari haundiak eta txikiak, zenbait ehun hektarea egiten duten etxaldeak eta 20 hektareaz behekoak (% 91 Garazi eta Baigorri). Errealitateak bi mugimendu sorteraziko ditu nekazarien artean: laborarien batasunari buruzkoa, alde batetik. Beste batzuek, berriz, diote handien eta txikien interesak ez direla berak eta, beraz, bi sindikatu behar direla. Alde batetik izanen da kazikeek eskutan hartu eta kontrolatu nahiko duten sindikatua eta bestetik nekazariak kontzientizatzea bilatuko duena. Izanen da eskuineko sindikalismoa eta ezkerrekoa.

## FNSEA-CNJA

«Fédération Nationale des Syndicats d'Exploitants Agricoles» deitu sindikatua gerra ondoan sortuko da, 1946an, ezkerreko ideologia batekin. Baina berehala eskuindarrek kontrolatu zuten. Hori izanen da azkarrena orain arte; eta luzaz bakarra.

Horren barnean da sortu CNJA («Centre des Jeunes Agriculteurs»), gazteen sindikatua, 1956an, gobernamenduaren laguntzaz; zaharren inobilismoari kontra egiteko gazteen beharra sentitu bait zuen gobernanduak. Gazteen oposizio hori sindikatu bakar horren barnean gelditu zen, beraz.

FNSEA eta CNJAK gobernamenduarekin eskuz-esku egin dute Frantziako laborantzaren politika orain arte. Politika horren

ezaugarriak, laborantzaren modernizatzea eta nekazarien nonbrea txikitzea dira. Laborari soberakinek lantegietara joan behar zuten. Batzu beren baitarik, baserria txikiegi zutela ikusten bait zuten; bertzeak, berriz, modernizatzeko egin zorrak ezin ordainduz.

## MODEF

Denek ez dute politika hori onartu, bereziki txikiek, hiltzera kondenatuak zirenek! Languedoc-eko mahastizainek eta Massif Central mendialdean hazkuntzari emanak zirenek 1959an sortu zuten MODEF sindikatua («Mouvement des exploitations familiales»). Izenak ematen duen bezala, sindikatu honek galdetzen du, familia bat bizierazten duen etxalde batek zutik egon behar duela, nahi bezain txikia izanagatik, eta horretarako behar diren erabakiak hartu behar direla. Komunistek kontrolatzen dute gutxi edo gehiago.

## FFA

FFA («Fédération Française de l'Agriculture») sortuko dute, laborantza gobernamentuaren peko gelditzea onartzen ez dutenek. Dirigismoa ez dute onartzen; liberalismoaren aldekoak dira.

## CNSTP

1975ean FNSEAtik jalgi ziren, gero, beste batzuekin, CNSTP sortuko zutenak («Confédération Nationale des Syndicats de Travailleurs Paysans»). *Travailleurs* hitz hori, FNSEAREN *Exploitants* hitzari oposatua da: lehenentzat nekazaria langile bat da, bertzeentzat nagusi bat.

## FSP

Denbora berean, ikusmole bertsua zuten beste batzuek, oposizioa eginen dute FNSEA barnean. 1981ean sortuko dute FSP («Fédération Nationale des Syndicats Paysans»), ustez eta Mediterrandek bere monopolioa kenduko zion FNSEARI. Aitortu behar da, aldi bat gehiago, bere hitza jan duela presidenteak, eta zerbait

purrukkeria ematen badie beste sindikatuei, FNSEari ematen diola lehentasuna, esklusibitatea ez delarik.

### Euskal Herrian

Ipar Euskal Herria, Frantziari jarraiki zaio. Orain arte FNSEA zen jaun eta errege. FNSEaren buruak ziren Crédit Agricole bankuan, Kooperatibetan, Mutualité Sociale aseguruen batasunean eta denetan.

Ipar Euskal Herriko baserriak modernizatu dira, larreak lurberrituz, tresnataz, lan-moldeak berrituz... eta etxe txikien lurra beretuz, herriak husten zirela. Eta herri huste hori ez da gelditua. Hein batetarik goiti, bizirik ez da herrian; ez denda, ez ostatu, ez eskolarik. Modernizatu dira gure nekazariak, baina zorrez itoak dira eta hatsaren hartzeko astirik ez dute gehiago.

Eta gaurko egoeran, baserri bat hesten baldin bada, non atzemanen dute lana horko jendeek, denetan langabezia delarik?

Ipar Euskal Herrian ere gazte-andana batek ez du onartu FNSEaren politika. Gainera, FNSEA Biarnesen eskutan zegoen, Euskaldunak zinez mutil edo haurtzat zeuzkatela.

40 bat gazte bildu dira zenbait urtez, gutxiz gehienak abertzaleak. 1978an FNSEaren giderrak hartzea Euskal Herrian deliberatu zuten. Hauteskundeak izan zirelarik sindikatuan, bi kantonamendu ez bada, beste guztietan irabazi zuten. Baina Pabera joan eta ez zieten kasu handirik egiten. Bi gertakari ohargarri izan ziren.

Lehenik izan zen ardi gaitz bat, nehork gutxik kasu egiten bait zien artzainei. Paberen baimenik gabe egin zuten manifestaldi bat Baionan. Biacabe subprefektuak «la populace» deitu bait zieten, CRS poliziak igorri, eta hauek artzain bati begi bat galerazi.

Beti artzainekin gertatua da bigarren ekintza. Gehienek esnea *Roquefort* Sozietateari saltzen zioten. Honek Aveyroneko esnea baino gutxiago pagatzen zuen hemengo esnea. Manifestaldi bat egin zen, Larzabalen daukan gaztategi handiaren aitzinean. Pabeko FNSEaren buruek, behin beren baia emanik manifestaldi horri, eza eman zioten gero, eta artzainen bigarren sindikatu bat sortearazi, lehena jadanik FNSEAkoa zelarik. Baina ez zuen Pabek kontrolatzen!

1981ean sozialistak eskuina baino zabalago izanen zirela uste izan zutelarik, talde hori hautsi zen. Gehienek «Euskaldun Labo-

rarien Batasuna» sortu zuten (ELB) CNSTPri federatuz. Bertze batzu FSP horretan sartu ziren.

Zertan diren hemen hiru sindikatu horiek?

FNSEAk Pariseko teoria berak ditu: handi eta txiki batasun berean ikusi nahi. Denei prezio bera pagatu izatea galdetzen du, heldu bait da handiak direla gehienik lagunduak, gobernanduak dirua ematen duelarik. Hala nola, behi esnedunak dituen laborari batek, 20 hektareaz behetik baldin baditu, 21.187 franko irabazten duen; horretan, gobernanduak esnearentzat ematen duen laguntza 8.839 franko. 40-100 hektarea dituen etxalde batek, 58.031 franko irabaziko du, 28.513 frankoko laguntzarekin. Etxalde txikiak, handiak baino hiru aldiz gutxiagoko laguntza izan du!

ELB eta FSPk, aldiz, diote, laguntza ez dela denei berdin eman behar, muga bat finkatu behar dela; muga horretaraino diru-laguntza eman, horretarik goiti batere ez; eman dezagun, muga hori 100.000 pintetan ezartzea proposatzen dute. Mendiko nekazari-entzat, aldiz, 50.000 pintetan, eta laguntza handiagoa galdetzen dute.

Neke da ELB eta FSPren arteko diferentzia ikustea teoria alde-tik. Irudi luke taktika dutela diferentea: ELB gogorrago, FSP eztiago.

1982ko urtarrilean izan ziren hauteskundeak, departamentuko nekazari-ganbarako ordezkariak hautatzeko. Hona Euskal Herriari sindikatu bakoitzak zenbat botu izan zuen. Lehen aldia zen ELB eta FSP presentatzen zirela.

FNSEA	ELB	FSP	MODEF	FFA	Orotara
3.881	2.143	672	262	234	7.194
% 53,96	% 29,79	% 9,38	% 3,64	% 3,25	% 100

Zuberoan ELBk % 52 egin zuen. FNSEAk % 50ez behetik egin zuen, Garazi, Baigorri eta Bastidan.

ELB eta FSPko nekazariak harreman asko badute CFDTko langile batzuekin, familia edo herri bereko dira, edo adiskide.

X.A.

## LOS SINDICATOS EN EUSKADI NORTE

### LES SYNDICATS EN EUSKADI NORD

*El artículo presenta el panorama sindical de Euskadi Norte, en su doble vertiente de sindicatos obreros y agrícolas. Su historia, claro está, está muy ligada a la de los del Estado francés.*

Sindicatos obreros

CGT: La «Confédération Générale du Travail» nace en 1892 de la fusión de «Fédération Nationale des Syndicats» y de «Fédération Nationale des Bourses du Travail». En su primera época sufrió el influjo anarquista; en torno a 1917 la presión comunista. En 1922 la mayoría de CGT expulsó a la minoría comunista que fundó la «Confédération Générale du Travail Unitaire» (CGTU). Cuando en 1936 se impone el Frente Popular se unen CGT y CGTU. Después de la guerra el control fue asumido por los comunistas. En 1947 a raíz de las polémicas en torno al proyecto de Constitución de De Gaulle un grupo de militantes se salió y constituyeron la «Confédération Générale du Travail - Force Ouvrière» (CGT-FO), conocida hoy como FO.

«Force Ouvrière» está marcada por el anticomunismo y la independencia respecto a los Partidos. Prefiere la negociación a la lucha. En Euskadi Norte tiene fuerza sobre todo en empresas paraestatales (correos, electricidad, etc).

La CGT está fuertemente controlada por los comunistas. Defiende la lucha de clases. El problema vasco no es político sino cultural. Se han manifestado contra las extradiciones. CGT de Baiona no mantiene relaciones con Euskadi Sur, salvo en algún caso concreto.

FEN: La «Fédération d'Education Nationale» tiene sus antecedentes en «Syndicat National des Instituteurs» (SNI), que en 1920 entró en CGT para salirse de él en 1922. En 1928 con el nombre de «Fédération Générale de l'Enseignement» (FGE), se abre a todos los elementos del mundo de la enseñanza, aunque no fueran maestros. Poco después se transforma en FEN. En la época del Frente Popular se sumaron también ellos. Pero en 1948 decidieron salirse.

Durante mucho tiempo para muchos maestros este sindicato supuso el ser de izquierdas y anticlerical. FEN es partidario de la escuela pública y de la nacionalización de la privada o de su no financiación pública.

El maestro francés ha sido el mayor enemigo del euskara. Hoy se enseña el euskara como asignatura en la escuela pública; se han creado escuelas bilingües. Pero 1/3 estaría a favor de dos redes de enseñanza: una, bilingüe y otra, sólo en euskara.

FEN como sindicato posee una cooperativa de comercios, seguro de coches, seguro social de maestros, etc.

CFDT: En 1919 se constituyó la «Confédération Française des Travailleurs Chrétiens» (CFTC), de la unión de trabajadores cristianos de Lille y de Lyon, que



no estaban de acuerdo con el socialismo rojo y antieclesial de otros sindicatos, inspirándose en la Rerum Novarum.

El «Française» de la sigla, tenía la intención de ir contra el internacionalismo. Era interclasista, sostenía la colaboración entre patronos y obreros. Pero la propia historia lo endureció.

El «Chrétien» de la sigla a la postre también resultó fuente de conflicto. En 1947 se suprimió de sus Estatutos la referencia a la Rerum Novarum. El Congreso de 1960 votó contra la financiación pública de la enseñanza privada. El Congreso de 1964 cambió de nombre: se suprimió «Chrétien» y pasó a llamarse «Confédération Française Démocratique du Travail» (CFDT).

La mayoría vota izquierda. Son socialistas autogestionarios. Defiende la independencia respecto a los partidos y la incompatibilidad de cargos sindicales y políticos.

Recientemente han reestructurado el departamento, dividiéndolo entre Béarn y el País Vasco. Es el sindicato más sensible al problema vasco. Por ello, quizá, pertenece a él la mayoría de los afiliados vascos.

CFTC: Se trata de la minoría en desacuerdo con la transformación en CFDT, en 1964, que prefirió seguir con su denominación original. Se convirtió en un sindicato marginal, menos en las minas del Norte de Francia y en las escuelas cristianas. Pero ha crecido mucho. Es visto como sindicato reformista. No tiene una postura oficial respecto al problema vasco, por ser este un problema político.

#### Sindicatos agrícolas

Para comprender la vida del País Vasco es tan importante o más conocer los sindicatos agrícolas.

En 1861 se creó la «Société des Agriculteurs Français», que reunía los grandes agricultores del entorno parisino. En 1884 fue legalizado. Pero existen grandes y pequeños agricultores. Este hecho impondrá dos movimientos sindicales. Uno, de derechas, que propicia la unidad de los agricultores, es el controlado por los caciques; otro, de izquierdas, que defiende la necesidad de los sindicatos, ya que los intereses de unos y otros son contrapuestos.

FNSEA - CNSA: La «Fédération Nationale des Syndicats d'Exploitants Agricoles» nace en 1946, con una ideología de izquierda. Rápidamente es controlado por la derecha. En 1956, dentro de él y con la ayuda del gobierno, nace «Centre Nationale des Jeunes Agriculteurs» (CNJA). En connivencia con ellos es como el gobierno ha conducido la política de la modernización de la agricultura y la disminución del número de agricultores.

Contra esta política se constituyó en 1959 el «Mouvement des Exploitations Familiales» (MODEF). La «Fédération Française de l'Agriculture» (FFA). Un grupo salido de FNSEA crea la «Confédération Nationale des Syndicats de Travailleurs Paysans» (CNSTP) en 1975. Todavía en 1981 dentro de FNSEA se constituirá la «Fédération Nationale des Syndicats Paysans» (FNSP).

En el País Vasco: En Euskadi Norte también ha dominado hasta ahora el FNSEA. Se ha impuesto su política de modernización, a costa de endeudarse

*fuertemente y vaciar los pueblos. A esta política del FNSEA, que estaba en manos de bearnese, se opuso un grupo de jóvenes, abertzales en su mayoría. En 1978 se presentaron a las elecciones. Pero su éxito electoral no tuvo eficacia por oposición de la dirección en Pau. En 1981 se deshizo dicho grupo. Una mayoría se organizó como «Euskaldun Laborarien Batasuna» (ELB), federándose a CNSTP. Otros entraron en FNSP.*

*FNSEA sigue defendiendo la unidad de pequeños y grandes agricultores, y una política de ayudas que favorece a los más ricos. A ello se oponen ELB y FSP que, muy afines teóricamente, se distancian en cuanto a la dureza de la acción sindical. En las elecciones de enero de 1982, han copado el segundo y tercer lugar.*

---

L'article présente le tour d'horizon syndical en Euskadi Nord, sous son double aspect de syndicats ouvriers et agricoles. Leur histoire, bien entendu, est étroitement liée à celle de l'Etat français.

#### *Les syndicats ouvriers*

*CGT:* La «Confédération Générale du Travail» est née en 1892 de la fusion de la «Fédération Nationale des Syndicats» et de la «Fédération Nationale des Bourses du Travail». A ses débuts elle subit l'influence des idées anarchistes, puis vers les années 1917 la pression communiste. En 1922 la majorité de la CGT expulse la minorité communiste qui crée la «Confédération Générale du Travail Unitaire» (CGTU). Quand en 1936 le Front Populaire s'impose, la CGT et la CGTU s'unissent. Après la guerre, le contrôle est assumé par les communistes. En 1947, à la suite des polémiques surgies autour du projet de Constitution de de Gaulle, un groupe de militants se sépare et constitue la «Confédération Générale du Travail - Force Ouvrière» (CGT-FO), connue aujourd'hui sous le nom de «Force Ouvrière» (FO).

Le syndicat «Force Ouvrière» est marqué par son anti-communisme et son indépendance vis à vis des Partis. Il préfère la négociation à la lutte. En Euskadi Nord il a surtout de la force dans les entreprises d'Etat (Postes et Télécommunications, EDF-GDF, etc.).

La CGT est fortement contrôlée par les communistes. Elle défend la lutte des classes. Pour elle le problème basque n'est pas politique mais culturel. Elle s'est manifestée contre les extraditions. La CGT de Bayonne ne maintient pas de rapports avec Euskadi Sud, excepté certains cas concrets.

*FEN:* L'origine de la «Fédération d'Education Nationale» est dans le «Syndicat des Instituteurs» (SNI), qui, en 1920, entre à la CGT pour en sortir en 1922. En 1928, sous le nom de «Fédération Générale de l'Enseignement» (FGE), ce syndicat s'ouvre à tous ceux qui sont concernés par le monde de l'enseignement,

même s'ils ne sont pas enseignants. Peu après il devient la FEN. A l'époque du Front Populaire les militants de la première FEN se joignent à eux, mais en 1948 ils décident d'en sortir.

Pendant très longtemps, pour beaucoup d'enseignants, l'appartenance à ce syndicat a été synonyme du fait d'être de gauche et anticlérical. La FEN est pour l'école publique et la nationalisation de l'école privée ou son non financement public.

L'enseignant français a été le pire ennemi de l'euskara. Aujourd'hui l'euskara est enseigné à l'école publique en tant que matière; des écoles bilingues ont été créées dans le but de concurrencer les ikastolak. Officiellement la FEN n'admet que des classes bilingues, mais 1/3 de ses adhérents est pour l'établissement de deux réseaux d'enseignement: l'un bilingue et l'autre seulement en euskara.

La FEN, en tant que syndicat possède une coopérative de commerces, une assurance de voitures, une caisse de sécurité sociale des enseignants, etc.

*CFDT*: En 1919 se constitue la «Confédération Française des Travailleurs Chrétiens» (CFTC), de l'union de travailleurs chrétiens de Lille et de Lyon, qui ne sont pas d'accord avec le socialisme rouge et anticlérical des autres syndicats et s'inspirent de l'encyclique *Rerum Novarum*.

Le mot «Française» du sigle avait pour but d'aller à l'encontre de l'internationalisme. Elle était interclassiste, et soutenait la collaboration entre patrons et ouvriers, mais le cours de l'histoire l'a durcie sur ce point.

Le mot «Chrétiens» du sigle est devenu aussi avec le temps une source de conflit. En 1947, la référence à l'encyclique *Rerum Novarum* est supprimée de ses statuts. Le Congrès de 1960 vote contre le financement de l'enseignement privé. Le Congrès de 1964 change le nom: le mot «Chrétiens» est supprimé et le nom du syndicat devient «Confédération Française Démocratique du Travail» (CFDT).

La majorité de ses membres vote à gauche; ils sont des socialistes autogestionnaires. Elle défend l'indépendance par rapport aux partis et l'incompatibilité des fonctions syndicales et politiques.

Recemment le département a été restructuré et divisé entre Béarn et Pays Basque. C'est le syndicat le plus sensibilisé au problème basque. C'est peut-être la raison pour laquelle la plupart des militants basques en font partie.

*CFTC*: Il s'agit de la minorité en désaccord avec la transformation de la CFDT, lors du Congrès de 1964, et qui a préféré continuer avec sa dénomination originale. A l'époque elle était un syndicat marginal, sauf dans les mines du Nord de la France et dans les écoles chrétiennes. Mais depuis, elle s'est beaucoup renforcée. Elle est considérée comme un syndicat réformiste.

Elle n'a pas de position officielle sur le problème basque parce qu'elle le considère comme un problème politique.

#### *Les syndicats agricoles*

Pour comprendre la vie du Pays Basque Nord il est tout aussi important sinon d'avantage de connaître les syndicats agricoles.

En 1861 est créée la «Société des Agriculteurs Français», qui réunit les grands agriculteurs des alentours de Paris. C'est en 1884 qu'il est légalisé. Mais l'existence de grands et de petits agriculteurs poussera à la création de deux mouvements syndicaux: l'un de droite, qui favorise l'unité des agriculteurs et dont le contrôle est aux mains des notables; l'autre de gauche, qui défend la nécessité de deux syndicats puisque les intérêts des uns et des autres sont opposés.

*FNSEA - CNJA*: La «Fédération Nationale des Syndicats d'Exploitants Agricoles» est née en 1946, avec une idéologie de gauche. Rapidement elle est contrôlée par la droite. En 1956, naît en son sein, et grâce à l'aide du gouvernement, le «Centre National des Jeunes Agriculteurs» (CNJA). C'est en connivence avec ce syndicat que le gouvernement a conduit la politique de modernisation de l'agriculture et de diminution du nombre d'agriculteurs.

En 1959, se constitue, pour contrecarrer cette politique le «Mouvement des Exploitations Familiales» (MODEF), la «Fédération Française de l'Agriculture» (FFA). En 1975, un groupe issu de la FNSEA crée la «Confédération Nationale des Syndicats de Travailleurs Paysans» (CNSTP). Encore en 1981, la «Fédération Nationale des Syndicats Paysans» (FNSP) sera constituée au sein de la FNSEA.

*Au Pays Basque*: Jusqu'à maintenant, en Euskadi Nord c'est aussi la FNSEA qui a dominé. Sa politique de modernisation s'est imposée au prix d'un endettement considérable et du dépeuplement des villages. A cette politique de la FNSEA, qui était aux mains de béarnais, s'est opposé un groupe de jeunes, aberztale pour la plupart. En 1978 ils se sont présentés aux élections, mais leur succès électoral n'a pas eu d'efficacité à cause de l'opposition de la direction à Pau. En 1981 ce groupe s'est dissout. Une majorité s'est organisé sous le nom de «Euskaldun Laborarien Batasuna» (ELB), se fédérant au CNSTP. D'autres sont entrés dans les rangs de la FNSP.

La FNSEA continue à défendre l'unité des petits et des grands agriculteurs et une politique d'aides qui favorise les plus riches. Politique à laquelle s'opposent le ELB et la FNSP qui bien que très proches dans la théorie, s'éloignent quant à la dureté de l'action syndicale. Dans les élections de 1982, tous les deux ont occupé la seconde et troisième places.

ORAIN eta HEMEN

---

GAIAK

---

...HAINBAT ABURU

---

OHARRAK

---



## Estradiziorik ez, eta kitto

«Estradizioen aurkako manifestaldira dei egiten dugu, baina gu erretiratu egingo gara, Alderdiren batek beretzat monopolizatu nahiko balu, konbokatoriakoak ez diren oihuak egingo balira, etab.».

Baina zeren alde egiten dira manifestaldi horiek, edo zeren kontra? Manifestaldiotara joan, jende franko desberdina joango dela pentsa daiteke, pentsatzen dut, esperientzia desberdinekin eta esperientziok desberdinki artikulatzen dituen. Nola eskatuko diogu inori, estradizioak ikusteko eta baloratzeko bere modua isil dezanik, manifestaldira horregatixe baldin badao? Eta zer axola dio? Gobernadore Zibilen logika da hori: «halako manifestaldi ez dugu baimentzen, beste halako edo halako oihuak egin daitezkeelako».

Filosofoak, aldiz, Etikako maisuak, estradizioen aurka egon arren, Munduko Herri eta Nazioei Gutuna ez zaio egokia iruditu, eta ezin izan du *El Pais*-eko bere protesta beste egun batearako utzi. Agian, estradizioen aurka benetan egonez gero, efikazena horixe dela, usteko zuen, altruistena eta pertsegituekin solidarioena batez ere.

Protagonistak ez al ziren giza eskubide batzu? Protagonista bakarrak?

Beti berdin gabilta. XVIII. mendeko liberal burges bat lotsatu egingo litzateke, gaurko liberal eta demokratek edozein giza eskubide zein erraz sakrifikatzen dioten, ikusiko balu, aitzakiatxo estetiko bati. Liberal «burgesak», hain superatuta daukagunak, oraindik printzipio sakratu batzu bazeuzkan eta borrokarako ere prest egoten zen, behar izanez gero eta behar

zen lekuan. Gaur, ordea, geure gustokoak ez diren oihu batzu edo gutuneko esaldiren bat nahikoa arrazoi dira, giza eskubideen alde zertxobait egiteari ere («ni kontra nago, baina») zaputz egiteko.

Estradiziorik ez, eta kitto. Horren kontra eginahalak egitea tokatzen da orain. Gure beste diferentziak eztabaidatuko ditugu bihar.

Estradizioen alde eta estradizioen kontra egon liteke. Baina kontra bagaude, zinez kontra, zenbait akats posiblek ez dio deus axola. Ez da estetika-kontua. Estraditutua izateko arriskuan dagoenarena da, balio duen perspektiba bakarra. Beste askorekin elkartuta egin behar dena ez zaiola gustatzen eta, egiteari uzten dionak, izango du mila arrazoi handi, baina eskaintza miserable hauxe du azken finean: ezer ez duela egin. Ez zaizkigu interesatzen horren arrazoiak. ■ G. Noss.

## «La Voz de Euskadi» kinka larrian

«Crónica de una muerte anunciada» idatz dezake norbaitek, hainbeste aldiz iragarri bait da egunkari honen heriotza. Heriotza hori ez da gertatu orain artean. Badirudi, ordea, oraingoa ez dabilela urruti. Izan ere, egun pare bat kalera gabe egon ondoan, urriaren 30ean periodikoak berak agertu zuen oharrak ez du gauza onik adierazten, gaitz serioren bat salatzen du inondik ere. Egunkariak berak egin diagnostikoa ezin txarragoa da: finantziazio-falta eta errekurtsorik eza. Aspirinak sendatzeko moduko gaitza ez da.

Ekonomikoa da, beraz, arazoa. Baina goragoko arazo eta arazoiren ondorio omen da. Egunkariari sinestekotan, hona: «el veto impuesto por un partido político vencedor en las pasadas elecciones legislativas». Izan ere, «los socialistas apuestan por el control de los medios de información de la misma manera que los franquistas imposibilitaban el nacimiento de una prensa hostil a sus proclamas autoritarias». Betoa eta kontrola.

Analisi honekin bat nator osoki. Ondorioa ere begien bistakoa da eta, zoritxarrez, berriro ere orain frogatua, alegia, prentsaren independentzia utopia dela kondizio hauetan. Talde politiko eta ekonomikoetatik aske lan egitea zen *La Voz*-en apustua. Urte t'erdiren buruan porrota aitortu beharrean aurki-

tzen da. Ez bide du independentzian irauterik. Pena da. Ongi etorria opatzerakoan idatzia berrirakurri dut orain: independentzian ikusten nuen Akileren orpoa. Bai gertatu ere!

*La Voz*-en krisiaren edo iragarritako heriotzaren irakurketa-rik jatorrena seguruenik hauxe da: irakurketa politiko-ekonomikoa. Baina ez dela osoa eta bakarra iruditzen zait. *La Voz*-ek ez du bere publikoa sortu eta mantendu. Auzia, horrela, ez da aginte publikoaren laguntza soilez konpontzekoa, agian. *La Voz*-ek ez du jakin bere barrutia egiten, inguruko egunkariei irakurleak kentzen, irakurle berriak lortzen, bere leku berezi eta propioa ezartzen. Ez du jakin edo ezin izan du.

*La Voz*-en krisiaren diagnostikoan beste aldagai asko dagoela azpimarratu nahi dut, ez besterik. Arazo politikoak ziur badirela. Baina arazo periodistikoak ere bai, nola ez.

Baina kasu! *La Voz* ez da oraino hil. Bizi-aztarnarik dueino utsi diezaiogun esperantzari, gaitzaren larritasunak sendaezina badirudi ere. ■ *Joan Altzibar*.

## AEB eta Nikaragua: bi hauteskunde-mota

AEBak dira liberalismoaren eta teknologiaren inperioa; horiekin liluraturik dabilenak hara jotzen du. Nikaragua da herri-iraultzaren eta eskulanaren lurraldea: hainbat lagun hurbildu da urte hauetan Nikaraguara herrien askapen-esperantza edatera, borroka bizitzera eta bere eskuen laguntza eskaintzera.

Bi eredu eta bi irudi: nabarmen gelditu dira azaroaren hasierako hauteskundeetan. Bi egunen aldeaz ospatu dira: 4ean Nikaraguan; 6an AEBetan. Nork ez du bien arteko konparazioa egin? AEB: 233 milioi biztanle (174 milioi botuemaile); Nikaragua: 2.300.000 biztanle (1.700.000 botuemaile). Ehunetik baterako aldea. AEBetan 330.000 milioi pezeta gastatu dira hauteskundeetarako kanpainan; Nikaraguako kanpaina zuhurra izan da benetan gastuetan. Gaur, asteazkena, badakizkigu atzo AEBetan egindako hauteskundeek eman dituzten ondorioak, bertako potentzia elektronikoa dela bitarteko; Nikaraguan igandean ospaturiko hauteskundeen ondorioak, ordea, ez ditugu oraindik beren osotasunean ezagutzen. Nork ez ditu alderatu alde bateko aparatutzar elektronikoak, egunkarietan agertu den Nikaraguako ministraritzaren arbeltzarrarekin, non gizon



batek idazten bait ditu eskuz eta eskailera batera igota, hauteskunderen ondorioak?

Bazirudien, iparraldeko elefanteak irribarre batez gutxietsiko zuela hegoaldeko xaguaren jolasa. Baina bai zera! Nikaraguako iraultzaren ondoko lehen hauteskundeak boikotatu eta sabotatu nahi izan ditu aurrenik; eta ondoren, barregarrizat, gezurrezkotzat eta kaltegarritzat jo dituzte iparraldeko agintariek.

Hemen hasten da, ordea, konparazioaren bigarren partea. Nikaragua herri bizia agertu da iraultza egiteko, eta iraultza hori demokrazia pluralista gisa instituzionaltzeko, etsai handien gerra eta sabotaien artean. % 82 joan dira botua ematera, iparraldetik organizatu eta ezarri nahi izan zaion boikota eta guztiaien kontra. AEBek aspaldi egin zuten beren iraultza; eta orain demokrazia liberal erraldoi nekatu eta higatua agertzen da. Inor ez da hango hauteskundeak sabotatzen saiatu; eta bi lehendakarigai nagusienak ahalegindu dira hautesleak botua ematera bultzatzen; baina % 40tik gora etxean gelditu dira. Zertarako botua eman? Indar ekonomiko eta finantzario handiek ipinitako bi makina handien arteko borroka besterik ez da AEBetako Alderdi demokrataren eta Alderdi errepublikanoaren artekoa. Biak alderdi bakarra azkenean: «Partido de la Propiedad» deitu ditu Noam Chomsky-k. Ez dago ia alderik bien artean; eta milioika pobreek ez dute inolako interesik horien artean ezer aukeratzeko. Coca-Colarekin eta Pepsi-Colarekin berdindu ditu besteren batek bi Alderdiak.

Diru- eta teknologi aparatua handien hauteskundeak izan dira AEBetakoak; pobreen organizazio eta mobilizazioarenak Nikaraguakoak.

Zer gertatuko da bi hauteskunderen ondoren? Reagan-en gizonak Nikaraguako hauteskundeak deskalifikatuz hasi dira; ondoren, iparraldeko inbasioaren beldur dira asko. Agian bere garaipen handian oinarrituko du Reagan-ek horretarako arrazoiak. Ortegak, Nikaraguako lehendakari berriak, hautabehar bat jarri dio iparraldekoari: negoziazioa ala inbasioa... Orain arteko zirikatze- eta «desgaste»-politikak berea eman du, Nikaraguako herriak iraultzaren prozesua berretsi eta demokrazia pluralista gisa instituzionaldu duenetik: porrot egin du Reagan-en orain arteko politikak. Bi aukera ditu orain: Nikaraguako egoera berria onartu eta benetako negoziatiotan sartu ala indar militarrez hegoaldeko herri txikia inbaditu.

Hartzaren chiztari bezala agertu du bere burua Reagan-ek hauteskunde-kanpainan. SESB da nonbait hartza. Lau urte ditu hori menperatzeko, ahal baldin badu. Bi hartzen arteko borroka da seguruenik.

Gure gogo eta eskea beste hau da: datozen lau urteotan Reagan-ek Nikaragua ardiarentzat otso izateari utzi diezaiola. Eta Nikaraguako indar politiko ezberdinen arteko elkarriketa onartu eta euskarritu dezala, pobreen demokrazia berria normalduz joateko eta Herri librea aniztasunean eta bakean eraikitzeko. Amets hutsa? Herri bizi baten erresistentzian oinarritzen dugun esperantza. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

## Torturaren kontua berriz ere

Amnestyren informarekin berriro agertu da: Espainian torturatu egiten da. Bagenekien, denok ondo genekien, eta komeria tonto bat ematen du, hemen mundu guztiak Amnestyk Londonen urrutitik baino askoz lehenago, gehiago eta hobeto badakiguna, «notizia» bihurtuta ikusteak, Amnestyk esan duelako. Horrelaxe funtzionatzen da prentsan eta politikan. Iturri hobe eta sinesgarriagoa da nonbait Londongo bulego bat, «neutrala» edo omen dena, bertoko hainbat jenderen eguneroko esperientzia eta salaketak baino.

Torturaren informazio-iturriak, ordea, ez dauka «neutrala» izaterik. Torturatua bera bakarrik izan daiteke iturria, Amnestyk berak ez dauka beste ituririk, eta iturri hori hemen baldin badago, zergatik Herriaren Defendariak, prentsak, politikoez ez dute bilatzen dagoen tokian?

Arazo hauetan, esan beharra dago, «neutralitatean» oinarritu eta fidatu nahi izaten duena, objektiboa izateko itxuraren azpian, hipokrita bat dela.

Mila esker Amnestyri. Baina, nahiz alfer-alferrik izan, aldizkari honetatik berriro salatu beharrean gaude: torturaren arazolari hipokrisia hutsezko tratamendurik lotsagarriena ematen zaio aspaldian, demokrazia honetan, Barne Ministraritzatik prentsaraino, eta euskal jendea bera hasita dago, tratamendu «ofizial» hipokrita horren antzera erreakzionatzen. ■ *Joxe A. Otaegi.*

## E. Amezaga: Autores Vascos

Eguneroko prentsatik jakin ahal izan dugunez, Elias Amezaga idazle euskotarren bibliografia luze, ahalik oso, bat publi-

katzera doa hamabi liburukitan, hamabi mila idazle ingururen bibliografia hain zuzen. Lehenengo liburukia laster izango omen dugu kalean. Gertakari fenomenal honek merezi du aberentzia bat egitea gure irakurleei eta gure herriaren historia kulturalaz interesatzen diren guztiei. Izan ere, ikerketa-hutsune ikaragarria dago barruti honetan, azken urteotako historigintza sozial, politiko, erlijioso, literarioen lorapenak ere apenas landu bait digu alor hori.

Eta ez da harritzekoa: egiteko zaila da, lan gogorra, gozoga-bea. Egiaz, ekipoan egitekoa, behar diren laguntzekin eta programekin. Bere kasa noizpait zerbait ahalegindu denak, laster ikusi eta ikasi izan du, itsaso horretara ausartzeko erraldoiaren indarrak behar zirela eta San Benitoren beraren pazientzia, mugagabeen ez itozteko. Ikerketa historikoak, bada, nahiago izan du lehorrean geratu, horrelako lanetan enbarkatu gabe.

Baina, zer pentsatzen zuten euskaldunek XVI. mendean? Zeintzu ziren XVII. mendean Euskal Herriko ideologiak?... Horrelako galderei erantzunak eman eta eman ibili ohi gara, oraindik oinarri minimorik ere eduki ez arren erantzun ahal izateko, orduko euskotarrek zer idatzi zuten tutik jakin gabe, esaterako. Eta aitortu beharra dago, idazle gehienak elizgizonak izaten zirenean, elizgizonak ordea Espainian eta Ameriketara zehar sakabanaturik ibiltzen zirenean, baina berdintsu zebiltzanean idazkariak, eskribauak eta kronistak ere, oso zaila dela jakitea zer den euskotarrek han-hemen produziturikoa.

Zaila, hasteko, euskotartzat zein hartu erabakitzea bera gertatzen da. Euskotarra al da Alontso Orozkoarra, mistikoetan klasikoa, kasualitatez aita-ama bizkaitarrak hantxe suertatu zirelako Toledoko Oropesan mundura etorria? Euskotarragoa ote da Juan Manuel Fz. de Pacheco, Markes Villenakoa, Gaztelaniaren Hizkuntz Akademiaren fundatzailea, beste kasualitate bategatik Nafarroako Martzillan jaino zelako? Zer dira Alontso Erzillakoa, madrildarra, edo Lardizabal ilustratua, Tlaxcalan jainoa; Joan Zelaia, Parisen filosofi irakaslea, Valencian sortua; Joan Artze Otorakoa, Valladolidekoa, eta Bañez Artazubiagakoa, Valladolidekoa orobat, baina bere burua espreski «mondragonensis»tzat zeukana? Eta Aita Vitoria burgalesa; Cadalso, Cadizkoa; Iriarte, kanariarra... Henaori ba/ez ote zaito euskotarren bibliografia batetan egotea tokatzen? Komeriak dira, baina ez dira komeriarik zailenak.

Elias Amezagari lehendik ere lan bibliografiko guztiz balio-tsua zor dizkiogu: *1.000 Años con Fueros y 100 sin*, 1976; *Los vascos que escribieron en castellano*, 1977. Oraingoan, ordea, hasikin horietan dastatzera eman ziguna, oturuntza bikain bat bihurtu digu, 250.000 titulu eta gehiagorekin, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz idatzi den produkzio euskotarraren berri

emanez (prentsaren arabera: baina gutxienez latinezkoak ere bildu dituela, espero dugu). Ikertzaileek adina zale hutsek euskal kulturaren behar-beharra zuten tresna paregabea.

Euskaldunek —«hitzetan motz, egintzetan luze»— gutxi idatzi dutela, esan ohi genuen. Geure moztadearen kontsolagarri edo (gure ezjakinarena gehiago bazen ere), esplikazio bat ere asmatu genuen, «euskaldunek egin egiten zutela, idaztea beste-  
rentzat utzirik» esanez. Egia esateko, aitzakia zahar eta txar topiko hori bera koptatu egiten genuen, agian koptatzen ari ginenik ere jakin gabe gainera. «Atheniensium res gestae, sicuti aestumo, idatzi zuen *Coniuratio Catilinae* baitan (zenb. 8) Salustiok, satis amplae magnificaeque fuere, uerum aliquanto minores tamen quam fama feruntur. Sed quia prouenere ibis scriptorum magna ingenia, per terrarum orbem Atheniensium facta pro maxumis celebrantur. Ita eorum qui fecere uirtus tanta habetur, quantum eam uerbis potuere extollere praeclara ingenia. At populo Romano numquam ea copia fuit, quia prudentissimus quisque maxime negotiosus erat: ingenium nemo sine corpore exercebat; optumus quisque facere quam dicere, sua ab aliis benefacta laudari quam ipse aliorum narrare malebat». Eta kontent gu ere, erromatar barbaroak bezala, gutxiagotasun-konplexutik harrokeriarako indarrak atereaz.

XVI. eta XVII. mendeetan Iparralde aberatsa letretan eman-  
kor, Hegoalde txiroa berriz antzu, izan balira bezala mintzatzen ginen orobat, euskal literaturaren hastapenen esplikazio ekonomiko aski sinple batez. Ikusiko da, Hegoaldea emankortasunean Iparraldeari ez zebilkiola inolá ere atzetik mende horietan. Baina Iparraldeak Frantziako gizartean ez bezalako leku pribilejiatua irabazi zuela Espainietako Koroaren azpian eta Inperioan hegoaldeko euskotar jendeak, eta horien emankortasun oparoa erdaraz isuri zela. «Burlatzen naiz Garibayez» hura argi berritan agertuko zaigu.

Laguntza handia ezezik, sorpresa galanta izango dugula, ez dut zalantzarik egiten, Amezagaren bibliografia. Geure historia galduaren berreskuratze-lan nekagarrian apenas burura nezake lan txalo- eta eskergarriagorik. Lerro hauek ezin besterik opa liezaioke, argitalpen egoki batetarako eta zabalkunderako behar ditzakeen laguntasun guztiak baino, bai haren lanaren handiari eta bai Euskal Herriaren onari zor zaion moduan.

Ez nuke, halere, aipatu gabe utzi nahi beste puntu bat: euskotar autoreon obrak Euskal Herrira ekarri eta bildu beharra. XII. mendean, Unibertsitateak Europan gora hasi ziren puntuan hain zuzen, Parisen irakasle nafar bat egon zen, Artaxonako semea, *Tractatus* baten autorea: baina haren obra gaur Salamancako eskuizkribuen artxiboan gordetzen da. A. Sagües-ek Pedro Atarrabiakoaren eskuizkribuak Trovesen, Oxforden,

Vatikanon aurkitu ditu. Non dago XVI. mendean Salamancako Unibertsitatean logika nominalistaren irakaskuntza abiatu zuen Pedro Donibane Garazikoaren *Expositio*-a? Hiru nafar bakarrik aipatzeko. Eta zenbat gehiago dago Valladolideko, Salamancako artxiboetan? Beltrán de Heredia edo Malaxechevarria irakurri, eta hotzikara ematen du.

Baina hori ere plan bat eta ekipo bat eskatzen duen egitekoa izango litzateke. Hain zuzen, Elías Amezagak egin duen lan pozgarriak eskatzen duen jarraipena. ■ *Joxe Azurmendi*.

## Damua eta bonbak

«Jauna, jauna esaten duen oro ez da zeruetako erreinuan sartuko». Ezta ere «damutu naiz», «biolentziari uko egiten diot» aldarrikatzen duen orok ez du besterik gabe gizartean sartzerik izango. Obrak behar dira, obrak. Hauek erakusten bait dute damuaren egiazkotasuna. Gainera, zertan bekatu egin, hartan behar da damua erakutsi. Hauxe da CPko José Segura Sanfeliú katalanak Espainiako Kongresuko mahaian aurkeztu duena, zera proposatzerakoan: ETAK jarritako lehergailuak desaktibatzeraz goardiazibilek barik ETAKo «damutuek» edo gizartean berrintegratzea eskatu dutenek joan beharko luketela. Zergatik eta zertarako? Bistan da: Horretarako abildadeak erakutsiak dituztelako eta goardiazibilen bizitzak salbatzeagatik ez, edo horregatik bakarrik ez, baizik —eta batez ere— beren damua zintzoa eta osoa dela erakusteko. Obragabeko fedea hutsa da, izan ere. ■ *Joan Larrinaga*.

## 300.000 lagunen Ibilaldi nagusia

Urriaren 20an Bilbon egin zen estradizioen aurkako manifestaldia ikusgarria izan zen; aspaldiko urteotan Euskal Herrian egin den handienatzat jo dute gehienek. Zenbakitan bakoitzak bota ditu bereak: 20 mila, 30 mila, 60 mila, ehundaka mila...

Bigarren zifrarekin geldituko gara: 30.000 lagun. Handia kopurua? Txikia? Nork bere baikortasunaren ala ezezkortasunaren arabera balioztatu du. Nire ustez, Bilboko manifestaldiaren balioa ez zegoen bi ordu t'erditan kalean bere haserrearek, eskabideak eta esperantzak ipini zituen jendetza harengan soilik; haren atzetik zeuden 300.000 sinatzaileek eman zioten benetako indarra Bilboko manifestaldiari.

Badakit, 300.000 horiek denak ez zeudela seguruenik ados Bilboko kaleetan jaulki eta jaurti ziren oihu, garrasi eta kantuekin. Baina funtsean, oihu batek bateratzen zituen denak: Estradiziorik ez! Horregatik bidezkoa iruditzen zait 30.000 lagun haiek 10ekin biderkatzea; eta 300.000ko kopurua ateratzen zait. Horrexegatik manifestaldi ezberdina izan zen hura, nahiz eta itxuraz beste hainbat bezalakoa iduri, horietakotan behin baino gehiagotan eskuhartu dugunontzat.

Oraingo honetan ezingo dugu hainbeste sinaduraren biltzeak eta horren inguruan indarberritu den herri-jarkierazko mugimenduak erakusten duten fenomenoak sakonetik analisatu. Hala ere, gogoeta txiki bat utzi nahi dut orrialde hauetan, Bilboko «Ibilaldi nagusia»ri buruzkoa.

Ibilalditan trebatua dago Euskal Herria, «Askatasunaren Ibilaldia» handi hartatik hasita. Geroztik, Gipuzkoako «Kilometroak», «Nafarroa oinez», «Araba euskaraz», Iparraldeko «Herri urratsez», Bizkaiko «Ibilaldia» urterokoa, eta Euskal Herriko «Korrika», beste hainbaten artean; orain, berriz, «Ibilaldi nagusia»...

... Edo «La gran marcha», esango litzateke, urrutiko beste hura gogoratu. Batzurentzat gogozkoak izango dira haren oihartzun historikoak; beste batzurentzat gorrotozkoak, agian. Edonorentzat irudi bat ematen digu, Herri baten jarkiera-mugimendu luzea ulertzeko.

Bi hilabetetan zehar sinadurak biltzen egindako lanaren eta horren inguruan sorturiko mobilizazioaren burutzea besterik ez zen izan batzurentzat Bilboko manifestaldia. Nire ustez, bidegintza luze baten hasiera izan zen batez ere: Ibilaldi nagusia, La gran marcha. Orain hasi, edo berritu besterik ez da egin Herri honen askapenerako ibilaldi luzea. Zenbait urtetan banaturik —sakabanaturik— eta bidean erdi-galdurik ibili ondoren, berriro aspaldidaniko bide hura aurkitu dugula dirudi, herriaren basetik hasita, eta hainbat indar herritar bide horretara biltzea lortu dela. Azken urteotako hainbat euskaldunen liluragabeteak eta etsipenak eta beste askoren ametsak bide berberera eramán gaitu, Herri honen etsaien mila eratako erasoek eraginda: oraingoan estradizioek.

Baina hor daude beste mila zio eta bultzagarri, jarkierazko

mugimendu herritarrean organizatzera eta koordinatzera eraman dezaketenak Herri hau: atxiloketa basatiak, torturak, autodeterminatzeko eta beste hainbat eskubide gizatar, politiko eta nazionalen ukatzeak, euskararen menperakuntza etengabeak eta aldian aldiko erasoak. Guztiak dira Herri eta gizarte honek bere askatasun-bidean gaingitu behar dituen oztopoak.

Ibilaldi luze horren hasiera berri bat izan zen Bilboko ibilaldi nagusia: 30.000 manifestatzaile kalean... 300.000 sinatzaile atzetik bultzaka... 3.000.000 euskaldun bidegintza luzerako. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

## «La Tarde de Euskal-Herria» egunkaria hil

Zaratarik gabe jaio zen, irailaren 13an, eta halaxe hil da, zaratarik batere gabe. Imposak ateratzen zuen, *La Voz de Euskadi*-ren enpresa berak.

*La Voz* inoiz desagertzen bada, pena handia hartuko dut, bai horixe. Ez, aldiz, *La Tarde* hil denean. Nola hori?, galde dezake norbaitek. Esprikaeraza oso: *La Tarde*-ren atzean egitasmo serioerik zegoenik ez zait iruditzen. Inprobisaziotik asko zuela-koan nago. Heldu eta umotu gabeko projektua zen niretzat. «Globo sonda» bat zirudien. Funtzionatu egiten zuela? Oso ondo. Ezetz? Bost axola. *La Voz*-en larrialdiak ezagututa, honen alternatiba posible gisa pentsatua ematen zuen, eta ez bere horretan pentsatua eta aztertua. *La Tarde*, nire ustetan, ez da egiazko apustu serioa izan sekula. Airean egindako eupada bat zen. Txilibituak soinuak egin ez duenez, itxi egiten da arratsaldetaria, eta kitto. Ez da ezer pasa.

Horixe da egia: ez da ezer pasa. Ez jaiotzean, eta ez hiltzean. *La Tarde*, produktu informatibo bezala, ez zen beste mundukoa. Formula arinegia, hutsegia. Eskasa zen. Bi aldiz pentsatu behar zen haren truke 40 pezeta eman aurretik. Garestiegi dago bizimodua luxu horietarako. ■ *Joan Altzibar.*

## «Antiterrorismo militante»

«Grupo 16» delakoak antolatutako «Violencia política y terrorismo» izenez ihardunaldi batzu ospatu dira Madril en urria-

ren 25, 26 eta 27an. Zer esanik franko eman duten Euskal Herrian. Eta ez motiborik gabe. Esan beharra dago, gertatuak gertatuta ere, oraino harritzekoa ere badela M. Onaindia, Goiburua, López Castillo, Joseba Elósegi, Barrionuevo, Rosón, Martín Villa konpainia ederrean ikustea. Nahiz eta zenbait terrorista-ohi eta antiterrorista militante gure gaztaroko abestiak zioen bezala «eskuak eskutan, begiak begitan» ikusteak apenas harritzen gaituen. Maiztasunak eta ohiturak harridura bera ere hil egiten bait du. Oraingoan gauza batek harritu gaitu, halere: testuinguruari horren erraz muzin egiteak. Testuingurua, hots, estradizioak, torturak, detentzioak.

Ihardunaldiotako gai bat «terrorismo y comunicación» izan zen. Han esandakoak ez du gurean halako oihartzunik izan. Pena da, ez bait da muntagabekoa.

Puntutxo bat bakarrik aipatuko dut. «Grupo 16» horren lehendakari den Juan Tomás Salas-en proposamenaz ari naiz. Kazetaritzaren «antiterrorismo militante» proposatu zuen hitzez-hitz. Bi jarrera posible ikusten zituen terrorismoaren aurrean: erabat isiltzea edota borrokatzea. Bigarrena da jatorra: «tratamiento de choque». Honela zehazten du tratamendu hori: «aniquilar la imagen y el prestigio de los terroristas; destruir su coartada ideológica, plantar cara y disminuir la intensidad del mensaje terrorista. (...) Es necesario dinamitar los argumentos de los terroristas, poner en evidencia su cobardía, sus coartadas y las complicidades que los rodean».

Hona «antiterrorismo militante»a. Nola konkretatzen eta praktikatzen den ez bageneki, ez ginateke hainbeste kezkatuko. Salas-en hizkeraren biolentziak bakarrik ez gaitu kezkatzen. Baina «Grupo 16» horren jokaera ezaguturik... «Terrorismoa» zeri deitzen dioten jakinik... «Plan ZEN» horren edukina eta jomuga aztertutik... nola ez kezka, nola ez ikus arriskutan prentsaren independentzia, egitekoa? Ezaguna zaigu Espainiako prentsaren objektibotasuna, askatasuna, baretasuna, Euskal Herriaz ari delarik, eta, areago, hemengo borrokaz. Antieuskaldunismoa eta antiterrorismoa iada martxan daude. Salas-ek berak ere martxan jarri du aspaldidanik. Agintearenganako menpetasuna, kritikarik eza, militantismo honen bestekaldea da.

Prentsaren tradizioarik jatorrenean egia, objektibotasuna dira helburu; eta informazioa, izpiritu kritikoa, gidari. Bigarrenik gabe intoxikazio, manipulazio, propaganda bilakatzen da lehena. «Antiterrorismo militante» horrek, bigarrenean huts egiten du eta, ezin du lehen objektiboa lortu, ezin du. Kasu bat, kasu argigarri bat. Gure herriko arazorik labankor eta istilutsuenetan, informatzaile zein izango, eta polizia da, bera tarteko izanik. Eta informazio hori, kritikarik gabe, informazio kontrastaturik gabe, hartu, onartu, zabaldu eta aldarrikatu egiten



da. Hor dago, niretzat, prentsaren morrontzaren seinale argi bat.

J.T. Salas jaunak proposatu duen «antiterrorismo militante» hori biziki ongi ezkontzen da Plan ZEN delakoan prentsaren bidez lortu nahi denarekin. Prentsarako jokabide- eta kontsigna-pila dago han. Benetan irakurgarria ZEN horren boskarren kapitulua: «Acción psicológica».

Prentsaren agintearrekiko morrontza honek betiko zulotik ez garela irten erakusten du. Frankismoaren garaiko «consignas» eta «notas de inserción obligatoria» haietatik gaurko jokabidera jauzi koalatiborik ez dagoela esango nuke ia-ia. Hain berdinak dira ondorioak... «Notas policiales» horiek orain ez direla obligaziozkoak? Eta zer axola dio, izpiritu berarekin hartzen baditugu? «Antiterrorismo militante» horrek jokabide hori proposatzen du, azken batean. 1940 inguruan, pentsaera ofiziala ispilatuz, M. Prados y López jaunak idatziriko testu honek gaur indarrean dagoela ematen du:

«Todos los periódicos de España obedecen ya a las mismas consignas, al mismo desvelo de la jerarquía, al mismo plan renovador y educativo. La consigna es para los periódicos luz en el horizonte, señal de seguridad, guía oportuna. La consigna única también salvando a todos del peligro del error. La censura de ahora no está inspirada por un criterio particular más o menos respetable, sino por el interés de España. Luego la Prensa española es hoy más libre que nunca (...) ■Joan Altzibar.

## Nikaragua: eskualde-gatazka

Sarritan, Nikaraguaz ezker ikuspegi batetik mintzatzean, Inperialismoak hedaturiko gezur-tipoen kontra-eraginez edo, oso eskema sinpleetan oinarriturik aritzen gara, zeinek, hango errealtateari hurbiltzeko baliagarri izanik ere, karikatura bihurtu eta sinesgarritasuna galtzeko arrisku nabarmena bait dakarte.

Horietako eskema-tipo bat izaten da Dabid txikia, Nikaraguako herri ausartak errepresentaturik, Goliath tartaloaren aurrean, Somoza eta Osaba Sam-engan pertsonifikaturik. Irudiak badu irakaspenik, baina ez dakigu nondik sortu den Dabid, edo zergatik, nola, bihurtu den ausart; ez digu aztarrenik ere ematen

jakiteko zer gertatzen den haren anaiekin (edo lehengusu, edo urrutiko ahaide?) El Salvador, Honduras eta abarrekin, alegia.

Ertzun dugu kontatzen ere zer-nolako sari ederrak irabazi dituen Nikaraguako herri zintzoak ongi portatu eta iraultza egin duelako: eskolak, osasuna, lurak, janariak, askatasuna... baina ezer ulertzeke segitzen dugu zergatik ukatu ote zaizkion horrelako gauza oinarritzkoak, edo zergatik eragotzi nahi ote zaien hango herriei beren bizimodua bere kasa antolatzeko eskubidea.

Lerro labur hauetan, berriro ere eskematismoan erortzeko periletan, gaurko Nikaraguar historia marko geopolitiko baten barruan kokatzen saiatuko gara, beraz krisi erregionala izanik, eta ondoren, Nikaraguak hautatu bidea, eremu haietako zatekeen aukera erreala bakarra, eta, beraz, eredugarria dela demostratzeko ahaleginak egingo ditugu.

Lehendabizi, garbi dezagun erregio kontzeptua, esanez ez dugula hemen onartzen USAko dotrinak «Caribbean Basin» izenez ezagutzen duen Mexikotik Surinamerainoko estatu handi eta txikien multzoa, baizik eta, Ertamerika eta Karibeko nazio txikiak, eta hertsikiago, istmokoak, hau da, Iparretik Hegoa, Guatemala, Belize, Honduras, El Salvador, Nikaragua, Costa Rica eta Panama. Guztira, 24 milioi biztanle, 2,03 milioi-tik 7,5 milioira biztanledun estatutan (Belize izan ezik) banaturik.

Ertamerika erregioan Estatu Batuek errealtate omnipresentea direnez, azter dezagun lehendabizi presentzia horren zergatia, eta, pentsatu ohi denaren kontra berehala ikus dezakegu USAren interes direktoak oso urriak direla. Erregioarekiko sal-erosketa guztiak, Estatu Batuek Latin Amerikarekin daukanaren % 2 besterik ez bait da. Gainera, ehuneko hori aspaldi honetan, krisi ekonomikoa, gerrak, langabezia eta beste zenbait faktore direla, gutxituz doa. Urtetik urtera mozkin txikiagoa uzten diete «errepublika bananazaleek» Ipar Amerikar enpresei.

Dena den, direktoak ez diren interesak handiagoak dira, USAren ekonomi zirkulazioan, Panamako kanala, nabigazio-bideak, itsas-portu frankoak... garrantzizkoak direnez. Hala ere, ez dago ekonomi mailan Estatu Batuen erregioarekiko jokatibidearen gakoa.

Gakoa, interes estratejiko-militarretan datza; izan ere, USAko estratejilariek «laugarren mugaldea» izendaturiko erregio honetan (Istmoa eta Karibea), 1982ko aurrekontu militar osoaren % 15 gastatu zuen Ipar Amerikak, 14 base, flota eta gainerakoak mantentzen.

Beraz, historikoki Estatu Batuek beren «atzeko patio»tzat (*Back yard*) jo duten eremu horrek, banaezinezko hegemoni

aldea osatzen du. Zerbaitegatik izan da historian zehar USAko armadaren eskuhartze zuzen gehien ezagutu duen munduko zona.

Estatu Batuen ikuspegi geopolitiko horren ondorioz, haren hegemoniari itzala egin diezaiokeen edozein politika, eta bereziki, zonako estatuen subiranotasunaren aldera jotzen duena, suntsitu egin behar da.

Hortik, Guatemalak (1954), Kubak (1959), Panamak (1964), Dominikar Errepublikak (1965), Nikaraguak (1979), Grenadak (1983), eta gaur El Salvadorrek, Guatemalak eta Nikaraguak berak egindako ahaleginak, Estatu Batuen ikuspegi inperialarekin topo egin izana. Dakigunez, Kuba eta Nikaragua izan dira oraingoz inperioak jasandako pitzadura bakarrak.

Ikuspegi horren barruan, «inperio informal» hori onartuz sortu eta garatu dira Ertamerikako eta Karibeko klase gainartzaileak, zeinek ez bait dute ahalik eta nahirik ere izan benetako burgesia nazional bilakatzeko.

«Enbaxadoreen, jeneralen, merkatarien eta errentisten inperialismoak» burgesia bizkarroia eta kemenik gabekoa osatu du. Kafea, banana, kotoia, azukrea eta beste bizpahiru produkturen esportaziotik sortutako kapitala, luxu ostentagarri eta probokatzailan finkatutako bizimodua mantentzeko erabili duen burgesia horrek, ez du inbertsio funtsezkorik egin, merkataritzan, espekulazioan eta kapital-ihesean jokatu baizik. Zer esanik ez, Estatu Batuen morrontzan izan duten botere politikoa ez dute, kasu berezi batzu salbu, beren estatuen subiranotasuna defendatzen erabili, eta, batazbeste, haien dominazio politikoak oinarri sozialik ez zuenez, zapalkuntza eta askatasun-eza izan dira erregeko politikaren ezaugarriak.

Hain lerro gutxitan adierazi beharrak, herriz-herri gertatutakoa eta oraingo estrukturak azaltzea galerazten digun arren, esan dezagun benetan harrigarria dela Istmoko herrien artean, batez ere, baina baita Karibeko nazioen artean ere, eta guztien artean, dauden berdintasun estruktural eta historikoak. Nekez aurki daiteke munduan zehar horrelako homogenotasunik duen beste erregiorik.

Eta nekez ere aurkituko dugu hemen bezain garbi demokrazia politikoa, herri-masen bizimoduaren hobekuntza eta nazio-subiranotasuna lortzeko ezintasun estrukturala, bide batez, ikuspegi geopolitiko inperial hori suntsitu beharra, demokrazia, ekitate, egonkortasun soziala eta bakerako egitura-baldintzak finkatzen hasteko.

Testuinguru honetan, Nikaraguako prozesuak neurtezinezko eredu-balioa du erregioarentzat. Somoztarren diktadurak zituenean ezaugarri karikatuzkoen gainetik, ikusi dugunez, oro

har, erregioko nazio guztien antzeko egoera jasaten zuen Nikaraguak. Horregatik, iraultza demokratiko bat ezin zitekeen gera diktadura erazteaz.

Ezinbestekoa zen aurreko sistemaren armada eta Estatu-aparatu desagitea eta goitik behera berria muntatzea sandinistek egin zuten bezala. Herritarren bizimoduaren hobekuntza Nikaraguan ez da etorri kanpoko finantza-iturrien eraginez edota kapitalaren akumulazio-prozesu luze bezain inprobabletik, baizik eta herri-masen ekintza konziente eta sutsuaren eskutik: ehundaka mila gazte mobilizaturik alfabetatze-kanpainan, osasun-kanpainetan, produkzioan, beste erara funtziona dezakeen gizartearen oinarriak finkatzen hasi dira.

Oligarken ondasunak herriratzeak eta sektore publiko handi bat ekonomian martxan jartzeak adierazten duena ahanzi gabe, alor politikora mugatuz, zapalkuntza, arbitrarietatea eta errepresioa guztiz nagusi ziren egoeratik libertate politikoak modu eredugarrian errespetatzen diren egoerara pasa da Nikaragua. Azken hauteskundeek bertako herritarrei baino gehiago, be-rauek egunero zilegiztatzten bait zuten prozesua beren odola eta izerdia emanetz, mundu guztiari adierazi diote iraultzak herriaren konfidantza zabala duela. Adierazpen-askatasunak, pluralismoak, erlijioekiko errespetuak eta gainerako libertateek iraultzari gaitzik ez diotela egiten egiaztatuz, erregioko herri-masen ikusmiran igo eta inperialismoaren demagogia apurtu egiten du Nikaraguako prozesu iraultzaileak.

Hain zuzen, Ipar Amerikak hain maite duen eskema, hau da, Nikaraguako prozesua Ekialdeak Mendebaldea menperatzeko daraman borrokaren episodua besterik ez dena, guztiz gezurtatua gertatzen da. Argi bait dago bai herri-intsurrekzioaren fasean bai geroko bilakaeran protagonismo osoa bertako herriak izan duela, eta kanpoko eraginak guztiz bigarren mailakoak izan direla fase guztietan. Baina USAtar inperialismoak —eta ez Reaganek soilik— ezin du horrelakorik onartu, eta Nikaraguako iraultza, Kuba eta SESBen alabatzat salatuz ezkutatu nahi duena da Nikaraguakoa, inongo eskematan kokatzekotan, Ipar-Hegoa gatazkan sartzen dela, eta beraren definiziorik zehatzena, krisi erregional baten adierazpentzat ematen duena dela.

Goiago esan dugunez, Ertamerika osoa da batasun geopolitikoak, eta krisiak erregio osoa jotzen duenez, irteera ere orokorra izatera bultzatzen duten indarrak oso bortitzak dira. Ez da, beraz, kasualitatea, Guatemalan, eta, batez ere, El Salvadorren herri-iraultzak oso urrats sendoak egin baditu, ezta, Hondurasko egoera, inperialismoarentzat hain segurua izan den Costa Ricakoa bezala, puntu kritikora iristen ari bada.

Nikaraguako herriaren eta inperioko indar gerrazaleenen garraipen elektoralak bero-bero dauden une larri honetako meha-

txuek aurrera egiten badute, gatazkaren internazionalizazioak izugarrizko jauzia egingo du, Istmo osoa, gutxienez, gerra pizteko arriskuarekin.

«Vietnamgo sindromea» ez al da nahikoa izango inperioko indar faktikoei horrelako urrats arriskugarria galerazteko? Milioika hildako egin behar ote ditu herri txiki baten askatasun-nahiak? Gauza bat dago argi, alegia, mundu osoko herri-askatasun- eta bake-zaleok badugu erantzukizunik Etxe Zuriko Hitler berriaren besoa geldierazteko ahaleginetan. Nikaraguak bizi, eta libre bizi, nahi du. ■ *Antton Elozegi.*

## Auzitegi Gorenaren interpretazio onartezina

# Funtzio publikoa eta hizkuntzagatiko diskriminazioa

Edorta Cobreros

Lan labur honetan, Auzitegi Gorenak (*Tribunal Supremo*) egin duen interpretazio bat komentatuko dut. Arazoa hauxe zen: Euskadiko Administrazio Publiko bateko funtzionari izateko, euskararen ezagutza meritutzat kontsideratzen zela.

Nire ustez, egin den interpretazioa guztiz okerra da. Eta hori indarrean dauden testu legalak kuestionatu gabe; Konstituzioan eta Estatutuan agertzen den ofizialkidetasun-printzipio berean oinarrituz. Hots, nire kritika ikuspegi *juridiko* batetik (eta ez *politiko* batetik) egingo dut.

Ikus ditzagun zehatz-mehatz lehenik datu guztiak, gero Auzitegiak eman dituen argumentuak eta, azkenik, egin daitekeen kritika.

I. 1983ko otsailaren 28an Gipuzkoako Foru-Aldundiak deialdi bat egin zuen «Servicio Foral de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento» delakoaren Buruaren postua betetzeko, eta horretarako oposizio-konkurto libre eran plazaratu zuen postua. Oposizio-konkurto honen oinarriak hauek ziren:

«7ª. *Ejercicios de la fase oposición.*

Los ejercicios de la oposición serán cinco de carácter obligatorio y uno de carácter voluntario.

«Primer ejercicio.- De carácter obligatorio para todos los aspirantes. Consistirá en desarrollar por escrito durante un período máximo de tres horas, dos temas... relacionados con el programa (Anexo I)...».

«Segundo ejercicio.- De carácter obligatorio para todos los aspirantes. Consistirá en exponer, oralmente, en un período máximo de 90 minutos tres temas...».

«Tercer ejercicio.- De carácter igualmente obligatorio. Se desarrollará, por escrito, durante un período máximo de cuatro horas y consistirá en resolver dos supuestos prácticos...».

«Cuarto ejercicio.- Euskara. De carácter obligatorio. Consistirá en una conversación con el Tribunal y un ejercicio escrito».

«Quinto ejercicio.- De carácter voluntario. Consistirá en la traducción directa, sin ayuda de diccionario, de un texto elegido por el Tribunal en francés, inglés o alemán».

«Sexto ejercicio.- Pruebas físicas, según Anexo II».

«8ª. Calificación de la fase oposición.

Los tres primeros ejercicios tendrán el carácter eliminatorio. El primero y el segundo tendrán un máximo de 10 puntos, siendo preciso alcanzar un mínimo de 5 para superarlos. El tercero se calificará con un máximo de 15 puntos, siendo preciso obtener 7,5 para superarlo. La puntuación máxima del cuarto ejercicio relativo a los conocimientos de euskara, será de 6 puntos, no teniendo carácter eliminatorio y el quinto ejercicio tendrá un máximo de 4 puntos, teniendo preferencia el inglés. El sexto ejercicio será eliminatorio no dando lugar a puntuación».

9. oinarrian konkurtsoarena erregulutzen zen, 15 punturekin denetara.

II. Deialdi hau aurkatu egin zuen Madrileko «Colegio Oficial de Ingenieros Industriales» delakoak, laugarren ariketa «discriminatorio y anticonstitucional»tzat jotzen zuelako. Madrileko «Colegio Oficial» honek birjarpen-helegitea (*recurso de reposición*) jarri zuen; Diputazioak ez zion erantzun eta hilabete pasatuz gero, zientzian ezezkoaren bidez, ezeztatutzat eman zen bere prententzioa, bere errekurtsioa.

III. Orduan «Colegio Oficial» honek Iruñeko Lurralde-Audientziara jo zuen eta han helegite edo errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri zuen. Helegite hau «Ley de Protección Jurisdiccional de los Derechos Fundamentales de la Persona» delakoan

erregulatzeko den prozesuaren bidez jarri zuen, hots, prozesu lehentasunezkoa eta laburra (*preferente y sumario*).

Lurralde-Audientziak 1983ko abenduaren 13an eman zuen bere epaia helegitearen pretentsioei ezetz esanez. Audientziaren ustez deialdia ez zihoan berdintasun-printzipioaren kontra eta eman zituen arrazoiak —laburki esanda— hauek ziren: euskararen ariketa ez da eliminagarria, arrazoizkoa da euskara ezagutzea meritu bat izatea eta, azkenik, puntuazioa (osora begira) ez da desproporzionala.

IV. «Colegio Oficial de Ingenieros»ek epai honen aurka apelazio-helegitea (*recurso de apelación*) jarri zuen Auzitegi Gorenean. Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 1984eko urtarrilaren 25eko datarekin (ikus *Aranzadi*, 205 zk.) eman zuen bere epaia. Epai honen «ponente»a Rodríguez Hermida Jna. izan zen eta kontsiderandoak hauek ziren (testualki hartuta, oso adierazgarriak bait dira):

«CDO.: Que, a la hora de resolverse la problemática litigiosa, preciso se hace partir del art. 3º. de la Const. de 27 diciembre 1978 (r. 1978, 2.836), a cuyo tenor, «el castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho de usarla. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, de acuerdo con sus Estatutos...», es decir, la lengua oficial de España es el castellano, por lo que todo olvido o discriminación con respecto a ella conculca el espíritu y la letra de tal precepto, de ahí que, al establecer la base 7ª. de la convocatoria del Concurso-Oposición libre de autos, el que el «Euskera» será de carácter obligatorio y que consistirá en una conversación con el Tribunal y un ejercicio escrito con la calificación de hasta 6 puntos, se está preteriendo el castellano, pues, qué duda cabe, que cualquier concursante que no domine el «Euskera» está en peor situación que los parlantes de este idioma, los cuales, si lo dominan, tendrán 6 puntos en el cómputo total de la puntuación, y que no tendrían los que no dominen esta lengua, discriminando a los que hablan la lengua oficial de España, el castellano y, en consecuencia, tal base conculca el espíritu y la letra del art. 3º. de la calendada Const. y, a mayor abundamiento, tal criterio se ve corroborado por el art. 6 de la Ley Orgánica de la Autonomía del País Vasco (R. 1979, 3.028), con arreglo al cual, parrs. 1, 2 y 3 del mismo, «el Euskera, lengua propia del Pueblo Vasco tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial de Euskadi, y todos sus habitantes tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas», aña-



diendo, el párr. 2<sup>o</sup>., que «Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad varia lingüística del País Vasco, garantizan el uso de ambas lenguas», terminando por afirmar el párr. 3<sup>o</sup>., que «nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua», pues, es evidente que esos 6 puntos que se dan a los parlantes del Euskera van a pesar en el cómputo del concurso, discriminando a los que hablan el castellano, lengua oficial de España, y que, cuando menos, deben tener esa puntuación, prueba de ello es que el párr. 3<sup>o</sup>. del artículo citado no permite discriminación alguna en cuanto a la lengua se refiere».

«CDO.: Que, contra lo razonado queda, no puede ser óbice el que el ejercicio de Euskera no sea eliminatorio, pues, aunque ello es cierto, no cabe duda que los 6 puntos de su conocimiento van a pesar muy mucho a la hora de las puntuaciones totales, sobre todo en los casos de empate o en aquellos en que la diferencia de puntuación es muy pequeña, en perjuicio, claro está, de los que hablan un idioma, que además de ser oficial de los españoles, está asimilado al de Euskadi a tenor del párr. 1<sup>o</sup>. del art. 6<sup>o</sup>. de la Ley de 18 diciembre 1979, de ahí que, si esa asimilación es oficial y cierta, no nos podemos explicar cómo al que habla el castellano no se le da el mismo trato en puntuación que al que habla el lenguaje de Euskera, sin que sea de recibo tampoco el que se compare la puntuación de 4 puntos por el conocimiento de los idiomas francés, alemán, o inglés, pues, aunque la cuantificación en puntos de ambos supuestos pueda ser correcta, no lo es si no se dan esos 6 puntos al que habla el castellano, al ser el Euskera y el Castellano dos lenguas oficiales que los habitantes del País Vasco tenían el derecho de conocer y usar, no mereciendo mejor acogida el que se compare esa puntuación de 6 puntos con la puntuación dada a los tres primeros ejercicios, pues aunque es cierto que cuantitativamente son sustancialmente diferentes, lo cierto es que esos 6 puntos de los parlantes del Euskera van a pesar mucho a la hora de totalizar la puntuación, discriminando a todos aquellos que no hablen tal idioma y sí el castellano, que es el idioma oficial de España y tan oficial en el País Vasco como el Euskera y, a mayor abundamiento, es evidente que esta situación rompe el principio de igualdad del art. 14 de la vigente Constitución, en cuanto que se conculca el derecho de los españoles al acceso de las funciones públicas disminuido para todos aquellos que no sean parlantes del Euskera, pues, qué duda cabe, que éstos tienen de salida unos puntos que no tienen el resto de los españoles, con la consiguiente vulneración de tal artículo, criterio que ya pro-

clamó el T. Const. en su S. de 22 diciembre 1981 (R. T. Const. 42) y esta Sala en su Res. de 21 abril 1980 (R. 1.392)».

Beste erreflexio asko alboan utzirik, funts juridikoak aztertzen baditugu, lau dira Auzitegi Gorenaren arrazoi inportanteenak in-konstituzionaltasun hori mantentzeko:

### **1. Gaztelaniaren ahanztura edo baztertea**

Auzitegi Gorenaren ustetan, oinarrietan gaztelania ez agertzeak esan nahi du Konstituzioaren 3. artikulua ez dela errespetatzen. Baina kontutan eduki behar dira oinarrietan exijitzen ziren bi baldintzak: nazionalitate espainiarra izatea eta ingeniari- edo arkitek-tu-titulu ofiziala edukitzea; gainera, oposizioaren ariketa guztiak (euskararena ezik, noski) gaztelaniaz egiten ziren.

Datu guzti hauekin, gaztelania bigarren lekuan gelditzen zela pentsatzea edo funtzionariak ez zuela gaztelania ongi erabiliko (eta, ondorio bezala, zerbitzuak gaizki funtzionatuko zuela) imajinatzea guztiz zentzugabea da eta Euskal Herriko errealitatea ez dela ezagutzen adierazten du.

### **2. Euskara ez dakitenen diskriminazioa**

Arazo honi buruz Auzitegi Gorenak, gutxi gorabehera, honela dio: badaude euskaraz ez dakitenak; euskara jakiteak puntu gehiago suposatzen du... ergo hizkuntzagatiko diskriminazioa dugu.

Baina berdintasun-printzipioa edo diskriminazio-debekua ezin da halaxe interpretatu edo aplikatu. Auzitegi Konstituzionalaren interpretazioa, behintzat, guztiz bestelakoa da. Auzitegi Konstituzionalaren ustez, berdintasun-printzipioak «relaciones jurídicas concretas» direlakoetan jokutzen du, «tertium comparationis» bat behar du; printzipio hau ezin da abstraktuan kontsideratu edo egoera guztietarako finkatu. Eta askotan esan du Auzitegi honek berdintasun-printzipioa ez dela errespetatzen, ez lege-tratamendu ezberdina egiten denean, baizik eta tratamendu ezberdin horrek justifikazio objektiborik eta arrazonagarririk ez duenean (Ikus 82-5-5eko epaia, f.j.3.).

Gure kasuan, erlazio juridiko konkretu horiek aztertzen baditugu, zera aurkitzen dugu: a) funtzio publikorako postu bat da (deialdira doanak funtzionari izan nahi du) eta postu honen bete-

tzea meritu- eta kapazitate-printzipioen arabera egin beharra dago (Konst. 103.3. art.); b) Gipuzkoako Diputazioa Komunitate Autonomo baten barruan dago eta Komunitate Autonomo horrek bi hizkuntza ofizial ditu, bata euskara delarik; c) gaur egun Euskadin dauden Administrazio Publikoek ez diote erantzuten euskararen normalizazioari, hizkuntza ofiziala izateari.

Orduan, denok ikusten dugu erlazio juridiko konkretu honetan (Gipuzkoako Diputazioaren eta honen funtzionari izan nahi duenaren artean) ez dela diskriminatzailea puntu gehiago ematea euskara jakiteagatik.

### 3. Bi hizkuntza ofizial direlarik, ezin da baloratu bata eta ez bestea

Auzitegi Gorenaren eritziz, euskara baloratzea eta gaztelania ez baloratzea ofizialkidetasunaren kontra doa.

Baina sei puntu ematen badizkiogu euskarari eta beste sei gaztelaniari (epaiak nahi omen duen bezala)... berriro euskara dakiena aurrerago joango da. Zergatik? Euskara dakienak gaztelania ere badakielako; euskaldun guztiek dakitelako gaztelania. Euskadin elebakar bakarrak, erdaldunak dira!

Puntu honi buruz epaiak egiten duena, nahastea da. Arrazoa hau da: oposizioan *batak besteak baino gehiago ateratzén badu, ez da euskara jakiteagatik, baizik eta bi hizkuntza ofizialak jakiteagatik* (eta ez bat bakarrik, gaztelania soilki dakienak bezala).

Gainera, oso kontutan eduki behar da puntuak ateratzeko azterketa berezi bat egin behar dela. Ez da nahikoa euskara badakiela esatea, frogatu beharra dago. Orduan, asko baldin badaki, puntu gehiago aterako ditu, baina gutxi baldin badaki edo alfabetatu gabekoa baldin bada, puntu gutxiago aterako ditu. Honekin zera esan nahi dut: puntu gehiago ematen dela, ez euskaldun izateagatik soilik, baizik eta bi hizkuntza ofizialak jakiteagatik; alegia, meritu gehiago duelako, kapazitate tekniko handiagoa suposatzen duelako bere funtzioak betetzeko.

Eta hau ez da nire ideia berezia. Estatutuan, 35.1. artikuluan, esaten da Euskal Zuzenbide Forala ezagutzea eta euskara ezagutzea lehentasunezko merituak izango direla Magistratu, Epai eta Idazkari izateko. Beste lege estataletan ere agertzen da meritu bezala: a) «En la provisión de dichas vacantes (Komunitate Autonomoaren Administrazioarenak), en las Comunidades Autónomas

donde exista, además de la lengua oficial del Estado, otra lengua oficial, la Administración del Estado deberá tener en cuenta este hecho» («Ley del Proceso Autonómico» delakoaren 25.2 art.); b) «En las convocatorias para acceso a la función pública, las Administraciones Públicas en el respectivo ámbito de sus competencias deberán prever la selección de funcionarios debidamente capacitados para cubrir los puestos de trabajo en las Comunidades Autónomas que gocen de dos lenguas oficiales» («Ley de medidas para la reforma de la Función Pública» delakoaren 19.1 art.).

Puntu honekin bukatzeko, beste gauza inportante bat esan behar da. Epaian ez da aipatzen inondik inora eta ez da erabiltzen «Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea» (edo «Ley Básica de Normalización del uso del Euskara»), Euskal Legebiltzarrak emandakoa. Lege honen 14. artikulua aplikatu izan baltz, erabakia guztiz bestelakoa izango zatekeen. Eta lege hau, nahiz eta errekurritua egon Auzitegi Konstituzionalean, aplikagarria zen eta indarrean zegoen eta dago. Hau hala da, Gobernuko Presidenteak inkonstituzionaltasun-errekurtsioa jarri zuenean, Konstituzioaren 161.2 artikulua aipatu ez zuelako, eta honegatik artikulua errekurrituak suspenditu gabe daude.

#### 4. Prezedente jurisprudenzialak

Erabakia oinarrizko epaiak aipatzen dituen prezedenteak ez dira egokiak. Hori ere gaizki egiten du epaiak: a) Auzitegi Gorenaren epaia (80-4-21ekoa) beste problematika batetan dago murgildua: Kataluniako hezkuntza-sistemaren egituran eta ikasleen eskubideetan, hain zuzen; b) Auzitegi Konstituzionalarena ere (81-12-22koa) beste kasu ezberdinean eman zen: «Ley Catalana de Bibliotecas» delakoak, bere 13.2 artikuluan titulu konkretu bat exijitzen zuen (Bartzelonako «Escuela de Bibliologia»ren titulua edo Generalitateak esango zuena), eta horixe eztabaidatzen zen.

Askoz aplikagarriagoa zen Auzitegi Konstituzionalaren beste epai bat: LOAPAren aurkako errekurtsioan eman zuena (83-8-5ekoa). Han, beste gauzen artean, Komunitate Autonomoko hizkuntza propioa ezagutzea «mérito para la provisión de vacantes» kontsideratzen zen. Baina Auzitegi Gorenak ez du erabaki hau aipatzen.

V. Ikusi dugunez, epaiaren muina diskriminazioaren arazoan datza. Administrazio Publikoa ofizialkidetasun-printzipioa prakti-

kan jartzen hasten denean, beti diskriminazioaren salakuntza sortzen da

Baina ezin dugu ahaztu Euskadin, askotan, hiritar euskaldunak direla diskriminatuak. Hau gertatzen da, beren hizkuntza propioaz jotzen dutenean botere publikoetara, oztopoak, baztertzak edo atzeratzeak topatzen dituztelarik. *Eta hori gerta ez dadin, organo publikoek funtzionari elebidunak behar dituzte.*

E.C.

## OTAN izango da laster naturalena

Joxe A. Otaegi

OTANera sartu, ez sartu (edo geratu), barra-barra entzuten zaizkie politikoei honelako arrazoiak: Aliantza Atlantikora sartuta ere, Espainiak ez omen du bere eskubide eta interesetan amore emango. Oso-osorik gordeko omen du bere nortasuna. Ez du deus inoren esku utziko bere lur-integritatean eta lur honen jabetasunean. Pittin-pittinik ere ez du galduko bere subiranotasun subiranoa. Eta abar. Sakratuak dira horiek. Ez dago galtzerik. Urguilu nazionala eta duintasun espainola beti salbatuko dituela agintzen du jadanik Presidenteak.

Merkatu Komunarekin berdin da. Jendea lasaitu beharra balego bezala mintzatzen dira, Espainiak ez duela bere nortasuna galduko, bere eskubideak eta subiranotasuna. Elkartu, elkartuko da, baina bera izango da gero ere, beti berbera, ez da elkartean disolbatuko. Inondik ere oso inportantea da hori, zeren Aliantza eta Merkatu nahasi horiek arrotzak eta gauza artifizialak bait dira, eta nahas-mahas horietan nortasuna galduz gero, azkenean ez dakigu espainolak ala zer demonio garen.

Estatu bat da Espainia, ez da gehiago. Estatu izaki, ez da beti-koa: historian bilakatua da, nola edo hala bilakatua, bortxakeria

askoz eta marrukeria gehiagoz; penintsula osoa betetzera iritsi ezinda, baina lurralde mordo batekin Afrikan, Gibraltar gabe, baina Iruñearekin. Ez du horixe baino naturaltasun eta arrazokotasun handiagorik. Denbora pasa da eta, prozesu bihurri, askotan kriminal, baten azken muga historikoa zirudiena, orain larri dabil prozesu berri baten abiapuntua bilakaturik.

Bidezkoa da. Denborak aldatu egiten dira historian. Eta historian, noizpait konstrukzio artifizial bat izandakoak, munduko gauzarik naturalena ematen du denborarekin, bere eskubide natural santu eta sakratuekin. Baina, historian, gaur tokatu ez zaionari, bihar tokatzen zaio «probitzianoa» izatea. Horrelakoxeak dira atzoko «progre»en gaurko komeriak.

Hasieran, antzina, pertsonak eta familiak zeuden, eta lagunarteak, mendi eta basoetan. Gero hirietan bildu ziren. Hiria oso gauza artifiziuala da. Familiak eta lagunarteak indar gehiago zuten elkartasun hiritarrak baino, hiria ez bait zen osoki norberarena bezala sentitzen, interes eta premia konkretu batzuri erantzuteko erakunde utilitarioa bezala baizik. Atenak interesok ongi begiratu bazituen, defendatu egingo genuen; zaputz egiten bazien, familia osoa beste hiri batetara joaten ginen eta gerra egiten genion Atenari. Ez zegoen beste naturaltasunik.

Ongi esan zuen Spinozak: «Nadie se puede privar del derecho de defenderse a sí mismo, hasta el punto de dejar de ser hombre».

Denbora pasa zen eta hiria, gizon eta familia batzuren konstrukzioa, gizonon buruen eta eskubideen eta interesen gainetik altxatu zen, berjabe eta nagusi. Jendeak mailegatu zizkion eskubideak eta nortasuna hiriak hartu egin zituen eta bere egin. Legeak ematen zituen, zigorrak ezarri, kontribuzioa bildu. «Por naturaleza, idatzi zuen Aristotelek, la ciudad es anterior a la casa y a cada uno de nosotros, ya que el conjunto es necesariamente anterior a la parte». Hiria zen pertsona, eta pertsonak eskua, begia, oinak bezala ziren, gorputzaren atalak.

Eta denbora pasa zen berriro, eta hiriak beren artean elkartzen hasi ziren, batzu beren gogoz eta gogoz kontra beste zenbait. Gorputza, naturala eta berezkoa, hiri-elkartea zen orain, eta hiri baikoitza ez zen begia, oina, eskua besterik: batzu portu-hiriak ziren, artisau-zentruak besteak, etab. Beharra zetorrenean (gero eta maizago bait zetorren), gorputzaren alde sakrifikatu behar izaten zituzten hiriek beren eskubidetxoak, elkartearenak bakarrik izaten bait ziren eskubide handiak. Horiek ez zegoen sakrifikatzerik.

Eskualdeok ere, gero, denbora pasa ahala, elkartzen hasi ziren beren artean. Batzu halaxe komeni zitzaielako, beste erremediorik ez zutelako beste batzu, eta Nafarroa, adibidez, konkistatu egin zutelako. Eskualde bakoitzak bere legeak eta Foruak galtzen zituen, eskubideak eta ohiturak, batzuk beren hizkuntza ere bai, eta Estatuaren legea, eskubidea, hizkuntza besterik ez zen geratzen. Konstrukzio berriak lehengo denak irensten zituen, eskualdeak, hiriak, familiak.

Guzti honi progresoaren historia ohi deritzo, eta progresistek miresmen eta beneraziorik handiena izan diote beti historia horri.

Bistan da, ideologiak ere aldian aldikoak sortzen zirela, eta Aristotelerena da ideologia bat. Jendea konbentzitu beharra zegoen, egoera berriaren zuzentasuna zela bidezkoena eta naturalena, lehengoak ez zuela zentzurik, eta Arana Goiri ikaragarrizko retrogrado bat zela. Sokrateri beti eta noiznahi polis grekoari obeditzen irakatsi zitzaion, heriotzaraino; euskaldunoi zein ridikulua den, irakatsiko zaigu, geure interes koxkor, probintzianoetan tematzea, Estatuaren interes arrazional eta zabalei amore eman ordez. Errepublikak Frantsesa Estatuaren mugak berak arrazionalak eta naturalak deklaratzearaino iritsiko da, Estatuaren zenbateraino den arrazoizkoa adierazteko. Eta naturala. Beti ere biak batera: arrazoizkoa eta naturala.

Arrazoizkoak izaten guztiz ikasteko, eskola batzu falta zaizkigu oraindik. Naturalak, moduren batetan, geurean, hasi gara naturalagoak izaten. Ikasi, ondo kostata, baina euskaldunok ikasi bait dugu poliki-poliki zein irrazional eta kontingentea zen gure zeruko hainbat maite genuen mila izar, hamaika amets egiten genuen udaberriko egusenti.

Beharko ikasi. Toneladaka zientzi mitraila disparatu zaigu atergabe Historiaren Akademiako artilleriatik hasi orain berrehun urte eta oraingoxe filosofo, historigile zein periodista zientifikoen petardoetaraino. Gure Aitor eta Tubal, gure Foruak eta tradizioak; gure arrazaren garbia, demokraziaren jatorra, berdintasunaren paregabekoa, askatasunaren arbola. Mito eta ez-mito zahar haiek denak hautsi dizkigute, arrazoi denak apurtu, tesi politiko guztiak birrindu, geure usteak oro kiskali. Ezer gabe geratu gara. Geu, nolana ere, lur kiskali honetan hemen geratu gara, lehen bezala orain, eta geu izaten setatzen gara. Ez antzinako demokraziarik eta ez Forurik, ez Tubalik eta ez Lelorik geratu arren, larru gorritan, ez dakigu oso ongi zer garen, baina garena izaten jarraitu nahi dugu. Hiriak, eskualdeak, Estatuak gorabehera, edo Konstitu-



zioak, Estatutuak nahiz administralgoak gorabehera, geu izan nahi dugu. Ez da gauza asko nahi duguna. Ondo iruditzen zaizkigu, edo berdin ezer ez zaizkigu iruditzen eta bost axola zaizkigu, egia esateko, hiriak, eskualdeak, Estatuak munduan, eta historiaren progresoa, gure progresoa ez bada, kontua ez bait da dantza horietan dantzatzea. Berriro lehen-gizonaren primitibismo naturalera itzulerazirik (hainbeste arrazoren mailukadaka), basotik hirira jaitsi zenak bezala galdetzen dugu: eta guri zer balio digu erakunde modu horrek? Guk ere defendatuko dugu Atena, Atenak gu defendatzen bagaitu. Bestela, «hori ez da gurea», esan beharko dugu, eta berriz mendira joan.

Estatuak sortzen ari zireneko ideologo bat hain zuzen Spinoza izan zen, baina ideologo kritikoa, judu olandresa. Kokoteraino zegoen, konstrukzio sozialoi beren kohesiorako asmatzen zitzaizen oinarri ideologikoekin: denak ziren zeruak halaxe nahitakoak, errepublika naturalak, ebidenteak, zuzenak baino zuzenagoak, sakratuak. «Confederados son hombres de dos ciudades, idatzi zuen engainu-muntaia guzti haren kontra, que para no llegar al peligro en los trances de la guerra o por cualquiera otra razón de utilidad, se obligan entre sí a no hacerse daño mutuamente, sino, al contrario, prestarse socorros en caso de necesidad, guardando cada uno su imperio. Este contrato será válido en tanto que exista la causa que le ha servido de fundamento, a saber, un motivo de interés o de daño, porque nadie contrata ni se obliga a los pactos sino con la esperanza de algún bien o por precaución de algún mal. Si este fundamento se destruye, se destruye el pacto mismo».

Mende bat geroago, XVIII.ean, gure Larramendi zebilen kote-kokoteraino eginda, euskaldunak Espainian lotzen zituen paktuarekin, onik baino kalte gehiago ekartzen zuelako. Jatorrizkoa eta naturala, esango du, herriak dira, ez Monarkiak eta Estatuak. Paktuak eta elkartasunak ongi daude, ongi daudenean. Gaizki daudenean hautsi egin behar dira, eta, bestela ezin bada, armaz eta biolentziaz apurtu, berriro askatasuna irabazteko. «¿Por qué tres Provincias de España (y no hablo ya del reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla —Guipúzcoa, Alava y Vizcaya— y otras tres dependientes de Francia, Labort, Zuberoa y Baja Navarra? ¿Qué razón hay para que esta nación privilegiada no sea nación aparte, nación por sí, nación entera e independiente de los demás?».

(Parentesi artean: gaurko historilari bixkor batzuk bitxia eta mitologikoa aurkitzen dizute euskal historigintza zaharreko «paktuaren teoria». Gertaera historiko zehatzena ez, baina pentsa-

mendu funtsean juridiko-filosofiko baten espresio bezala ulertuta, agian ez hain mitologiko eta ez hain bitxia gertatzen da teoria hori, XVI eta XVII. mendeetako filosofia politiko europarrean).

Denbora asko pasa da berriro. Historiak «progresatzen» jarraitu du, naturaltasuna eta arrazoizkotasuna Estatuak inkarnatzen du orain. Demokrazian, euskaldunek eta galegoek nahi edo behar omen dutenaren arrazoizkotasuna ez da izaten ebidentea, oso gauza diskutigarriak dira: gainera, euskaldun denek eta galego denek ere ez dute berdin pentsatzen; gainera, horiek nahi luketena egiten utziz gero atzetik beste denak etorriko lirateke, eta kaos bat izango litzateke, eta sekulako diskriminazioa jasan eraziko litzateke gainera euskaraz ez dakitenei, eta desegin egingo litzateke Estatuak, etab. Ez dago batere garbi. Ebidentzia Estatuak dauka bere alde. Bere omnipresentziak egiten du. Euskaldunen edozein asmo jar liteke auzitan, oso diskutigarria izango bait da edozer gauza ere, sekula auzitan jarri ezinezkoa Estatuak da eta Estatuaren errespetu santua.

Azkenik, Estatuak berak ari dira gaur egun elkartzen beren artean, geroari begira. Komeni zaielako, beste erremediorik ez dutelako, agian beharra dagoelako. Eta zer egiten du atzoko «probintzianoak», Estatuak eskubide gabe utzitako behialako herrialdeak, mintzairak, hiriak, desanparatuak? Euskaldun batentzat bederen dibertigarria da politikoei entzutea, bai, elkartu bai, egingo dela, baina subiranotasuna ezertan murriztu gabe, eta eskubideak ukitu gabe, duintasun nazionala beti ere ongi salbatuz eta nortasunaren inolako kalterik gabe. Aspaldian ez zen entzun parajeotan hainbeste «filosofía de campanario» (hori bai, gauzak abandotarrak ohi zuen baino eleganteago formulatuz). Hainbeste denbora ibili da bere arrazoi horiek errepikatuz ridikulua egiten. Munduak buelta asko ematen du. Historiaren logikan Euskadi arrazoi gutxi zela, bagenekien. Geuretzat, halere, nahikoa zen. Espainiak ere, ordea, honez gero ez du denboren azkeneko hitza ematen. Estatuak badoaz ekarri zuten bidetik eta, bihar, OTAN izango da munduko gauzarik naturalena, arrazoizkoena. Eta zer, guri?

Orain ez bait zigun inporta OTANek berak. Ia mende oso bat abertzaletasun «probintzianoaz» hain sufizienteki burlatu den progresia sozialistaren txaketa berri laburtzua da (zilegi ezezik, «patriotismo español»a errentagina dela, deskubritu bide dizute), Bizkaiko zozoa egunotan dibertitzen duena. Begira nondik eta, kupida gabe ipurbelzka ari zitzaion internazionalista txit jaunak ere bistan dauka berea, azkenean bista-bistan dauka, eta ez da larrosa txuria.

Euskaldunak (PNVkoak probintziano batzu direla, entzuten jarraitzen du; ETAkoak gaizkin hutsak eta geure buruaren kaltegarriak; besteak, aldiz, «Benemérita» etab. dira, baina), euskaldunak, munduaren bazter galdu honetan, dibertiturik irakurtzen du bere Spinoza zaharra: «Cualquiera que se considere bajo el imperio de la naturaleza, tiene derecho para desear cuanto le parezca útil, sea por la sana razón, sea por el ímpetu de las pasiones, y le es permitido arrebatarlo de cualquier manera, sea con la fuerza, con engaños, con ruegos o por todos los medios que juzgue fáciles, y por consiguiente tener como enemigo a aquél que quiera impedir que satisfaga sus deseos». Eta ez zen terrorista bat.

*J.A.O.*

## Plazera: sor- eta helburu Plazer-hatsarriaren defentsan

Andolin Eguzkitza

Duela luze, behin Xabier Kintanarekin erabili nuen gaia gomutatu dut oraintsu: garbizale ultramontanoek —ni ere garbizale xamar bait naiz— historiari gabe, eta kondairez biluzik, utz gintzaketelako beldurra. Eman dezagun, *plazer* bezalako berba ederra euskal hiztegiaren kereletik behera botatzeko prest leudekeela. Beharbada, horrenbeste jakitekotan, *atsegin*, *irrits*, eta *nabikari* hor daudela gainera liezagukete, eta haien pobrezia estetikoaz bezala, haien adierazkortasun-txirotasunaz ezin genezake baizik era erdi desesperatuaz irripar egin. Plazera bait da, plazer estetikoa, plazer arrazionala, plazer sexuala, plazer erlijiosoa, askatasunak eta beste-rekiko maitasunak sortutako plazera bait dira, nire ustez, giza bizikeraren sor- eta helburu, bizierazten gaituen kemen eta energia.

Musikak eta literaturak txikitandik hunkitu naute. Gure musika-irakasleak pianoan Beethoven-en sonatak jotzen zituenean, ezin nezakeen zorion eta osotasuna baizik senti, eta gaztetan, euskara ikasi berria, Michel Labeguerie eta Mikel Laboa entzunez eta haien kantuak eginez, halakoxea zen ere gorpuzkera osotik joaten zitzagun zirrara. Arte plastikoetan, orde, eskultura ez bada bederen, ez naiz inoiz oso trebea izan. Agian, eskultura hirudimentionala delako, eta espazioaren zentzuaren berpizle, errazagoa

izan ohi zaidake ulertzeko eta haren higikortasuna miresteko. Pinturarekin, baina, benetakoa zen beti barruan erabiltzen nuen gaztazka han ikusten nuena irentsi eta kaptatzearren, eta are gehiago ederrespenaz begiratzeakotz. Horregatik ez ditut inoiz behin Madrilen, eta Los Angeles-en bestean, ukan nituen esperientziak ahantzi. Urte batzu direla, hiru egun eman nituen Espainiaren hiriburuan, eta halako abagadune batetan, betebeharrak ez neukala, Prado erakustokira joatea erabaki nuen. Hiru ordu baino ez neukan; beraz, erakustoki osoan zehar presaka eta lasterka ibili barik, Velázquez eta Goya-ren gelak ikusteko jarri nintzen. Izan ere, ezin nezakeen nik neuk sinets *Las meninas* ospetsua ikustean sentitzen nuena, halako erantzun zentzualik ukan nezakeenik. Hain zen eder, beraren aurrean ero antzo sartu nuen une luzea bezala. Bestea, Los Angeles-ko konterriaren erakustokian gertatu zitzaidan, BERPizkundeko pintura-sorta bat ikustean. Zenbat bider ikusita nengoen ni irudi horiek hainbeste liburutan? Eta hala ere, Riveraren eskale baten irudi hura begiratzean, ezin neure burua plazerez gainezka kontrola. Nork esan lezake bizitzeak merezi ez duela horrelako ereti bat ukan eta gero? Batekin aski da ehun urte sufri-mendu eta pairamen zuzenesteko. Eta Yeats olerkari handiak, eta irlandar abertzale suharrak, 1916.eko matxinadaren ostean —gero irlandar errepublikaren sorkuntzan hain garrantzitsu agertuko zena—, bere zalantzak eta etsipena adieraztearren idatzi zituen le-ro horien irakurtzean:

...The best lack all conviction, while the worst  
Are full of passionate intensity...

...Onenek ez dute inongo uste sendorik,  
txarrenak intentsitate passionatuez beterik dauden bitartean...

Nork esan lezake plazera ez dagoela, baita minetan ere, beti bertan?

Maiz, filosofi sistema bat arakatzean, sistemaren eraikidura zehatza ikustean, hagitz da sendoa norberak jasan dezakeen zentzazioa, erréitatearen edo eta sistema horrek azaltzen duenaren zertan existentziala, inongo indarrek edo teoriak apur eta ezaba ezin bide dezakeen simetrikotasun eta erregulartasunaren lilura bortitza. Descartes, Kant edo Hegel-en ideiategietan sartzen has, eta behingoan dugu dardara hori barru-barruan. Izan ere, horregatik dira teoriak arrakastadun, lehenengo eta behin errealtatearen zati bat azaltzen laguntzen dutelako, zalantzarik gabe, baina are gehiago, osatu eta sendotu egin direnean, zentzazio hori sortzen dutelako: segurtasun eta, zur oneko mahai bernizatu batek bezala, leuntasuna. Eta ez teoriak bakarrik, baita alaka zorrotzik gabeko

edozein atsotitz, esaera edo koblak, Bizkaiko Ibarrezkerrean gure gurasoek gerra aurrean kantatzen zutenorrek bezala:

¡Cómo quieres que una luz  
alumbre dos aposentos,  
cómo quieres que yo sea  
vasco y español a un tiempo!

Ezin ediren era zorrotz eta zehatzagorik sentitzen zutena eta duguna adierazteko. Arazoak beranduago datoz, teoriak azaltzeko tresna barik, erralitatearen parte bihur erazten direnean.

Kasurik argiena, Marxen sistema dateke. Marxen filosofiaren arrakasta, haren izenean egin diren astakerietatik baino gehiago, zeratik dator: historia azaltzeko egundaino sortu den sistemarik azaltzaileena izatetik, eta, noski, sortu zenetik sistema hori gairiditu duen beste azalpen-sistema osoagorik sortu ez delako. Jakina, edozein teoriaren eraikitzeak aldaki asko albora uztea eskatzen du, maila zientifikoan guztiz beharrezkoa den prozedura; osterantzean beti aurki bait genitzake datuak kontrexenpluak sortzeko, teoriak ez dira kontradibideez desegiten, teoria desberdinez baizik, hots, azaltzaileago diren teoriak sortuz. Izan ere, honetan dago alderdi komunista guztien arazoa «historia klase-borrokaren historia da» bezalako esaera bakun, zehatz, oso eta simetrikoa tresna teoriko bezala barik, erralitatearen parte bezala erabiltzean —gizabanakoa ahaztu dute, zioen luze dela Joxe Azurmendik—, lehenengo naioartekoaren praktika politiko gizatiarra ahanztean eta desegitean, azkeneko ehun urteotan anarkismoaren eta joan den mundu-gerraren ondoko sozialismo erradikalaren praktika soziala burgeskoskor delakoan salatzean. Beste era batera esatearren, teoria obus bat balitz bezala erabiltzean. Noski, kasurik txarrrena marxista-leninistena da, proletalgoaren ordezkari autoizendatzetik, proletalgoaren arima izatera igarotzen direnak, eta beraz ezinukituzko eta sagaratu. Modan dagoelako ez da egoki ez dotore errepikatzea, baina ondikotz erran behar dugu errepublika sozialista guztiak monarkiak direla, salbuespenik gabe edo agian Jugoslavia eta orain Hungaria ere. Kasurik bitxiak Errumania eta Ipar Korea dira. Lehenengoan ministrari-batzarreez barik famili batzarreez berba egin behar bait da, eta bigarrenean Kim Ir Sumek bere seme zaharrena izendatu duelako bere ondorengo alderdiaren idazkari bezala. Eta Castrotarrek —badakizue, Fidel eta Raúl— ikusiko dugu zer egiten diguten.

Tristeago, ordea, obusa bera guztiz txarra denean gertatzen da, alegia, ezer apurtzeko ere balio ez duenean, teoria ez simetrikoki eta

zehatz ez eta bakun ere ez denean, intelektual euskaldun (?) espainolistek sortu diguten teoria probintzianoa bezala (donostiarrak gero lehen bultzatzailea: Escudero), Euskal Herri bi omen dagoela, nazionalista eta bestea, eta lehenengoak ez omen du bigarrenaren existentzia onartzen ere. Jainkoari eskerrak! Eta oso pozik omen daude, plazera unibertsala da eta. Kontrako kasua ere ez da oso erakargarria, aurrekoak behintzat inoiz alegrantziaz egon dirateke —teoria sortu zutenean—, ez baina informazioaz mozkor daudenak, informazio hori galbahe teoriko batetatik pasatzen ez dutenak, badakizue, abertzale errealistak: baina ba ote dago Euskal Herrian abertzale izatea baino gauza absurdu, irrazional eta bi-xiagorik?

Gutxi gainera daiteke, bestalde, giza bizitzan sexualtasunak daukan garrantziak eta, gizakiak gizaki direino, ukanen duen eraginaz. Euskal idazleen lorategian ere hasiera-hasieratik ukan dugu kenka horren berri Etxepareren olerki freskoez. Gutxi ere gehi daiteke sexualtasunaren irritsak sortzen digun plazeraz, gorpuzkera biren loturak eta ukitzeak bezala, hala elkarri musukatzeak eragiten digun ekurutsasun suharraz, eta nork bere buruaren galeraren zentzazio zoli eta erabatekoaz. Hain boteretsua izateagatik, beti jazarria, txartzat emana eta mugatua. Kasurik erradikalena, besterik ezean, maitasun homosexual delarik, plazera sentitzea bait da jomuga bakarra, besterekiko amodioa adieraztea. Hain zuzen, horregatik zioen Edward Carpenter ingeles sozialista erradikal eta homosexualak, banaz besteko, bera bezalakoan artean egon direla gehiago beti besteez arduratu direnetarikoak, besterekiko guztiz maitagarri eta maratx izan direnetakoak. Horregatik deitu zituzten *gay* beren buruak ingelesez, eta bidenabar horregatik deitu beharko liriateke *maitagarriak* euskaraz (*Euskal Herriko maitagarrien elkartea?*). Izan ere, bai ingelesez eta bai gaztelaniaz, *gay* hitzak badauzkalako oso zentzu bereziak. Lehenengoan, alai, atsegin eta aratz dena izendatzeko, eta bigarrenean amodio agortezinaren kantariak ziren Okzitaniako trobalarien artea adierazteko.

Maiz ere sexualtasunaren irritsaren kontra mistikoen eta asketen bizikerez argudiatu da, beren buruen ukapenez (ez ote gaindipenez?) gora joan diren gizaki santuen adibideez, elkarri kontrajarrira baileuden. Eta itauna behingoan egin behar dugu: Horretarako gertu gaudelarik, ez ote bakardadea, kasu batez, bakesortetazle? Ez ote naturarekiko hurbiltasunak nahikariaren asetzaila? Eta mistikotasunaren azken mailara heldu delarik, ez ote Jainkoagan egote hori plazer osoaren iturburu, osotasun absolutuaren urbegia? Nork bere burua galtzearen zentzazio bortitzak

askatasunaren konkista aldarrikatzen du, maitasun osoaren erdiespena: *paradisua*. Askesia, beraz, zein zentzutan da sakrifizio eta ahalegin? Nork esan dezake liburu bat idaztea erraz dela eta ezti, hain eder delarik ere bukatu ondoko zorientasuna? Borges-en ele sotilez esatearren:

Nadie puede escribir un libro. Para que un libro sea verdaderamente, se requieren la aurora y el poniente, siglos, armas y el mar que une y separa.

Apika, deabrua badateke gizakiaren izterbegi; ez, ordea, mundua eta haragia. Plazeraren eskilaran maila desberdin asko dago, zenbaitentzat haragia da maila bakarra, besterentzat mundua eta natura, beste hainbesterentzat, baina, Jainkoagan izatea. Maitasuna da, beraz, giltza, eta maitasunak sortzen duen plazera, beronetan, tendentzialki definitua, maila asko dagoelarik. Horregatik, ene aburuz, faltsua da plazera eta betikotasunaren zorientasuna etsaiak direla baieztatzea, galdera erretoriko batez lurra iraultzeko: zelan gerta liteke Jainkoak bekatuan eta bekatu egitekotan sortu zukeela gizakia? Are gehiago, nola azal dezakegu gizaki guztiok geure burmuinetan jaiotzetik, fededun zein ez, daukagun kode moral guxienezkoa?

Eta zer da plazera? Osotasuna sentitzea, desgizabanakotzea, besterengan egon eta izatea, askatasunaren oharmen osoa: zorientasun absolutua.

Alegia, plazera dugu moralaren iturburu unibertsala, gizaki guztiok gobernatzen gaituena, Jainkoagan sinets zein ez sinets. Azaletik begiraturik, orduan, plazer hedonista da moralaren iturria, onargarria da sadikoaren plazera? Edota masokistarena? Eta ihar-despena ez da zalantzazkoa, plazer absolutuaren iturri den neurrian da edozein plazer onargarri. Helburu nagusi horren kontrako gertatzen den guztietan ez da ontzat ematekoa, eta argi dago sadiko denaren plazer azalekoa bestearen desplazerean dagoela oinarritua, eta bidenabar sadikoaren beraren ezintasunean absolutu hori lortzeko. Gaizkia horregatik dago munduan, plazerez plazer ibili barik, plazerez desplazer dabilelako gizakia. Laburretan jartzeko eta amaitzeko:

- a) Jainkoarengan sinestea zein ez sinestea berdin irrazionala da, fede-arazoa, alegia.



- b) Gizakia den haragia eta mundua den natura ez dira elkarren arerio.
- c) Plazer absolutuaren konkista da gizakiaren helburua; beraz, plazera dugu moralaren iturria.

A.E.

## «Javier Bilbao», edo anonimato zurituaren oraingo inbentuak

Joxe Azurmendi

Anonimatoa itsusia da. Anonimatoa indignoa da. Anonimatoa mesprezagarria da. Anonimatoa kobardea da.

Esaten da. Eta, horregatik, inork ez du anonimo baten autore bezala agertu nahi izaten, eta gutxiago —anonimatoa zikina da— hain vulgarki orbantzerik ez daukan jende gutxi-asko prestu eta ohoragarriak.

Baina, askotan, anonimatoa efikaza da.

Horregatik, jende jaun asko eta txit prestuari ere kosta egiten bide zaio batzutan, norberarentzat arriskurik gabeko arma zorrotz horri errenuntziatzea. Kasu ezagunak dira, periodiko batek, polemikaren bat bere zentzuan influentziatzeko eta, gutunak itxurazko sinaduraz asmatzea irakurleenak bezala; edozeinek egunkarira gutunak izen faltsuz bidaltzea, etab. Guztiek mesprezatzen duten anonimatoa, guztiek ez dute baztertzen. Mespretxu orokorrak pentsaraziko lukeena baino askoz arruntagoa da idazle edo idatzi-zaleen mundutxoan anonimoaren erabilera.

Anonimatoaren teknika birfinduak ere badaude: halakoxe teknika bat da, norbaitek deiak samaldaka organizatzea irratira edo telebistara (izena agertu beharrik ez dagoenean), norbere sinaduraz

egingo ez liratekeen eraso-kanpainak muntatuz. Edo, sinatzen den testuan bertan, isiltzen diren hirugarrenak iturri bezala aipatuz, esaten omen duenaren edo zurrumurru anonimotik omen dakigunaren erantzukizuna beti haien bizkarretan deskargatuz, etab. Modu asko dago. Eta, niretzat, kolektibo baten izenarekin firma-tzea ere («Javier Bilbao» *Deia*-n) horixe da.

Kolektibo bezala sinatzen dena, pertsona bakar batena izan daiteke (baina, idatzi berak idazten dituen gauzak, aurretik lagunartean elkarrizketatzen omen dituzten eta emandako eritziak beti lagunarte osoarenak omen diren aitzakiarekin), edo lagunarte batena izan daiteke, zinez jende diferenteak txandaka idatzia, beti kolektiboaren sinadura arrunt bakarras. Lehenengo kasuan «kolektiboa»ren errekurtsioa ez da tranpa merke bat besterik. Bigarreanean ere beste ezer ba ote den, ordea, ez nago batere seguru.

«Tácito»ekin eta hasita, urteotan hainbat kolektibo ezagutu dugu informazio-munduan. Batzutan klandestinitate-beharragatik (baina ez zait erraza egiten, PNV barruan klandestinitate-beharrak egon daitekeenik pentsatzea), ilunpe ezkutuan hobeto konspiratzeke beste batzutan («Los Almendros»). Honelakoetan «kolektiboa» hermetikoki sekretua izan ohi da, konprenitzen da.

Bestela, klandestinitate-beharrak ez dagoenean, joko garbia denean jokatu nahi dena, kolektiboak ez dira sekretuz eta misterioz inguratzen. Kolektiboak egon dira, oraintxe ere badaude, batzutan beren eritzi eta pentsamolde franko eztabaidagarriekin (Bultzagileak, etab.), baina kolektiboko jendearen izenak eta aurpegiak ere agerian egoten dira, ezagutzen dira, eta kolektiboak adierazten duen pentsamenduaz, kritikaz, informazioaz, egoten da zein respontsabilizatu.

«Javier Bilbao» fantasma bat da eta fastasma hutsa da. Beste ezer ez da. Gauaren erditik-ari da. Eta nik ez dut ikusten funtsezko diferentziarik, izen faltsu batetan ezkututzen den pertsona anonimo bakarraren, eta beren buruei «kolektibo» deituz gauza berbera egiten ari diren bospasei edo hamaika lagun berdin-berdin anonimoren arteko anonimatoan. Eta ez dakit zergatik izango den, batek eginda zantarra dena, bostek eginda xarmangarriagoa. Biak dira berdin zerrikeriak.

Besterik izango litzateke, aldeztu aurretik publikoa izango balitz, kolektiboa osatzen dutenak hau eta hori eta hura direla, eta kolektibo gisa sinaturik datorrenaz funtsean guztiak respontsabilizatzen direla. Egiaz kolektibo bat, talde bat, orduan izango litzateke.

Baina behin eta berriro, egunero-egunero, ideia batzu edo Alderdi batzu orokorki ezezik, pertsona guztiz konkretuak eta jokabide guztiz pertsonalak epaitzea, kritikatzeta, kalifikatzea edo deskalifikatzea, eta guzti horretaz gero inor ez inon agertzea pertsonalki erantzule, konpreniezinezkoa egiten zait neuri pertsona minimoki dezente eta responsableen artean. Fikzioak utzirik, eta teatro ton-toak ere utzirik, «Javier Bilbao» goizeroko pozoin anonimoa bes-terik ezer ez da, kolektiboa zeintzuk osatzen duten edo zein res-ponsabilizatzen den ager ez dadin artean.

Agian konpreni liteke, eta konprenitu nahi genuke, zenbait me-mentu larritan lagunarte edo talderen batek horrelaxe jokatzeari hoberena eriztea, asmorik hoberenaz, komunitateari kalte okerra-goak ebitatzeko edo. Isiltzerik ez dagoenean, kontzientzian, eta esatea konprometagarri gerta litekeenean, mandatu batzu kolekti-bitateari pasatzeko. Baina, edozein gauza konprenitzeko pronto gaudela ere, salbuespenak salbuespenetan geratzekotan dira onar-garriak. Inola onartu ezinezkoa jokabide hori kasi jenero periodis-tiko propio bezala desarroilatzea da (para-editorial baten antzera), are egunkari batetan tribuna pribilegiatua bilakatzea, handik aber-tzale jatorraren zentzua, zuhurtzia eta onestasuna lau haizeetara predikatzeko. Ustelkeriaren beraren instituzio ez beste horrek ez dauka inori zer irakatsi gizalegean, ez abertzaletasunean. Egin le-zakeen abertzaleena eta gizalegezkoena betiko isiltzea luke. Edo anonimatoa behin eta betiko uztea, bere lanean jarraitu nahi badu.

Eta garbi utzi nahi nuke: zergatik erasotzen diot honela «Javier Bilbao»-ri? Ba, ezin dudalako soportatu. Ez naiz haren pentsamen-duarekin ari. Ez zait batere axola, eta ez zaizkit batere axola haren gerra partikularrak ere. Modua da, goizero Euskal Herri osoaren-tzat irain bat bezala sentitzen dudana. Nik ez dakit zenbait in-justizi modurekiko gure sentsibilitatea galtzen ari ote garen euskaldunok, diktadura luze batek edozein injustizi modurekiko sentiberago bihurtu izan behar gintuzkeenok, ala neu ote naizen samurberegia puntuotan. Nik neuk, goizeroko injustizia publiko eta programatua bezala sentitzen dut «Javier Bilbao», eta ez ideiegatik edo eritziegatik, horrelakorik egotearen beraren in-justiziagatik baino.

Kolektiboa izatearen aitzakiarekin zurututako anonimato honek beste injustizi modu bat ere probokatzen du («nola apezaren kan-tatzeta...») publikoaren aldetik. Xuxupuxuak lehenengo, zurrum-ruak hurrengo, berehala sortu dira, puztu dira, zabaldu dira esa-mesak, kolektiboko kideak Sandia eta Berendia omen direla, Urlia eta Garzearekin, ez dakit zeinek zein goititik inspiratuta. Marma-

rron errurik inor bestek ez duela, esan beharko genuke, marmar-tiek berek baizik; norbaitek edo norbaitzuk horixe ia ezinbestekoa bihurtzen duen situazioa sortzen digutela goizero, egiagoa ez baltz. Hori da kontua. Anonimoek egiari oso gutxitan ezer lagundu izan diote, eta elkarbizitzari sekula ez.

Anonimo bat edo bi, miseria da. Baina anonimatoa sistema bihurtu nahi izatea, postfrankismo honetan ia ezerekin ez harritzeko geneukan gure kapazitatea ere gainditzen duena da. Denbora hauen sinbolo guzti bat. Non eta *Deia*-n.

J.A.

## Jaso ditugu

DAIGLE, Monique: **Adinaren eragina bigarren hizkuntzaren ikas-kuntzan (arazoa zertan den)**, Habe, Itzulpen saila - 1 (euskaratzailea: Boni Urkizu), Donostia, 1984. 22 × 15,5 cm. 76 or.

HOLEC, Henri: **Autonomia bigarren hizkuntzen irakaskuntzan**, Habe, Itzulpen saila - 2 (euskaratzailea: Boni Urkizu), Donostia, 1984. 22 × 15,5 cm. 76 or.

AUGE, H., BOROT, M. F., VIELMAS, M.: **Hizketarako jokoak**, Habe, Itzulpen saila - 3 (euskaratzailea: Boni Urkizu), Donostia, 1984. 22 × 15,5 cm. 128 or.

HABE: **Helduen euskalduntzea ebaluatzen**, Habe, Donostia, 1984. 24 × 17 cm. 118 or.

HABE: **Euskalduntzearen A mailarako langaiak. Irakaslearen liburua**, Habe, Donostia, 1984. 30 × 21 cm. 368 fitxa.

ARZELUS, Xabier: **Ipuin beltzak**, Euskaltzaindia (Oinarrizko euskara), Bilbo, 1984. 20 × 13 cm. 172 or.

CHARRITTON, Piarres: **Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I: Euskal gaiak**, Elkar, Donostia, 1984. 21 × 13,5 cm. 386 or.

ELHUYAR Matematika-taldea: **Matematika, BBB-1**, Elkar, Donostia, 1984. 24 × 17 cm. 344 or.

IRAZABALBEITIA, Iñaki / ELHUYAR Kimika Taldea: **Murgil gaitezen Kimikan, BBB-2**, Elkar, Donostia, 1984. 24 × 17 cm. 252 or.

## «Kontuak argi eta garbi»

Izenburu honekintxe gure aldizkariak historian zehar izan zituen ekonomia gorabeheren berri zehatza eman genuen, duela hiru urte, JAKIN 21ean (278-280 or.).

Orduan bezala diogu orain, kristalezko etxea izan nahi duela JAKINEK. Horretan saiatzen gara. Izpiritu horrekin, bada, urteko azken zenbaki honetan, gure oraingo diru-kontuak argitu nahi dizkiogu harpidedunari, asmotan eta dirutan zertan garen, alegia.

Gure diru-iturri nagusia ezaguna da: harpidetza. Aldizkariaren salmentak 4.000.000 pasa ematen digu. Bigarren diru-iturria, erakunde publikoak dira. Aurten 1.152.000 pta. agindu digu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Ez dugu beste edo bestelako sarrerarik.

Sarreraren ondoan handiak, dexente handiagoak, dira gastuak. Aurtengo gastuak 9.750.000 pta.koak izan dira. Defizita, beraz, 4.500.000 pta.takoa da.

Eta, halere, JAKINEK aurrera darrai, naturaltasun osoz jarraitu ere. Nola da hori? Nola bizi da ekonomikoki JAKIN?

Esplikazio luze-zabaletan ihardun beharrik ez dugulakoan, hona hitz gutxitan gure jokamoldea:

1) **Idaz-lankidegoa behar baino gutxiago ordaintzen dugu.** Idazlea/ itzultzailea ordaintzen dugu, bai, baina ez behar adina, ezta ere guk nahi adina. Ordainketaren printzipioari eutsiz, 1977tik gaur arte beti ordaindu dugu; aurrerantzean, agian, laguntza hoberik ez badugu, birplanteatu beharrean aurki gaitezke.

2) **JAKIN taldeak doan lan egiten du.** Lan profesionaletik landa, ordu asko doan lan eginez bakarrik egin daiteke JAKIN gaur egun. Horrelaxe

dago *oraindik* euskal kulturgintza. Ezaguna da JAKINen irudi publikoa. Inork gutxik ezagutzen ditu, haatik, gure aldizkariaren lan-baldintzak. Kultur militantismoz mantentzen da JAKIN, militantismoaren poderioz. Jasotzen dugun diruak argitarapen-gastuetarako ematen du, eta ez askoz gehiagotarako. Hortik gorakoa, JAKIN taldeak jartzen du, bere lana doan eginez.

Aurrera begira, zer?

Kondizioak holako edo halako, JAKINek aurrera joko du, harpidedunen konfiantza duen bitartean. Hona aurrera egiteko gure oinarriak eta eskariak. Hiru oinarri hauetan finkatzen dugu geure etorkizuna:

1) JAKIN taldeak orain arteko izpiritu eta gogoarekin jarraituko du lanean, **Jainkoa lagun**. Ez dugu amore emango, ezta etsiko ere gure kultur langintza honetan harpidedunek gudan uste on duten bitartean. Hitza ez dugula jaten frogatua dugu jadanik.

2) Euskal erakunde publikoek laguntzarik luzatuko digutela **sinetsi nahi genuke**. Ez zaigu sana iruditzen JAKINen eta JAKIN bezalako beste aldizkari batzuren egoera kondizio horietan luzaroago mantentzea. Euskal kulturgintza oraindik horrela dago, *baina ez luke egon behar*. Laguntza-eskariaren gure erizpideak ulertterazak dira oso: lankideon lan-kondizioak erosozeago bihurtzea eta produktua —aldizkaria bera— hobetzea. Gehiegi eskatzea al da? Euskararen eta euskal kulturaren egoera minimoki ezagutzen duenak badaki ongi ez dagoela hor pibilegiorik edo/ eta diskriminaziorik. Kultur normalizazioak hori eta gehiago eskatzen du.

3) **Harpidedunen laguntza izango dugula espero dugu**. Urtero urtero harpidedunen kopurua handituz joan zaigu. Hauxe da, egia esan, gure lanaren saririk estimagarriena, harpidedunen ugaltzea. Seinale ezin hobea, gerora begira.

Behin eta berriz aldarrikatu duguna errepikatzen dugu orain, alegia, harpidedunak direla aldizkariaren euskarria, gure sostengu ekonomikoa eta morala. Urtearen hasieran aurreratzen diguten diru-kopuruari esker atera ahal ditugu urteko lau zenbakiak. Harpidedunak dira, baita, gure askatasunaren eta independentziaren kondizio eta garantia.

Aldizkaria beti saiatu da, bere aldetik, harpidedunari abantailak eskaintzen, harpideduna maintzen. Merkatuan baino merkeago eskaini diogu zenbait liburu, batipat UZEIko hiztegiak. Baina batez ere aldizkaria bera merkatuan baino merkeago etxeraino bidaltzen diogu. Harpidedunaren sistematikari esker, merke eskaini diezaiokegu aldizkaria. Hona ezin argiago gure kultur politikaren adierazgarri bat: aurten, 1984ean, aldizkariko orrialdea 2,5 pta. kosta zaio harpidedunari, eta guri geuri 4 pta.

Abonatuaren aldeko prezio-politika honekin jarritu nahi dugu, noski. Halere, bi urtez prezio bera mantendu ondoren, 1985erako ordain-saria igo beharrean aurkituko gara, inprimategi-arazoak oso gora egin bait du. 2.000 pta. izango da urte osoko JAKINen harpidedunaren. Ezin esan garesti denik.





**JAKIN**

**Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia**  
**Tel.: (943) 27 17 13**

JAKING

# SINDIKATUAK

EUSKAL HERRIAN

Euskararen diskriminazioa  
Nikaragua  
«Javier Bilbao» anonimoa

Urria  
Abendua

**33**

1984